goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-11-06
EGUBAKOITZA
659. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

# Maistrari hiru belaunaldiren esker ona

Isabel Iturbe omenduko dute domekan Arrasaten | 8


Isabel Iturbe. | GOIENA

'La alegría de la huerta' zarzuelarako sarrerak salgai | 30



Bertsolari txapelketako azken final-laurdena Eskoriatzan | 31



Autokarabanek Oñati 'hartuko' dute oraingo asteburuan | 17

KILOMETROAK 2016

# Lehen pausoak

Ikastolen aldeko jaia hasi da lehen urratsak egiten 3




**Ezkerretik hasita, Libe Larrañaga, Irati Telleriarte, Peru Maure, Iñaki Aldazabal eta Eneko Zamakola neska-mutikoak, Joana Gomez de Balujera (irakaslea) eta Ekaitz Aranberri (KMK 16ko Bergarako koordinatzailea) Munibe plazan**

ENEKO AZKARATE

# Giro epela eta hego haizea iragarrita Behobia-Donostiarako

Ehunka debagoiendarrek bat egingo dute domekako lasterketan | 26 eta 28




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Paco Garcia, Arrasateko sozialisten idazkari nagusia
- Abdominalak ondo egiteko jarraibideak

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## SINADURAK

RUFINA OLASAGASTI | 7
7 | LARRAITZ ZEBERIO
IGOR OIARBIDE | 16
18 | ELIAS ZUMALDE
OIER ARANZABAL | 20
22 | TXOMIN AZPITARTE
AGURNE BARRUSO | 40

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 7
HERRIAK 8 | KIROLA 26 | KULTURA 30
ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38



**Iñigo Lazkano eta Beñat Larrañaga** | Basque Stay enpresako kideak

# "Lehen etxea iragartzetik lehen erreserba egitera ordubete bakarrik pasatu zen"

**Etxebizitzak, apartamentuak eta txaletak alokairuen merkatuan eskaintzen dituen enpresa da Basque Stay; iaz irailean enpresa moduan inskribatu zuten eta aurten apirilean bertan lehen etxea alokairuan jarri dute**

**Zer da Basque Stay?**
Etxejabe partikularren apartamentu, pisu eta txaletentzako epe motzeko erreserbak lortzeaz arduratzen den enpresa bat gara. Gure berezitasuna da –gainbalioa– *check in* eta garbiketa-mantenuaz ere arduratzen garela. Horri esker, etxejabeak ez dauka ezer egin beharrik, gu arduratzen baikara guztiaz.

**Etxean arazoren bat gertatzen baldin bada, adibidez, giltzak galdu dituztela bezeroek edo ur berorik gabe geratu badira, etxejabeak arduratu behar du konponketaz?**
Ez! Gu arduratzen gara etxe horren inguruan sortzen diren gaiez. Etxejabeak ez du ezer egin beharrik. Lehen egunerako etxea garbi eta hutsik utzi bakarrik.

**Eta horrelako arazoen konponketak nork ordaintzen ditu?**
Kasu bakoitza aztertzen da. Adibidez, telebista puskatzen bada, bezeroak kolpe bat jo diolako, bezeroak ordaintzen du, eta badaukagu hori horrela izango dela ziurtatzeko metodoa. Baina, adibidez, bat-batean uraren galdaran matxura bat badago, etxearen gai propio bat bezala hartzen da eta hori etxejabeak ordaindu behar du, epe luzeko alokairu arrunt batean gertatzen den moduan. Giltzak galdu badituzte, bezeroak ordaindu behar du, noski.

**Noiz hasi zineten honetan?**
Basque Stay-ren ideia 2014ko martxoan *jaio* zen, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zuzendaritzako master bateko proiektu bezala. Hilabete batzuetan ideia garatzen aritu ostean, 2014ko irailean enpresa bezala inskribatu ginen eta lehen etxea 2015eko apirilean ipini genuen alokatzen.

**Eta zer moduz joan da?**
Lehen etxea iragartzen ipini genuenetik lehen erreserba sartzera ordubete bakarrik pasatu zen, eta egun hartan bertan sartzeko zen, gainera! Ordutik gaur arte ez gara geratu. Beraz, oso ondo joan dela esan genezake.



**Beñat Larrañaga eta Iñigo Lazkano, Basque Stay enpresako kideak.**

**Zein da zuen aktuazio eremu edo zona?**
Oraingoz, Gipuzkoako kostaldeko sei herritako hogei etxerekin gabiltza. Eta kostaldea esatean, Mendaro eta Elgoibar, adibidez, kostaldeko bezala hartzen ditugu. Guretzat, Debatik urruti samar daude, baina Houstongo, Moskuko edo Berlingo familia batentzat, Mendaro eta Elgoibar kostaldean daude! Bestalde, ez dugu inongo arazorik Lekeitioko, Mundakako, Arrasateko edo Bilboko etxeekin berdina egiteko. Lan egiteko sistema bera da, baina ez zaigu leku horietan etxea duen inor suertatu.

**"Kostaldeko sei herritako hogei etxerekin gabiltza"**

**Eta zer kobratzen du Basque Stay-k bere zerbitzuengatik?**
Diru-sarreren portzentaje batekin geratzen gara. Ez dugu kantitate finkorik kobratzen. Guri ere interesatzen zaigu etxeak ongi funtzionatzea, horren arabera kobratuko baitugu. Dena dela, etxejabearen nahietara moldatzen gara, eta, kasu batzuetan, erreserba kopurua ere mugatu izan dugu, jende trafiko handiegia ez egoteko. Kasu horietan, helburua etxearen beraren gastuak kubritzea bakarrik izaten da, eta, ondorioz, ez dago ahalik eta gehien alokatu beharrik.

**Edozein etxe hartzen duzue ala exijentzia batzuk dauzkazue?**
Edozein etxe ez, baina, oraingoz, inori ez diogu ezetzik esan. Etorri zaizkigun etxejabe guztiekin iritsi gara akordiora. Batzuetan, etxeak zaharberritzea behar izan du, eta hori nola finantzatu adostu izan dugu. Eskatzen duguna da guri etxea garbi eta objektu pertsonalik gabe uztea. Hau da, nobelak, paisaien argazkiak, eta abar, bai, baina argazki pertsonalak, arropak, eta abar, ez. Garbiketa lan horiek geuk ere egin ditzakegu, eta kasu bakoitzean aurrekontu bat bidaltzen dugu, etxea ikusi ostean. Etxe bakoitza kasu bat da eta etxejabearen nahia ere bai; ondorioz, batzuetan zaharberritze oso bat egin izan dugu eta beste batzuetan garbiketa lana bakarrik.

**"Etxejabeak egin nahi duena egingo dugu"**

**Salgai dauden etxebizitzak eskain daitezke alokairurako zuen enpresa baliatuta?**
Bai, noski! Ez dago arazorik. etxeak ez daudenez urte osoan alokaturik, oso erraz antolatzen dira etxea erostean interesaturik dauden jendearen bisitak. Gainera, bezeroek etxea beti uzten dute 11:00etarako eta hurrengoak ez dira 15:00ak aurretik sartzen. Beraz, lau orduko tartea ere badago, etxea ikuskatzeko. Konfirmaturik dauden erreserbak errespetatzea bakarrik eskatzen dugu, nahiz eta beste etxe batean kokatzeko aukera ere izaten den.

**Urte osorako libre izatea exijitzen duzue?**
Ez. Basque Stay-rentzat, interesgarriena urte osoan etxea libre izatea da, baina baditugu kasu batzuk non urtean ikasleei alokatzen zaien etxea eta uztailean eta abuztuan gure esku geratzen diren. Bestalde, beste kasu batzuetan, etxejabea bera joaten da etxe horretara urteko epe batean, adibidez, abuztu osoan, eta urteko beste hamaika hilabeteetan libre geratzen da. Flexibleak gara eta etxejabearen beharretara egokitzen gara.

basquestay
www.basquestay.com
Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu
606 74 77 56
info@basquestay.com

# Kilometroak: lekukoa herriari emango diote jaiaren hasiera ekitaldian gaur

"Desberdina, polita, jendea aho zabalik utziko duen" jaialdia egingo dute Bergaran, 19:00etan; bertan erakutsiko dituzte logoa eta leloa

UBANE MADERA | BERGARA

Bergarako Aranzadi Ikastolako eskolako patioan da hitzordua –herriko pilotalekuan, eguraldiak laguntzen ez badu– gaur, egubakoitza, 19:00etan. Orduan hasiko da Bergaran hirugarren aldiz izango den Kilometroak 2016 jaia (KMK 16) lehen urratsak egiten.

"Aranzadi Ikastolaren berezitasun bat bada abangoardia, berrikuntza, kutsu modernoa, Bergararen estilora moldatzen dena, eta horrelakoa da arropa, leloa eta logoa aurkezteko prestatu duten ekitaldia ere. Desberdina, polita, jendea aho zabalik utziko duena", iragarri zuen Mikel Egibarrek, KMK 16ko lurralde koordinatzaileak.

Bertaratzeko sarrerak doan dira, eta ikastolan bertan zein Bergarako kultura etxean eskura daitezke.



Ikastolen elkarteko eta Aranzadi ikastolako ordezkariak, Donostian. | E. AZKARATE

### "712 ikasle desberdin"

"Hemendik eta urriaren 2ra arte, 2016ko Kilometroak egunera arte Aranzadi Ikastolak dituen "bi eratako helburuak" iragarriz aurkeztu zuten KMK 16ren hasiera ekitaldi hori, Donostian aurkeztu ere, Ikastolen Etxean egindako prentsaurrekoan, martitzenean.

Soziala da helburuotako bat, Aranzadi Ikastolako zuzendari Ane Barrusok esplikatutako moduan: ikastolek duten ahalmena nabarmentzea, alegia, berau osatzen dutenen aniztasuna eta bertako kideen arteko kooperazioa balioan jarrita, zehazki.

Datuak dira aniztasun horren islarik finena. "712 ikasle desberdin" ditu Bergarako ikastolak: "Desberdin fisikoki, desberdin adimenari dagokionez (...) Gurasoak, familiak ere modu askotakoak ditugu: handiak, txikiak, familia eredu desberdinak.... Hemengoak, kanpotik etorriak, euskaldunak, erdaldunak (...) eta horiek guztiak elkartuta egiten dute ikastola anitza".

### "Bergararron jaia"

Kooperazioari dagokionez, berriz, ikastolako zuzendariak adierazi du horixe dela, hain justu, "Aranzadi Ikastolaren erronka nagusia 2016ko KMKrako: urte honetan zehar eta jaian bertan adimen, adin, pentsaera, sentimendu, joera, jatorri, hizkuntza, gaitasun desberdin horiek guztiak batzea eta elkarrekin lanean jartzea Kilometroen, euskararen eta ikastolen mesedetan (...) Herriko jendea, herri eragile guztiak batu, norbanakoak... batzar irekien bitartez, Kilometroak jaia izan dadin bergararron jaia, eta eurek antolatzea; ez guk antolatu eta eurei laguntza eskatu, baizik eta denok batera, nork bere jakituriatik, ezagutzatik eraiki dezala nahi duena Kilometroen egunean eta urtean zehar euskararen eta ikastolen alde egiteko".

Hori oinarri, gaurko ekitaldian Usurbilgo Udarregi Ikastolatik jasotako lekukoa herriari eskainiko diote ikastolako kideek: "Erabakita daukagu ostiralean udaletxera bideratuko dela, pentsatzen dugu alkatea etorriko dela Kilometroen aurkezpenera, eta haren eskutik herriko etxera eramango da, denon eskura edukitzeko", esplikatu du Aitziber Lopez de Aretxagak, Aranzadiko presidenteak.

Horren adierazle da, baita ere, dagoeneko proiektuan murgilduta buru-belarri dihardutenen kopurua: "Ekainean 15 lagun ginen honetan genbiltzanak, uztailean 30, momentu honetan 100 pertsona inguru gabiltza eta laster batean 200 bat aritu gara, prebentzioa, zirkuitua, zirkulazioa... gehitzen direnean. Poliki-poliki herri eragileak integratzen doazen neurrira, bola gero eta handiagoa izango da, bolatxo desberdinez osatutako bola handi bat eta urrirako 2.000 lagun izango ditugu lanean eta 80.000-100.000 gipuzkoar Bergaraz gozatzen", jakinarazi zuen Ekaitz Aranberrik, KMK 16ko Bergarako koordinatzaileak.

### Ezinbesteko baliabide

Bergarako ikastetxearen bigarren helburuari erreparatuta, berriz, jakinekoa den moduan, Kilometroak moduko jaiek behar jakin bat asetzeko lagungarri izateko helburua dute bere baitan: behar finantzarioa: "300 ikaslerentzat lekua egin behar zelako, eta baita eraldaketa pedagogikoa aurrera eramateko instalazioak egokitu ere". Horrek ekarri zion Bergarako Ikastolari, hain justu, 2010ean eraikin bakarrera pasatu beharra, eta ondorengo gastuak; hori guztia egin ahal izateko "maileguak ordaintzen laguntzeko" ezinbesteko baliabide izango da, bada, KMK 16.

Gaurko hitzordua borobilduta, hurrengoa ere egin dute: azaroaren 9a. KMK 16ko dendak orduantxe zabalduko ditu ateak, "arropa polita eta osagarriak" saltzeko, Bidekurutzeta kalean.

## Anton Abbadia sariketan epaimahaikide Iban Arantzabal

U.M. | DEBAGOIENA

2015eko Anton Abbadia sarirako hautagaien merezimenduak aztertuko dituen epaimahaia izendatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak urriaren 27an. Bada, epaimahaikide horien artean, Markel Olano diputatu nagusiak "euskararen alorrean prestigioa duten lau aditu" aukeratu zituen, eta tartean da Goiena Komunikazio Taldeko Iban Arantzabal Arrieta zuzendari nagusia.

### Kazetaria, idazlea, irakaslea

Harekin batera, honako hauek osatuko dute epaimahaia: Maite Artola Sarobek, Euskadi Irratiko *Mezularia* programako zuzendariak; Jone Miren Fernandez Gartziak, EHUko Gizarte Antropologia irakasleak; Arantxa Urretabizkaia Bejaranok, euskal idazle eta kazetariak; eta aurreko Abbadia saridun pertsona edo elkartearen ordezkari Arantza Diaz de Ilarrazak.

### 2016an 20 urte

20. urteurrena izango du 2016an Anton Abbadia sariak, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu zuen-eta 1996an. Sari horren helburua da euskararen normalizazioaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona edo elkarteen jarduna saritzea.

Hain justu, euskararen erabilera arnasberritu, gizarteratu eta hedatzeko pertsona edo elkarte oinezkoen jardunaren aitorpen izan nahi du. Sariak giza alorrean egindako ahalegin isila onestea bilatuko du, eta urte luzeetako sustrai sakonez etorkizunerako eredugarri izan daitezkeen jokabideak sustatzea.


KILOMETROAK 2016 AURKEZPEN-JAIA



GOIENA TELEBISTA | KILOMETROAK 2016 AURKEZPEN-JAIA
AZAROAK 11, EGUAZTENA | 22:00

25 URTE
HERRI TELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Candyko proiektu berria martxan jartzeko diru-iturri pribatuak behar dira orain

▸ Oinarrik eta Elkargik ez dute finantzaziorik ipiniko

▸ Langileen ardura da hasierako inbertsioa bideratzea




Langileak Candyn, enpresa itxi zenean. | GOIENA

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Candyko langile ohiek babestutako proiektu industrialak atzerapausoa egin du oraingo astean. Hain zuzen, Candyko instalazioetan *tetrapack* birziklatuz hiri-altzariak egiteko ekoizpen zentroa ipintzeko proiektua finantzazio publikoaren zain zegoen, eta ezezko erantzuna jaso du Elkargi eta Oinarri elkarrekiko garantia elkarteen aldetik. Horien babes finantzarioa ezinbestekoa zuen proiektuak egia bihurtu ahal izateko. Izan ere, planteamendua honako hau da: proposamena babesten duten Candyko langile ohiek finantzazioaren zati bat ipiniko zuten, eta Elkargik eta Oinarrik, batik bat, eta beste iturri publiko batzuek –Eusko Jaurlaritzaren arrisku-kapital fondo Lanparrek eta proiektu berritzaileei laguntzeko Gauzatu erakundeak–, beste bat. Elkargik eta Oinarrik ezezkoa emanez gero, langileek egin beharko liokete aurre hasierako inbertsio osoari, eta hori ezinezkoa da. 2,5 milioi euro inguru izango litzateke hori.

**Akzioen %20, langileek**

Berrindustrializazio proiektua Frantziako Urbanext enpresak proposatu du, baina Urbanext-ek ez du diru-ekarpenik egingo. Prozesua ezagutzen duten iturriek diotenez, "Urbanext-ek balio ukiezin bat ipiniko luke: makineria, produktua, sare komertziala… Dirua, ordea, langileek ipini behar zuten, eta baita erakundeek ere, baina erakundeek ezetz esan dute".

Horrek ez du zerikusirik gero sortuko litzatekeen enpresak izango lukeen jabegoarekin: %80 Urbanext-ek izango luke, eta beste %20a, langileek.

Oraingo astean izandako ezustekoa eta gero, proiektuaren atzean daudenek –enpresa batzordea, langileen izenean, eta Mondragon Unibertsitatea, nagusiki– beste ate batzuk jo beharko dituzte finantzazioa eskatzeko; hain zuzen, finantzazio pribatua bilatzea da orain lehentasuna.

Orain arteko asmoa zen sei bat hilabetean 20 bat langile hastea enpresa berrian, eta, bi urte eta erdi inguruko epean, langile gehiago hartzen joatea. 55 bat langile daude berrindustrializazio proiektua bultzatzeko gertu.

**Lanteko, bide onetik**

Beste proiektu bat ere badago: Euskal Herriko Lanteko enpresak aurkeztutakoa, automobilgintza sektorekoa. Proiektu horrek "bere bidea jarraitzen du", prozesuan dauden iturrien arabera, baina datorren urte erditik aurrera martxan jartzea da helburua. Ez da langileen diru-ekarpenik eskatzen inbertsio edo finantzazio gisa, baizik eta fidantza gisa soilik.

**Gardentasuna eta inplikazioa**

ELA sindikatuak prentsa oharra kaleratu du esanez momentu honetan "ez ELAk ez Candyko enpresa batzordeak" ez dutela "mahai gainean dagoen proiektuaren aukerak baloratzeko behar duten informazioa", eta "gardentasuna eta erakundeen inplikazioa" exijituz.

LABek, bestalde, esan du Industria Sailak zein Oinarri eta Elkargik Gauzaturen oniritzia ipini zutela baldintza gisa eurek ere ekarpena egiteko eta, nahiz eta Gauzatuk baiezkoa eman, orain hiru erakunde horiek iritziz aldatu dutela, eta, bestetik, Lanpar funtsak langileen partaidetza bermatzen zuela azpimarratzen du. LABek honako galdera egiten du: "Lanpar proiektua martxan jarri edo ez determinatzeko giltza izatea eragotzi dute, jakinda Euskal Herrian ez dagoela Ekonomia Sozialetik kanpo horrelako partaidetza tresnarik duen enpresarik. LABek gutxienez ez du ezagutzen. Benetan arazoa langileek benetan parte hartu dezaketela enpresan eta proiektua babesteko Administrazio Kontseiluko erabakiak atzera bota ditzaketela da?"

# Herri galdeketa egingo du Gure Esku Dago ekimenak eskualdean

## Hori antolatzeko bide-orriaz arduratuko den batzordea sortzea da orain dinamikaren asmoa

**MIRARI ALTUBE** | DEBAGOIENA

Debagoieneko Gure Esku Dago lantaldeetako ordezkariak Arrasaten elkartu ziren astelehenean, datozen hilabeteotan aurrez aurre dituzten erronken gainean jarduteko. Horien artean, eman gura duten hurrengo pausoa herri galdeketak izango dira eta hori Debagoiena mailan egitea erabaki zuten –Aramaiok, baina, ez zuen erabaki Debagoienarekin egingo duen bat edo ez. Gaia herriko lantaldean hausnartzekotan gertu ziren–.



Arrasaten, Kulturaten, elkartu ziren ekimeneko kideetako batzuk. | MIRARI ALTUBE

Edozein modutan, galdeketaren bide-orria gertatzeko batzorde bat sortuko dutela jakinarazi zuten. Eta, hain justu ere, batzorde horrek zehaztuko duela eskualdeko galdeketa zelan egin eta egiteko zein pauso jarraituko dituzten.

Hori bai, datarik ez dute zehaztu, 2016rako posible bada eta bestela 2017an izango da. Eta bide-orri hori gertatzen hasteko herri galdeketetan eskarmentua duten hainbat herritako ordezkariekin elkartuko dira, Arrankudiaga eta Etxarriko ordezkariekin, esate baterako.

**Proposamenak jasotzen**

Bestetik, *Eskura* txostena aurkezten jarraitzen dute herriz herri, eta Gure Esku Dago ekimenaren jardueraren, antolamenduaren eta finantzamenduaren inguruko proposamenak jasotzen dabiltza herriz herri; baita herri bakoitzean egin daitekeena zehazten ere.

Oñatin, Aretxabaletan eta Antzuolan, asteon egin dituzte bilera horiek. Eta Arrasaten joan den astean elkartu ziren herritarrekin. Bada, azaroaren 21ean (zapatua) egingo du Gure Esku Dago ekimenak ezohiko batzar nagusia eta orduan bozkatuko dituzte jasotako ekarpenak.

# "Amarru-kontsulta" dira, Irabaziren ustez, hondakinen gaineko galdeketak

**JON BEREZIBAR** | DEBAGOIENA

Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan egingo diren herri galdeketen atzean jeltzaleen eta sozialisten helburu "elektoralistak" daudela salatu du Debagoieneko Irabazi koalizioak –Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatzako ordezkariek sinatutako oharrean–. Hala, kontsulta egingo den herri horietako udal gobernuek "alde bakarrez eta aurrez jakinarazteke" galdeketaren datak Espainiako hauteskundeenekin bat etortzea erabaki izana salatu du, galdeketak "bahitu" dituztela esanda.

Eztabaidari helduz, Irabazik uste du "apropos" ezarri dela "auziaren ardatza" bilketa sisteman eta hori ez dela "funtsezko kuestioa". Horregatik, koalizioak "amarru-kontsulta" deritze galdeketa horiei, hain zuzen, modeloaren aldaketa dutelako helburu, diotenez, eta ez direlako lehenesten birziklapena eta sostengarritasuna, ezpada "epe-ertainerako etekin elektorala" eta "hondakinen negozioari lotutako interesak".

Gauzak horrela, koalizio ezkertiarrak "egiazko parte-hartze prozesua" abia dadila eskatzen du eta horretarako, lehenik eta behin, Hiritarren Partaidetzarako Araudia prestatzea eskatu dute, herri-galdeketen eta erreferendumen mekanismoak zehazteko.

# Alemaniako merkatuaren aukerak azalduko dituzte Arrasaten, Mankomunitatearen eskutik

**LEIRE KORTABARRIA** | DEBAGOIENA

Alemaniak Debagoieneko enpresendako eskaintzen dituen aukerak aurkezteko jardunaldia antolatu du Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak. Merkatu horretan interesa duen edozein enpresak jakin beharreko gakoak eman nahi dituzte, eta, horretarako, Alemanian esperientzia duten hiru enpresak parte hartuko dute, Debagoienekoak hirurak.

Jardunaldia azaroaren 24an, martitzena, izango da Mankomunitatearen egoitzan, Arrasateko Nafarroa etorbidean, 09:00etatik 11:00etara. Izen-ematea zabalik dago; argibideak behar izanez gero: 943 79 30 90.

**Grego Carrasco** | Ume dendako jabeetako bat

# "Bezeroak eskertu gura ditugu urteurrenean"

**Garibai kalean dagoen haur eta gazteendako Ume arropa dendak 30 urte bete ditu eta urteotan babesa eman dieten lagun guztiak gonbidatu dituzte Carrasco ahizpek zapatuan egingo duten ospakizunera**

**Hogeita hamargarren urteurrena ospatuko duzue aurten. Samur esaten da, baina 30 urteren atzean lan handia dago, ezta?**
Bai, lana, konstantzia eta esfortzua, baina, batez ere, ilusioa, ilusio handia dago.
**Lau ahizpa arropa denda baten buru.**
Halaxe da; familia enpresa txikia gara. Lana izan da oinarria eta bezeroak ezinbestekoak. Horregatik, eskerrak eman gura dizkiegu hainbeste urtean gurekin izan diren horiei, garai gogorretan ere beti izan ditugulako alboan. Arrasatearrekin batera daude Debagoieneko hainbat herritakoak, eta guztiak eskertu gura ditugu.
**1985ean jarri zenuten umeendako eta gazteendako denda. Nolakoak izan ziren lehen urte haiek?**
Dendaren burutazioa Mari Carmenena eta biona izan zen, eta, ni lanean nengoenez, Mari Carmenek jarri zuen abian Uribe auzoan. 40 metro koadro ere ez zituen denda hark. Handik hiru urtera Ferrerias kalera aldatu ginen, eta neu ere han hasi nintzen lanean. Eta 1997an Garibai kalekoa inauguratu genuen; orduan, Alicia sartu zen.
**Eta denda berriarekin batera aldaketak etorri ziren?**
Urte askoan egin dugu lan umeekin eta gaztetxoekin, 18 urtera artekoekin. Baina konturatu ginen umeari erostera etorri eta ama askok arropak probatzen zituztela eurendako ere. Eskaera horri erantzuteko, dendaren goiko partea emakumeendako egokitu dugu; jaioberrien arropetatik hasi, eta emakumeen 42 neurriraino dugu.
**Asko aldatu da bezeroa urteotan?**
Bai, bai. Pentsa, lanean hasi ginenean, umearendako arropatxo klasikoak saltzen genituen asko. Baina gero aldaketa etorri zen, eta urte batzuetan, horiek oso gutxi saltzera pasatu ginen. Orain, berriro dago klasikora itzulera, eta gu oso pozik gaude, arropa oso polita delako eta benetan dotorea.
**Neskatila-mutiko zirela jantzi zenituzten haiek orain seme-alabekin etortzen zaizkizue?**
Bai, eta izugarrizko ilusioa egiten digu. Gurasoak jantzi genituen orduan, eta orain seme-alabak janzten gabiltza; oso polita da hori.
**Eta orduan legez, orain ere merkatuko markarik onenekin jarraitzen duzue lanean?**
Horixe. Marka askorekin egiten dugu lan eta edozeinen poltsikotara egokitzen diren arropak ditugu. Gainera, beherapen sasoitik kanpo ere hainbat promozio egiten ditugu bezeroek ez dezaten izan gustuko dituzten arropa horiek eskuratzeko arazorik.

> **"Beherapen sasoitik kanpo ere promozioak egiten ditugu"**



**Maira, Alicia, Mari Carmen eta Grego ahizpak.** | BELUN UNE AHAZTEZINAK

**Garai berrietara egokitzen jakin duzue, gainera, eta Internetez ere saltzen duzue...**
Bai, webgunea daukagu eta handik bideratzen dugu Internet bidezko salmenta. Facebooken ere bagaude eta bezeroekin komunikatzeko erabiltzeko dugu. Zozketak egiten ere bagabiltza eta urteurrena dela-eta azaroan astero egingo ditugu. Eta gero ere jarraitzeko asmoa dugu.
**Hainbeste urtean leial izan dituzuen bezeroekin batera ospatu gura duzue urteurrena; zer egingo duzue?**
Zapatuan, azaroak 7, izango da bezeroei eskerrak emateko ospakizuna. Dendan dauzkagun produktu guztiek –arropak, oinetakoak, osagarriak, jaioberriendako kontuak...– %30eko deskontua izango dute. Gonbidapena umeendako ere bada, begiraleen laguntzarekin tailerrak izango dituzte-eta dendaren aurrealdean. *Photocall*-a ere jarriko dugu eta ateratako argazkiak Facebookera igotzen dituztenen artean 200 euroko balioa duen opari txartela zozketatuko dugu, horrekin arropa erosi ahal izateko gure dendan.

> **"Internetez saltzen dugu eta Facebooken ere bagaude"**

UME
%30eko DESKONTUA JANTZI GUZTIETAN
Etor zaitez 30. urteurrena gurekin ospatzera!
OPARIAK AZAROAK 7 ZOZKETAK
absorba Billieblush Brian and Nephew Cake Walk Carrément Beau catimini CHIPIE DC DKNY elisabeth puig ELSY Geisha HUNTER iotzun
Lee Levi's Lili Gaufrette LUCKY Fancasa Pepe Jeans Quiksilver IKKS RAMS 23 ROXY SEVENONESEVEN Timberland TUMBLE 'N DRY tutto piccolo



Bergarako Elikagai Bankuan urte osoan egoten dira elikagaiak gordeta, baina laster bete-beteta izango dute. | GOIENA

# Agirrebeña: "Komeni zaigu jende asko egotea"

## Urteko elikagai bilketa handirako (azaroak 27 eta 28) boluntarioak behar dira

**UBANE MADERA** | ARANTZAZU

Azaroaren 27an eta 28an (egubakoitza eta zapatua) egingo du Gipuzkoako Elikagai Bankuak urteko bilketa handia, Gabonetara begira egiten duena. Eta hori Debagoienean ere hala izan dadin arduratuko da Bergarako Elikagai Bankua.

Aurten, esnea, kakaoa, gailetak, babarrunak, lentejak, garbantzuak, kontserbak, arraina kontserban, Gabonetako jakiak eta umeentzako elikagaiak eramateko eskatuko diete herritarrei. Eta elikagai horiek batzeko 72 saltokitan jarriko dituzte bilketa-puntuak, Elikagaien Bankuko boluntarioak bertan direla.

Saltoki horien artean hamaika merkataritza-kate ere badira; batzuk aipatzearren: Eroski, Lidl, Dia... eta jakina, Debagoienean kate horien saltokietan ere batuko dituzte elikagaiak, Eroskin, batez ere, hura da-eta saltoki gehien dituena.

### Txikiagoak ere bai

"Denda gehiago ere badaude parte hartzeko gertu, baina guk boluntario nahikorik ez dugu guztietan egoteko. Begiratu dugu joan zen urtean zer eta non batu zen, eta erreferentzia moduan hartu da 5.000 lagunetik gorako bizilagunak dituzten udalerrietan egongo garela. Hala ere, herri gehienetan badira beste denda txikiago batzuk, Eroskiren frankizia modura funtzionatzen dutenak, eta horietako askok, denda txiki modura, euren kabuz egingo dute bilketa", esplikatu du Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako Elikagai Bankuko arduradunak. "Iaz batez beste izan ziren 31 bat denda, baina egon ziren beste 20-25 euren kontura egin zutenak", gehitu du.

### Iaz 150 bat boluntario

Hala, Agirrebeñak adierazi du gertu daudela lanerako prest dauden boluntarioak hartzeko. "Ostiralean eta zapatuan, bi egunetan goizetik gauera egon behar da. Jende piloa behar da. Jendea badabil deika, baina komeni zaigu asko egotea". Norbaitek gura izanez gero, Bergarako Elikagaien Bankura dei dezake (943 76 21 90) 09:00etatik 13:00etara. Adibide bat jartzearren, iaz, Mutrikutik Gatzagaraino 150 bat boluntariok jardun zuen lanean –Gipuzkoan, 500 bat boluntariok–.

# Perretxikoak oinarri dituen topaketa egingo dute bihar, zapatua, Arantzazun: 'mikopoteoa'

**U.M.** | ARANTZAZU

Sasoiko produktuak oinarri, "mikologiaren zaleek eta gastronomia maite duten lagunek biziki estimatzen duten" jardunaldirako gonbita egin dute, bosgarren urtez, Arantzazuko Adiskideak elkarteak, Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko Parketxeak: *mikopoteoa*.

Bihar, zapatua, 18:30ean hasiko dute jarduna, Gandiaga Topagunean, mikologo profesional eta Ultzamako Mikologia Parkeko arduradun Javier Gomez Urrutiaren hitzaldiarekin: *Perretxikoak nola ezberdindu?*

### Pintxo dastatzea

Hura amaitzean, Arantzazuko jatetxeetako sukaldariek ekitaldi horretarako propio sortutako *mikopintxoak* aurkeztuko dituzte, eta xehetasunez jakinaraziko dute nolakoa izan den haien prestaketa-lana: Zelai-Zabal, Goiko-Benta, Sindika, Milikua eta Arantzazuko Santutegia Hotela jatetxeek parte hartuko dute zeregin horretan.

Gandiagan bertan 19:30ean hasiko da pintxo-dastatzea; kasu horretan, baina, Zelai-Zabal jatetxearen pintxoak dastatuko dituzte. Eta ondoren abiatuko dira Arantzazuko "gastronomia-zirkuitutik barrena", lehen aipatutako jatetxeak "bisitatuz" eta eskaintzen dituzten gutiziak dastatuz. *Mikopote* bakoitzari 1,5 euroko prezioa jarri diote.



Onddozuria mendian. | GOIENA

# Langabezia-tasak behera egin du Debagoienean, urriko datuen arabera

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

Aurreko hilabeteetako langabezia-tasak altuagoak izan dira eta, beraz, aurtengo urteko daturik onena da urrikoa; langabe kopurua Debagoieneko herri guztietan jaitsi da, gainera, Elgetan eta Leintz Gatzagan izan ezik. Eta datua ona da alderaketa iazko urtearekin eginda ere: 2015eko urrian 2014koan baino 446 langabe gutxiago zenbatu dituzte bailaran; langabezia-tasa %12,87 zen orduan. Datutan begiratuta, hil bukaeran 3.389 pertsona zeuden lan barik bailaran, edo, bestela esanda, langabezia-tasa %11,30 zen.

**HERRIZ HERRI**

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| Antzuola | 86 | %7,92 |
| Aretxabaleta | 309 | %9,01 |
| Arrasate | 1.514 | %14,52 |
| Bergara | 819 | %11,74 |
| Elgeta | 54 | %9,11 |
| Eskoriatza | 213 | %10,52 |
| Leintz Gatzaga | 7 | %5,11 |
| Oñati | 387 | %7,28 |
| **GUZTIRA** | **3.389** | **%11,30** |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## Beitialarrangoitiak eta Airtzak eskuratu dute Gipuzkoan babes zabalena EH Bilduren hautagai izateko

Marian Beitialarrangoitia Gipuzkoan, Iker Urbina Araban, Onintza Enbeita Bizkaian eta Sabino Cuadra Nafarroan; horiexek izan dira bozkatuenak, eta, beraz, eurak izango dira EH Bilduko zerrendaburuak abenduaren 20ko hauteskundeei begira, Espainiako Kongresurako. Senaturako, Urko Aiartza Gipuzkoatik, Lorena Lopez de Lacalle Arabatik eta Irantzu Veral Bizkaitik izango dira hautagaiak. Nafarroan, berriz, zerrenda bateratua adosteko prozesua zabalik dago. Aukeraketa hori guztia herriz herri egindako batzarretako parte-hartzeetan, baita Debagoienekoetan ere, oinarrituta egin du ezker abertzaleak.

## Antzuolan zinegotzi den Gallastegi eibartarra izango da Gipuzkoako sozialisten hautagaia Senaturako

Antzuolan zinegotzi sozialista den Miren Arrate Gallastegi eibartarra aurkeztu dute Gipuzkoako sozialisten hautagai bezala Espainiako Senaturako. Datorren abenduaren 20ko hauteskundeei begira ilusioz dagoela adierazi zuen Gallastegik. "Oso pozik nago, eta ilusio handiarekin. Gogor lan egin gura dut. Antzuolan zinegotzi izatearekin uztartuko nuke, noski", zehaztu zuen zinegotzi sozialistak. Edozein modutan, gaur goizean, egubakoitza, aurkeztuko ditu PSE-EEk Kongresurako eta Senaturako zerrendak, Donostian.

## Azaroaren 16an bukatuko da Mankomunitatearen postre lehiaketarako izena emateko epea

XXI. Jardunaldi Gastronomikoen baitan lehen aldiz Postre Lehiaketa antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak, eta bertan izena emateko azkeneko egunak dira datozenak. Edozein modutan, lehiaketan asko jota 30 partaiderendako lekua dago eta Mankomunitateak jakinarazi du zerrenda izen-ematearen ordenarekin batera beteko dela –18 urtetik gorakoa behar da izan izena emateko–. Lehiaketa bera azaroaren 21ean izango da, Arrasaten. Postreak, gutxienez, honako osagai hauek izan beharko ditu: bertako hurrak, intxaurrak, gaztainak edota sagarrak.

## Ezezagunekiko estereotipoak apurtzen laguntzeko Bizilagunak programan parte hartzeko dei egin dute

"Pertsonak hurbildu eta ezezaguna zaigunari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak apurtzeko" modu "eraginkorra" dela erakutsi duen Bizilagunak ekimenaren laugarren edizioan parte hartzeko dei egin du SOS Arrazakeriak elkarteak. Azaroaren 22an da, familia batek kanpotik etorritako familia bati etxeko atea zabaltzeko hitzordua. "Aurten, gatazkek eta gaizki kudeaturiko mugek eragiten duten dramaren aurrean, eta gogo handiagoz posible bada, Euskal Herria, helmuga baino gehiago, harrera lurraldea dela aldarrikatuko dute Bizilagunek". Debagoienean ere bada parte hartzeko aukera, Elkar Hezitzen elkartearen bidez: 934 77 17 38 edo *elkarhezitzen@gmail.com*.

## ZABALIK

**RUFINA OLASAGASTI**
goiena.eus/komunitatea/



# Lan berdintasuna, noski

Urriaren 24an desberdintasun eta injustiziei alternatibak aztertzeko eguna, *Alternatiben Herriak,* izan zen Bilbon. Arlo askotako proposamenak azaldu ziren bertan, baina bizimodua ateratzeko lanei buruzkoak atentzioa eman zidan.

*Nola banatzen dira ordaindutako eta ez ordaindutako lanak emakume eta gizonen artean?* galderarekin kartel batzuk jarrita zeuden postu batean. Emakumeek eta gizonek egiten dituzten lan motak asmatzeko jolas batean parte har zitekeen. Ondoren, antolatzaileek azaltzen zuten grafiko baten Eustat-en estatistikek zer dioten: zainketa lanen %67,23 emakumeek egiten dituzte eta gizonek %32,77 –garbiketa, sukaldaritza, haurren eta menpekoen zaintza–; lan guztiak kontuan hartuta emakumeek %59,64 egiten dituzte eta gizonek %40,36 –zainketakoak eta soldatapekoak–.

**Agerikoa da nolako aldea dagoen gizonen eta emakumeen artean**

Erakunde publikoek eta komunikabide gehienek, *diotenez*, berdintasunaren aldeko jarrera defenditzen dute. Badirudi zainketa lanak eta soldatapekoak denonak direla onartua dagoela jendartean, baina agerikoa da nolako aldea dagoen gizonen eta emakumeen artean. Diskriminazioa ez dago lan banaketan bakarrik, alde handiak daude soldatetan, promozio aukeretan, lan kontratuetan, aisialdi denboran, kreditu bat eskatzean... Adibidez, lan eskaera prozesuan gaitasun profesionala eta egoera pertsonala hartzen dute kontuan mutilen kasuan, baina neskak direnean, horretaz gain, familia egoera ere aztertzen dute.

Gaur egungo sistema ezberdintasunean oinarritua dago eta alferrik da eskubide-berdintasun aitortza, orain arteko pentsamolde eta jarduerak irauli gabe. Errealitateak hori adierazten du behin eta berriro.

Egoera aldatu eta benetako berdintasuna lortzeko beharrezkoa da erakunde guztiek hau praktikan jartzea eta herritarrok, emakumeok batik bat, gure kontura antolatu eta bultza egitea.

## USTEAK USTE

**LARRAITZ ZEBERIO** | lzeberio@goiena.eus

# Beste behin, hedabideetan

Beste behin, hedabideetan da eutanasiaren auzia. Beste behin. Oraingoan, Baionako sendagile Bonnemaison da albiste, eta auziak bide luzea egin du epaitegietan. Nola ez, kalean ere egin dugu prozesu paraleloa. Baina ez dio inork zezenari adarretatik helduko, eta isilduko da gaia besteren batean besteren batzuk albiste izan arte. Dudarik ez, korapilatsua da gaia. Min asko gurutzatzen dira, eta barru-barrukoak, gainera: azkenetan dagoen gaixoaren mina, egoera latz hori bizi behar duen senitartekoaren mina, azken urratsa egin behar duen sendagilearen mina... Bada nahikoa argumentu, nire ustez, behingoz eztabaida serio bat egiteko.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Umeak lokatzetan jolastu eta zikintzea gomendatzen du zientziak ere

**Mikel Garcia Idiakez**
http://goo.gl/IDZAcv

"Zure seme-alabak egunero zikin itzultzen ez badira, behar bezala aritu ez diren seinale", dio Mary Ruebush zientzialariak. [...]

Badakigu, ikuspegi pedagogikotik, umeei mesede egiten diela aire librean aritzeak, lokatza, lurra, belarra, hostoak, makilak… eta oro har natura eta ingurua esploratzeak.

[...] Bada, beste arrazoi batzuk ere badaude haurrak (eta helduak) lokatzetan gustura zikintzeko, lurrarekin jolasteko edota baratzegintzaz eta lorezaintzaz gozatzeko. Lokatzetan aurkitzen den bakteriak *(Mycobacterium vacae)* serotonina sortzen du gure gorputzean, eta serotonina lagungarri da antsietateari eta depresioari aurre egiteko, umorea hobetzeko eta kontzentrazio eta ikasketa gaitasuna handitzeko.

"Zikintasuna ona da". Mary Ruebush mikrobiologo eta immunologoak argi du: "Utzi umeari ume izaten. Zikintasuna ona da, umeek erantzun immuneak sortu ahal izateko. Haurra beti garbi mantendu nahi badugu, bere sistema immunologikoaren garapena kaltetzen egon gaitezke". Garbitasunarekiko obsesioak alergiak eta beste hainbat gaixotasun areagotu dituela ere badio zientzialariak [...]: "Amei bonbardatzen zaie esanez ez direla ama onak, garbitasunarekin obsesibo jokatzen ez badute, baina erlaxatu gaitezen denok. Umeek berezkoa dute inguruko germenak xurgatzeko gaitasuna".

### Tragikomedia

**Angel Erro**
http://goo.gl/4qeM7A

Asteartean Lesbosi buruz idatzi nuen hemen, esaldi pixka bat efektista honekin burutzen nuen zutabea: "Esfortzua egiten dut informatiboetan agertzean katez ez aldatzeko eta izen klasikoei tragedia berriak ez xixkatzeko". Atzokoan teleberriak hara eraman nau ostera, baina ez tragedia berririk ikusarazteko, tragikomedia zahar askoa baizik. Ez ninduen harritu beharko. Literatur generoen historiak erakusten duenez, tragediari tragikomediak darraio denboran.

[...] Profil altuko politikari batzuk, notiziari ahalik eta hauspo gehiena emateko, Atenasko aireportura gerturatu dira. Bertan egon da Tsipras anfitrioia; bertan, Martin Schulz Europako Parlamentuko presidentea; bertan, Immigrazio kontuetarako europar komisarioa; Grezia utzi eta Europako beste herrialde batean, Luxenburgon, birkokatuko dituzten lehen hogeita hamar errefuxiatuei agur esateko. [...] Halere, gauza handi bat balitz bezala, agintari andana bertaratu da, portzentaje ikusgaitz bati muxu ematera kameren aurrean.

Prentsaurrekoa Lesbosko argazki erraldoi baten aurrean eman dute, elkartasun irudi ederrekoa, irrigarri utzita.

**Gutunak: karaktereak, gehienez, 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
**Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# HERRIAK

ARRASATE

# Hiru belaunalditan arrastoa utzi duen irakaslea gogoan



Isabel Iturbe lanean Garagartzako eta Gesalibarko eskola txikian.

## Isabel Iturbe eskola-maistra omenduko dute domekan Arrasateko Garagartza auzoko San Migel elizan (11:00)

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Nekez aurkitu ahal izango da Arrasaten Isabel Iturbe (Arrasate, 1917-2015) bezain maitatua izan den irakasle bat. Nostalgiaz eta maitasunez betetako hitzekin gogoratzen dute Iturbe, "andereño Isabel", haren ikasle izandakoek, bereziki, Gesalibarko eta Garagartzako eskolan aritu zirenek: "Eskola garaietako bizitzan murgildu eta oroitzapen ugari datorkigu: nola etortzen zen oinez Arrasatetik Gesalibarrera, euria, elurra edo txingorra eginda ere; nola prestatzen genituen Gabonak, goroldiaren eta zuhaitzaren bila joanez ondoren jaiotza erraldoia jartzeko; nola mozten genuen egurra gero estufa piztu eta suaren epelean egoteko...".

Uztailaren 29an hil zen, 98 urte zituela, eta zenbait ikasle tanatorioan eta hileta-elizkizunetan egon ziren arren, orain omenaldi "xume" bat egitea erabaki dute: "Dagoen tokian dagoela –agian, berak sinisten zuen zeruan–, bihoakio gure omenaldi xumeena".

**Gonbidapena ikasle guztiei**

Omenaldiaren antolatzaileek domekan Garagartzako San Migel elizan egingo den mezara (11:00) gonbidatu dituzte haren ikasle izan ziren guztiak, eta horren ondoren luntxa egiteko asmoa dute. Era berean, ez dute alboratzen aurrerago omenaldi landuagoa egitea, "denboraz eta hobeto antolatuta".

**ESANAK**

**"Ikurra izan zen guretako, ikasle guztiok oso oroitzapen onak ditugu"**

AMAIA PAGALDAI | IKASLE IZANDAKOA

**"Gutxi da esan dezakedan guztia, ama bat bezala izan zen niretako"**

PLACIDA GARCIA | IKASLE IZANDAKOA

**Garagartza ala Gesalibar?**

Irakasle moduan Gesalibar eta Garagartza artean zegoen eskolan egin zituen urte gehien, eta ikasle haien artean utzi zuen arrastorik handiena. Eskolak berak bi auzoen arteko muga markatzen zuen: "Gure artean *pikea* zegoen orduan, oso ezberdina zen Garagartzakoa edo Gesalibarkoa izatea... Orain, baina, oso ondo konpontzen gara", gogoratzen du Iturberen ikasle izandako Placida Garciak. Gaur egungo Atxabalpe futbol zelai nagusiaren eta ondokoaren artean zegoen eskola, eta 1979ko ekainean itxi zuten. Ordurako zortzi ikasle besterik ez zegoen eskolan eta ordurako 62 urte zituen Iturbek.

Zenbait urtez eskola itxita egon ostean, Atxabalpe futbol zelaia eraikitzeko bota zuten –



Neska taldea eskolaren atarian 1950ean –Isabel Iturbe erdian–.



San Frantzisko Xabier ikastolako Aratusteak 1982an –Pablo Urangan–.



Urteek aurrera egin ahala, neskak eta mutilak batera egon zitezkeen gelan. Goiko irudia 1969koa da; eskola zaharra 1979ko ekainean itxi zuten.



Gero eta ikasle gutxiago, 1971-1972ko ikasturtean ateratako er

17 | OÑATI | %60 jaitsiko da kiroldegiko lur azpiko aparkalekuaren prezioa


Isabel Iturberen eskelaren argazkia.

Mondra taldea 1988an hasi zen bertan jokatzen–.

**Euskaraz ere frankismo garaian**
Eskola hura nazionala zen: "Gogoratzen dut bandera frankista atera behar izaten genuela", dio Garciak. Eta klasean Francoren argazkia izatea derrigorrezkoa zen. Hala ere, Iturberen beste ikasle batek, Amaia Pagaldaik, oso presente du eskola-maistrak euskaraz ere egiten ziela: "Eskolak gaztelaniaz ematen genituen, baina guri euskaraz ere egiten zigun frankismoko azken urteetan, artean euskaraz egitea debekatuta zegoenean".

Gesalibar eta Garagartza arteko eskola hura itxi zenean, Erguin auzoan jarraitu zuen Iturbek eskolak ematen –egun Erguin kalean Eusko Jaurlaritzak duen osasun mentaleko eta asistentzia psikiatrikoko zentroa dagoen lekuan, hain justu–; eskola hura ere nazionala zen. Handik San Frantzisko Xabier ikastolara pasatu zen; Pablo Urangako lokaletan Haur Hezkuntzako ikasleekin ibili ostean hartu zuen erretiroa.

Pagaldaik gogoratzen duenez, oso berandu erretiratu zen euren maistra kutuna: "70 bat urte izango zituen erretiratu zenerako, eta ume txikienekin ibili zen azken urteetan". Izaeraz "oso apala" zela dio Pagaldaik: "Ez zuen autorik izan eta egunero oinez etortzen zen Arrasatetik, udan zein neguan. San Juan de Dios ospitaleko langileek tarteka autoan hartzen zuten, baina ez zitzaion oinez joatea inporta. Beti bazkari xumea eramaten zuen eskolara eta akordatzen naiz beti berdina jaten zuela esaten geniola". Eta honako hau gaineratu du: "Ikurra izan zen guretako, ikasle guztiok oso oroitzapen onak ditugu". Eskola-maistra moduan 25 urte egin zituenean omenaldia egin zioten eskola zaharrean; Gesalibarko alkate Eugenio Auzmendik eta Garagartzako alkate Felipe Nafarretek hartu zuten parte, besteak beste.

**Ikasleen urteroko oparia**
Bitxikeria moduan, Pagaldaik gogoan du nola azaroan izaten zen haren urtebetetzea eta ikasleek, opari gisa, ia urtero tokilla bat eta betaurrekoendako zorro bat erregalatzen ziotela. Udaberria "izugarri" gustatzen zitzaion eta maiatzean ohitura zuten loreak batzeko. "Loreak eramaten genizkion, baina batzuetan San Juan de Dios ospitaletik lapurtzen genituen; esaten zigun hori ez zela egin behar, hobeto zela lorerik ez ekartzea lapurtzea baino", esan du Pagaldaik.

Era berean, Garciak gogoan dauka nolakoa zen Iturbe: "Oso maitekorra zen, bihotz erraldoia zuen pertsona. Ni Extremaduratik etorri nintzen 8 urte nituela, eta ez zuen sekula bereizketarik egin izan. Gogoan dut ahizpari eta bioi arropa ematen zigula, zailtasun handiak genituen eta. Isabelen gainean esan dezakedan guztia gutxi da, erreferente ukaezina izan da niretako, ama bat bezala. Akordatzen naiz 54 neskato ginela gelan, eta guztiok kontrolatzeko gai zela. Nola aldatu diren gauzak...".


...erretratuan ikusten denez. | ARGAZKIAK: ISABEL ITURBEREN GESALIBARKO ETA GARAGARTZAKO IKASLE TALDEA

## Agur eta ohore, Isabel Iturbe

**Isabel Iturberen ikasle izan zirenetako batzuek antolatu dute omenaldia, "zerbait" egin behar zitzaiola sinetsita: "Gogoeta eginez, eskola garaiko bizitzan murgildu eta oroitzapen ugari datorkigu. Zenbat kantu, antzerki, arrosario, eskulan... ikasi eta bizi izan genituen Isabelekin, giza balio sendoak barneratuz oharkabean". Horregatik, jarraian datorren bertsoa eskaini diote Iturberi:**

*Mila bederatziehun ta berrogei*
*izango zen inguru hartan*
*frankismoaren gordintasuna*
*danok bizi azaletan,*
*Gesalibarko eskolan hasi*
*zu irakasle lanetan*
*eta bizpahiru belaunaldi*
*pasatu zure eskutan,*
*Ai zenbat une gazi ta gozo*
*biziko zenittuen bertan!!!*

*Gesalibar zein Garagartzako*
*neskak ginen zeure ikasle*
*geure artean liskar ugari*
*danok izan gura garaile*
*bizikidetza estrategiak*
*zu erabiltzean jabe*
*saiatzen zinen... baina alferrik*
*geure auzoa irabazle,*
*eskerrak urteak pasa ahala*
*konturatu ginen, ta bale.*

*Pertsona zein irakasle gisa*
*guretzako izan eredu*
*hainbat urtetan apal ta umil*
*Arrasatetik hona heldu,*
*kotxerik gabe, sarritan oinez*
*puntuan beti seguru*
*bazkari xume eta arina*
*ta geurekin konpartittu,*
*zeu bezalako irakaslea*
*guk bai izatea, helburu.*

*Adin nahasketen antolaketa*
*zuretzako ez nobedade*
*garaian garaikoa lantzean*
*zeu zinen benetan bai jabe,*
*maiatzeko arratsaldeetan*
*loreak biltzen dotore*
*gogoz abesten, zein gantxilloan*
*jolastuz gurekin ere,*
*Zu gure irakasle izana*
*benetan Isabel ohore!!!*

*Uztail uda bero goxoan*
*Isabel zinen bai agurtu*
*apaltasunaren ispilua*
*zintzoa benetan agertu,*
*eskola txikian hasi eta*
*ikastolan jubilatu*
*ibilbide luze paroan*
*denetik zaizu tokatu,*
*hainbat urtetan emandakoa*
*hemen nahi genuke eskertu.*

**Gesalibarko eta Garagartzako zure ikasleak izandakoak**


Omenaldian, Eugenio Auzmendi eta Felipe Nafarrete auzo-alkateekin batera.


Maistra lanetan 25 urte egin zitueneko omenaldia; ondoan, Mikel Olabe.


Ikasleak omenaldian zuzeneko emanaldia egiten, Francoren *begiradapean*.

## "Miresteaz batera, asko maite genuen"

Omenaldirako maitasunez jositako honako testu hau prestatu dute zenbait ikaslek: "Hemen elkartu garenok omenaldia egin nahi diogu emakume miresgarri bati, Isabel andereñoari. Txikitatik erakutsi zigun irakurtzen eta idazten, eta josten; nola ahaztu bainikak, botoi-zuloak edo joskintza frantsesa lantzeko eguazten haiek. Gainera, josten ari ginela liburu liluragarriak irakurtzen zizkigun, interesgarriena zetorrenean moztu eta hurrengo egunean amaiera jakiteko deseatzen uzten gintuen bitartean. Nola ahaztu maiatzeko arratsalde haiek loreak jaso eta Ama Birjinari eraman eta abesten genionekoak. Ikasturte amaierako txangoak hondartzara, sariak, erakusketak, errezitatzen genituen poemak...

Konpartitzen irakatsi zigun eta kanpotik bizimodu hobe baten bila etorritako neskak gure artean integratzen erakutsi zigun. Horrenbeste gauza irakatsi zigun, ez genuke sekula amaituko. Andereño Isabel miresteaz batera, asko maite genuen. Zorte handia izan dugu maistra eta emakume horren berezia izatearren. Irakaskuntzari eskaini zion bizitza eta ikasleen alde egitearren beste hainbat gauza alboratu zituen. Eskerrik asko, andereño Isabel".



Ospitale barruan erresonantzia magnetikorako unitatea zabaltzeko mozioaren bozketa unea; aho batez onartu zen. | JOKIN BEREZIARTUA

# Erresonantzia ospitalean egiteko, eskaera bateratua

## Kamioi baten eskaintzen den zerbitzua eraikin barruan integratzeko eskatu dute udal talde guztiek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Debagoieneko ospitalean erresonantzia magnetikorako unitate bat irekitzea eskatu zuen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran, aho batez. Ospitaleko atarian kamioi baten egiten dira gaur egun erresonantziak, eta unitate hori ospitale barruan zabaltzearen aldeko EH Bilduren mozioarekin bat egin zuten gainerako taldeek: "Obren aurretik moduan, erresonantziak kamioi baten egiten jarraitzen dugu, eta hori ez da ona langileentzat, pazienteentzat eta Osakidetzarentzat. Eskatzen dugun bakarra da Arrasateko eta Debagoieneko biztanleek izatea beste edozein eskualdetako biztanleen prestazio berberak", esan zuen Eneko Barberenak. Jaurlaritzari eskatu diote hiru hilabeteko epean unitate hori irekitzeko eta partida bat bideratzeko 2016ko aurrekontuan. Gainera, debagoiendarrei eskaintzen zaien osasun-arreta eta irisgarritasuna hobetzeko "behar diren inbertsio guztiak" egiteko ere eskatu dute.

Maria Ubarretxenaren arabera, ospitaleko "hobekuntza guztien" alde egingo du lan EAJk.

**Musika eskola Aprendices-en**

Bestalde, 2015eko aurrekontuan kreditu aldaketa bat egitea onartu zen. Gastu gehigarrien artean daude, besteak beste, hondakin organikoendako poltsa bideragarrien ia 90.000 euroko kostua eta Aprendices eraikina birgaitu eta musika eskola bertan egokitzearena –Goikobalu abesbatza ere bertan egotea aurreikusten da–.

Azken proiektu hori "estrategikoa" izango da agintaldi honetan; eraikina ez da Udalarena, Jaurlaritzako SPRI erakundearena baizik: "Sukaldeko lana egiten ari gara Jaurlaritzarekin. Ekainetik dihardugu, badakigulako administrazioko denborak oso geldoak direla eta gure asmoa delako proiektua agintaldi honetan gauzatzea. Aukera handiak ditugu proiektua aurrera eramateko", dio alkateak. Kreditu aldaketa proposamenak aurrera egin zuen Baleikek kontra bozkatu eta Irabazi abstenitu arren.

**Indarkeria matxistaren aurka**

Alderdi sozialistak indarkeria matxistaren aurka aurkeztutako mozioan Espainiako Gobernuari "gaitz arbuiagarri" horri aurre egiteko plan integral bat eskatu zioten, besteak beste. Aurrera egin zuen mozioak talde guztien babesarekin, EH Bilduren abstentzioa izan ezik; helburuarekin bat etorri arren, mozioa "urruna eta landu gabekoa" dela dio koalizioak. EAJk, Baleikek eta Irabazik –azken bi talde horiek bihar Madrilen egingo den manifestaziorako deia egin dute– desadostasunak erakutsi zituzten testuarekin baina aldeko botoa eman zuten, finean, helburuarekin bat datozelako. Oscar Garcia bozeramaileak mozioa babestu zutenen jarrera eskertu zuen "erantzukizun politikoaz" jokatu zutela iritzita. Azaroaren 25a baino lehen adierazpen bateratua kaleratuko du Udalak.

Amaitzeko, Ino Galparsoro alkate ohiari babesa erakutsi zion udalbatzak, azaroaren 16an hasiko den 04/08 sumarioko epaiketa dela-eta; Ino be Libre ekimenaren mozioa EAJren, EH Bilduren, Baleikeren eta Irabaziren aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoekin onartu zen.

# Hauteskunde zentsuaren zerrendak ikusgai daude

J.B. | ARRASATE

Udalak jaso ditu abenduaren 20ko Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetarako zentsuaren zerrenda berriak Gipuzkoako Hauteskunde Zentsuaren Bulegotik. Zerrendok jendaurrean erakusteko epea azaroaren 9an bukatuko da eta ordura arte herritarrek BAZen kontsultatu ahalko dituzte; astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 19:00etara, eta zapatuan 09:00etatik 13:00etara. Lehenago agertu denak ere egiaztatu beharko du zerrenda berrietan ere agertzen den edo ez. Erreklamazioak ere BAZen bertan egin beharko dira.

**Posta bidezko botoak**

Bestalde, alderdi batzuk ireki dute botoa posta bidez emateko aukera. EH Bildu koalizioak honako aukera hauek eskainiko ditu datozen asteetarako: azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean eta 8an, 11:00etatik 12:30era Arrano elkartean; eta azaroaren 12an, 19an, 26an eta abenduaren 3an, 18:30etik 20:00etara Alkartetxean.

PSE-EEk, berriz, Martxoaren 8 kaleko Herriko Etxean eskainiko du posta bidezko botoa tramitatzeko aukera. Abenduaren 10era bitartean astelehenetik egubakoitzera egunero eskainiko dute zerbitzu hori, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

# Heziketan naturak duen garrantziaz jardungo dugu

## 'Berdean hezi' liburua euskaratu dugu eta hilaren 13an aurkeztuko dugu, hainbat ekintzarekin

KOMUNITATEA GOIENA
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Ikerketek eta berezko esperientzia pertsonalek erakusten dute gaur egungo haurrek eta familiek natura behar dutela. Geroago eta kontaktu txikiagoa eta azalekoagoa dugu naturarekin eta joera horrek eragin kaltegarriak ditu gure haurrengan eta familiengan. Natura ordezkorik ez duen osasun, ongizate, ikasketa eta sormen iturri agorrezina da. Interakzio zuzena funtsezkoa da zentzumenen eta adimenaren garapenerako; baita garapen sozial eta afektibitatearendako ere.

Horretaz jabetuta, Heike Freireren *Educar en Verde* liburua da oraingoan euskarara ekarri duguna: *Berdean Hezi*. Diego Martiartuk egin ditu itzultzaile lanak eta Maddi Urizarrek ilustratu du azala. Liburua Irrien Lagunak Klubaren laguntzarekin argitaratu dugu.

**Egitaraua zabala**

Liburuaren aurkezpena aitzakia hartuta egitarau zabala prestatu dugu azaroaren 13rako. Haurrei eta familiei zuzendutako tailerra egingo dugu Monterronen, 17:00etatik 19:00etara, eta bertan naturara hurbildu eta naturaz gozatzeko aukera izango dugu jolasen bidez. Ondoren, 18:00etan hasita, liburuaren aurkezpena egingo dugu Kulturaten; ondoren, solasaldia egingo dugu Heike Freire egilearekin, GaraiON elkartearekin, Plisti-Plasta ekimenekoekin, Huheziko irakasle Iker Azkuerekin eta European Forest Instituteko ordezkari Inazio Martinezekin.

# Erreka ondoen 'izoztu' duena irabazle

Errekaren Astearen barruko argazki lehiaketako irabazleak izan dira, 18 urtetik gorakoetan, Agustin Berezibar *Montxon–Beneras* argazkiarekin eta 18 urtetik beherakoetan Xabier Carrascalen *Udazkena* izeneko erretratua.



AGUSTIN BEREZIBAR

### Sendian programako laguntza taldeetan parte hartzeko aukera

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileak zaintzeko Sendian programa barruko laguntza taldeetan parte hartzeko aukera dago. Diputazioaren ekimenez sortutako programa horretako laguntza taldeetan izena eman gura duena zuzenean jarri beharko da harremanetan Gizarte Zerbitzuekin: 943 25 20 07 edo *ongizate@arrasate.eus*.

### Autodefentsa feminista landuko dute 14an eta 15ean

Alaitz Mañesek autodefentsa feminista lantzeko tailerra emango du hilaren 14an eta 15ean Emakume Txokoan –10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era–. Izena eman behar da azaroaren 11 baino lehen: 943 79 41 39. Gaztelaniaz izango da tailerra eta prezioa da 15 euro langileendako eta 17 euro gainerakoendako.

### Kirol aholkulari bat eta harrerarako beste langile bat behar dira

Udalak kirol aholkulari bat behar du aldi baterako; Lanbiden izena emanda egon behar da eta interesatuek BAZera jo beharko dute hilaren 10a baino lehen. Bestalde, Musakolako kiroldegiko harrerarako langile bat ere behar da; gaur da izena emateko azken eguna. Informazio gehiago: *www.arrasate.eus*.

# Murugaingo indusketez berbetan Arrasateko iragana astintzen hasteko

## Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik, saio interesgarria egin zuen Etor Telleriak

T.M./J.B | ARRASATE

Datozen egunotan amaituko dituzte 2011n Murugainen hasitako indusketa lanak, eta urteotan han egindako lanen eta aurkikuntzen berri eman zuen martitzenean Kulturateko areto nagusian indusketen arduradunak, Etor Telleria arkeologoak. Arrasate Zientzia Elkarteak gonbidatuta egin zuen hitzaldia Telleriak, *Arrasateko iragana astintzen* zikloaren lehen saioan.

Historiako bi epe oso ezberdinetako, Burdin Aroko eta 36ko gerrako, elementuak izan dira indusketoi esker egindako aurkikuntza nagusiak, kastroa zeneko harresiaren hondarrak eta gerrako lubakiak, kasu. Baina bestelakorik ere aurkitu dute: "Arrasateko aldean bila ari ginela sakonune ezberdin bat aurkitu dugu, zoru antzeko bat, borobil gorrixka batekin egina erdian. Ez genekien zer zen, gainetik bala-zorroak eta 36ko gerrako bestelako materialak zituelako, baina industen joan ahala konturatu gara karobi bat dela", dio Telleriak. Indusketetako hainbat lan auzolanean egin dituzte, eta hori oso positiboa da, Telleriaren ustez, arkeologoen lana gizarteratzeko balio duelako, eta zentzu berean hitz egin du AZEren hitzaldien gainean. Hurrengo saioa Jose Angel Lema historialariak eskainiko du; XIII. eta XVI. mende arteko Arrasate izango du hizpide. Hilaren 10ean izango da, Kulturaten (19:00).



Kulturate ez zen bete, baina jende asko erakarri zuen hitzaldiak. | TXOMIN MADINA

## NIRE USTEZ



OIHAN ZUBIZARRETA

# Azaroko hosto tropelak

Udazkenaren koloreak sartu zaizkigu etxeko sukaldera. Haize zirimoletan sartu dira hosto tropelak albistegietako buletinarekin batera. Libre izan nahi duten hosto laranjak, gerratik ihesi datozen hosto horixkak edo itsasoan hondoratu diren hosto beltzak.

Eta arimen gaua igaro berritan, leihotik sartu zaizkigu etxeko pareta artera datozen korrupzioaren mamuak, tele-zaborraren zonbiak bankuko banpiroak edo bizilagunaren zaborrak.

Haize epelak gogorarazten digu atzo bertan hondartzan hauspez geundela, itsasoko olatuen joan-etorriari begira. Eguzkitan goritzen ari ziren hostoak gure buru gainera erori gabe zeudela, pozik bizi ginela eguzkiaren argiak itsututa. Baina hegora hegan doazen itsas antzarak pasa berri direla esan digu amamak, neguaren iragarle fidelak. Eta iritsi da gaztaina saltzailea herrira, negurako trenaren gidari leiala.

Iritsiko dira azala erretzerainoko elurteak eta agian inori erreko zaio mihia ere. Zurituko dira mendi gainak eta batzuen kontzientziak. Illunduko dira zeruak eta herritarren kopetak. Oilo bustiak izango gara euritan eta oilarrak nor gehiago bustiko borrokatuko dira. Amestuko dugu eguzki berriekin eta egun luzeekin, albisteak inoiz hobetuko diren galdezka.

## OHARRAK

**SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLAKO 8. MAILAKOAK**
1980-1981 ikasturtean San Frantzisko Xabier ikastolan 8. mailan batera ibili ziren ikasleendako eta irakasleendako topaketa antolatu dute, bigarren aldiz. Hilaren 28an elkartuko dira eta hilaren 18a baino lehen eman behar da izena: *saranaugarte@gmail.com*.

**1974AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 21ean egingo dute ospakizuna. Izena eman behar da azaroaren 15a baino lehen, 50 euro ordainduta: 3035 0047 13 0470075735.

**1989AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 28an elkartuko dira eta Sara Merenderuen bazkalduko dute. Izena eman gura duenak azaroaren 10a baino lehen 40 euroko ordainketa egin beharko du kontzeptuan izen-abizenak jarrita: 3035 000155 0011160166.

### 1949an jaiotakoen kinto ospakizuna, bisita gidatu eta egunerako propio sortutako ereserki eta guzti

Urriaren 17an, 1949an jaiotakoek txango interesgarria egin zuten Añana-Gesaltzara, eta Gasteizko Santa Maria katedrala ere bisitatu zuten. Gero, Portalon jatetxean bapo bazkaldu eta dantzaldia egin zuten jatetxean bertan. Kantuan ere egin zuten, eta abestietako bat izan zen egunerako propio sortutako ereserkia; Jesus Markaidek egin zuen, Adrian *El Guate*-ren konponketekin.



Gasteizko Portalon jatetxean bapo bazkaldu zuten 1949koek. | XABIER USOBIAGA

### 1964an jaiotakoen argazki "ofiziala" Arbolapetan, urtez urte zuhaitzari jarraipena egiteko asmoz

Urriaren 31n, 65 lagun elkartu ziren kinto ospakizunerako. Arteaga jatetxean bapo bazkaldu ostean, magia eta bakarrizketa saioak izan zituzten eta dantzaldia izan zuten DJ baten eskutik: "Handik aurrera, batzuk gauean galdu ginen", adierazi dute umoretsu. Argazki "ofiziala" Arbolapetan atera dute aurten, urtez urte bertan elkartu eta arbolari jarraipena egiteko asmoz.



Arbolapetan atera dute talde argazki "ofiziala" aurten. | IZASKUN BALANTZATEGI

### 1969an jaiotakoen kinto ospakizuna, errotu eta datozen urteetan jende gehiago erakartzeko egina

Urriaren 31n elkartu ziren 1969an jaiotako arrasatearrak kinto ospakizuna egiteko. Arrasaten bertan ospatu zuten egun berezia; Herriko Plazan batu eta poteoa egin ostean, Garaia Berrikuntza Guneko jatetxean bazkaldu zuten. 35 bat lagun elkartu dira aurtengo ospakizunean, eta espero dute ekimena errotu eta hurrengo urteetan jende gehiago elkartzea.



1969an jaiotakoen talde argazkia Garaia jatetxearen atarian. | GOIENA



# Herensugeak beterano elkartea, errugbiarekiko pasioaren erakusle

## Arrasate Rugby Taldeko beteranoak Bordelen izan dira pasa den aste bukaeran, hango Archiball taldearen aurka partidua jokatzen

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Herensugeak, hau da, Arrasate Rugby Taldeko beteranoak, Bordelen izan dira asteburu-pasa joan den egubakoitzetik domekara bitartean. Guztira, 25 joan ziren, eta giro bikainean eman zituzten hiru egun, Bordeleko bertako eta Eskoziako lagunekin elkartuta.

Egubakoitzean Arrasatetik Bordelerako bidaia egin, eta zapatu eguerdian lagunarteko partidua izan zuten bertako Archiball taldearen aurka. Arkitektoz eta eraikuntzan lan egiten duten jokalariz osatutako taldea da hura, bidaian izan zen Herensugeetako kide David Jauregik azaldu duenez.

Bisitariek galdu egin zuten, 6-1 amaitu zen partidua. "Gu baino gazteagoak eta hobeto prestatutakoak ziren haiek", esan du Jauregik. Hala ere, oso ondo pasatu zutela azpimarratu du: "Partiduaren ostean elkarrekin bazkaldu genuen, eta ondoren afaldu ere bai". Bordeleko lagunez gain, baina, bazkarirako Edinburgoko beste lagun batzuk ere iritsi ziren, hegazkinez. Hala, guztiek elkarrekin munduko errugbi txapelketako finala ikusi zuten aratsaldean: Zeelanda Berria Australiaren aurka –lehenengoek irabazi zuten–.


Arrasateko Gorosabel, Bordeleko Vannier eta Burke eskoziarra | DAVID JUARISTI

**Taldearen jarduna**

Gaur egun, 37 bazkidek osatzen dute Herensugeak taldea. "Arrasate Rugby Taldean aritu izan den edo errugbian jokatu eta Arrasaten bizi den edonor izan daiteke bazkide". Hala ere, urtean zehar antolatzen dituzten lagunarteko partiduetan bazkide ez diren hainbat jokalarik ere hartzen dute parte.

Urtero sei edo zortzi partidu inguru jokatzen dituztela azaldu du Jauregik: "Aurten, Iruñean, Logroñon, Hernanin, Donostiako Beteranoen Munduko Txapelketan eta Donostiako taldeen aurka jokatzen izan gara". Aurreko urteetan ere asko bidaiatu dute Herensugeek; Portugalen, Alemanian eta Italian izan dira, besteak beste.

Pasa den asteburuan Bordelen jokatutakoa aurtengo azken lagunartekoa izan da taldearentzat, baina, oraindik datarik zehaztu ez duten arren, Juaristik aurreratu du datorren urtean Alemaniara irteera bat egin nahiko luketela, edo, bestela, Eskozia aldera.

Hala ere, beteranoen elkartearen jarduna ez da soilik partiduetara mugatzen. Urtean zehar kideak elkarrekin bazkariak edo egun-pasak egiteko ere batzen dira, esaterako.

Gainera, urtean behin batzarra egin dute. Abenduaren 12an elkartuko dira aurten, eta, aitzakia horrekin, jokoak ere egin nahi dituzte kalean, herritarrekin batera. Hala, haien asmoa da Herriko Plazan errugbiko ate bat inprobisatu eta baloi obalatua bertan sartzeko jokoa antolatzea, beste urte batzuetan egin izan duten moduan.

**Errugbia, bizitza osorako**

Senior taldea utzi ostean errugbiarekiko loturak ez duela zertan eten erakusten du Herensugeak taldeak. Hala, talde konpetitiboan ez jarraitu arren, kirol horretaz modu ludikoagoaz gozatzen dute beteranoek.

David Juaristik azaldu duenez, Arrasateko senior taldetik erretiroa hartu eta berehala apunta daiteke beteranoenean. Hark dioenez, badute jendea taldean, baina orain, "jende gazte gehiago" komeni zaie. Hala ere, esan du "poliki-poliki" badoazela jokalari eta bazkideak batzen.


Edurne Elkoro. | ARTXIBOA

**Edurne Elkoro**

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldea

# "Espainiako Kopan jende asko eta nahiko maila handikoa bildu zen"

IDOIA DAVILA | ARRASATE

Urriaren 17an Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldekoak Espainiako Gimnasia Aerobikoko Kopan egon ziren. Bertan, kategoria askotariko gimnastek hartu zuten parte eta 5. eta 7. postuak lortu zituzten hainbat modalitatetan.

**Pozik zaudete Espainiako Kopan lortutako emaitzekin?**

Bai, pozik gaude. Espainiako Gimnasia Aerobikoko Kopa denboraldiko lehena izan zen eta emaitza onak izan genituen. Denboraldiari neurria hartzeko balio izan digu.

**Lehia handia egoten da txapelketa horietan?**

Aerobikoan hainbat modalitate daude: banakakoa, taldekakoa, *aerodance*-a... eta jende asko bildu zen. Gainera, asteburu honetan Europako txapelketa izango denez, jende askok hori prestatzeko hartu zuen parte Espainiakoan. Jende asko egon zen, eta nahiko maila handikoa, gainera.

**Mutilek ere parte hartzen dute txapelketa horietan?**

Hemen, Euskal Herrian, ez da oso kirol ezaguna, baina, adibidez, Levante aldean mutil gehiago ikusten dira. Arrasate Dragoi Gimnasia Taldean ez dago mutilik, baina norbait animatzen bada... guregatik, primeran!

**Zein da hurrengo proba?**

Orain, bi hilabeteko etenaldia egingo dute neskek, koreografiak prestatzeko eta zailtasunei aurre egiteko Elena Lanuzarekin, euren entrenatzailearekin. Urtarril bukaeran hasiko gara berriro txapelketekin.

**Hasi da prestatzen taldea horretarako?**

Bai; Espainiako Koparekin hasi zen prestaketa. Ekainean eta uztailean entrenatzen ibili ziren eta irailaren 1ean berriro hasi ziren, astean zehar eta asteburuetan. Hurrengo txapelketei begira entrenatu ziren neskak.


Bigarren zelaia egiteko lanak, Atxabalpen. | XABIER ZUBILLAGA

# Atxabalpeko bigarren zelaiari buruzko akordioa

## Eibar futbol taldeak zelai nagusiaren albokoan belarra jartzeko akordioa sinatu du Udalarekin

M.T. | ARRASATE

Eibar futbol taldeak eta Arrasateko Udalak Atxabalpeko futbol zelaiari buruzko akordioa sinatu zuten pasa den egubakoitzean. Armaginek entrenatzeko erabiltzen dituzte instalazio horiek, eta orain, hartxintxarrezko gunean belarra jarriko du; prest dagoenean, hura ere erabili ahal izango dute entrenatzeko, hitzarmen berriari esker.

Lanak martxan daude, eta abendurako zelai berria bukatuta egotea aurreikusten du Eibarrek. Klubak 80.000 euroko inbertsioa egingo du bertan, drainatze lanetan eta belarra jartzen, nagusiki. Horretaz gain, zelai nagusiko erreka ondoko harmailak bota egingo dituzte, eta inguru hori egokitu. Horren arrazoia da gaur egun dauden egoeran harmaila horiek ez dutela legea betetzen segurtasunari dagokionez.

**Lagunartekoa Arrasaten**

Akordio horren baitan, 2016-2017ko denboraldiaurreko partidu bat Arrasaten jokatuko dute eibartarrek. Ahal izanez gero, lehen mailako talde baten aurkako norgehiagoka izatea nahiko lukete.

Hilero 600 euro ordainduko dizkio talde armaginak Arrasateko Udalari Atxabalpeko zelaian entrenatu ahal izatearen truke. Bergararekin ere badute hitzarmena Agorrosin zelaia erabiltzeko, eta bertan ere egin izan dituzte entrenamenduak. Hala ere, herriko taldeak ere erabiltzen du zelai hori, eta Atxabalpekoa, berriz, ez du beste inork erabiltzen. Hala, azken horren aldeko hautua egin du Eibarrek.

### Besaide mendizale taldearen irteera azaroaren 15ean

Besaide mendizale elkarteak irteera antolatu du hilaren 15erako, domeka. Arabako lautada integralaren 12. etapa izango da, Sarriatik hasi eta Monteviteraino, hain zuzen. Joan nahi duenak astelehenean, martitzenean eta eguaztenean izango du izena emateko aukera –azaroak 9, 10 eta 11–, 19:30etik 20:30era, Besaideren bulegoan.

### Hilaren 10a da Zaldibarko txapelketan izena emateko eguna

Datorren martitzena izango da Zaldibarko areto futbol txapelketan izena emateko eguna. Kulturaten egin beharko da, 17:30etik 20:00etara, eta talde bakoitzak 300 euro jarri beharko ditu –horietatik 175 fidantza modura–; izan ere, hurrengo asteburuan, azaroaren 14an eta 15ean, jokatuko da 54. edizioaren lehen jardunaldia.

# 'Txanogorritxo', haurrendako antzerki ikuskizun berritzailea

## Ipuin klasikoaren antzezpen moldatua izango da, musika eta dantzarekin

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

*Txanogorritxo* –Charles Perraultek idatzitako istorioko neskatila famatua– Amaia antzokiko taula gainean izango da bihar, zapatua, arratsaldeko bostetan hasiko den antzezlanean. Glu Glu konpainiak urrian estreinatu zuen ikuskizuna, eta geroztik arrakasta handia izan du, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat herritan antzokiak bete baitituzte.

3 eta 9 urte bitarteko umeei zuzendutako ikuskizuna da. Sarrerak 5 euroren truke eskuratu ahal izango dira, leihatilan edota Amaia Antzokiaren webgunearen bitartez.



Glu Glu konpainiak urrian estreinatu zuen *Txanogorritxo*. | GLU GLU

**"Oso ikusgarria"**

Glu Glu taldeko Mari Cruz Melgosa produktore eragileak hauxe azaldu du: "Oso ikusgarria da, dekorazioarekin eta argiekin jolasten dugu eta".

Melgosak azaldu duenez, protagonista nagusiak ipuin klasikoko berak dira; hau da, Txanogorritxo, amona eta otsoa, eta Txanogorritxok egiten duen ibilbidea ere bera da, baina istorioari moldaketaren bat edo beste egin dizkiote, "kutsu pedagogikoagoa" emateko asmoarekin. "Umeen parte hartzea da antzezlanaren esentzia", dio Melgosak. Azaldu duenez, abesti ezagunak tartekatu dituzte istorioan zehar, ikusleek abes dezaten.

# Anttonen eta Morgansen kontzertuak Jai Zalen

## Domeka arratsalderako irakurraldi kolektibo musikatua antolatu du AED elkarteak

M.T. | ARRASATE

Gaur, azaroak 6, Antton Uriarte –Antton izenez ezaguna– elorriar bakarlariaren kontzertua izango da ikusgai, gauean, Jai Zale tabernan.

Bihar arratsaldean, berriz, Morgans talde madrildarrak joko du. Funk eta jazz arteko fusioa lantzen dute azken horiek. Zazpi kidez osatutako taldea da, eta, Jai Zale tabernatik azaldu dutenez, Euskal Herrian hainbat kontzertu eskainiko dituztela aprobetxatuz ekarri dute Arrasatera.

Emanaldi bietarako sarrera doan izango da.

Horiekin ez dira, baina, azaroko kontzertuak bukatuko Jai Zalen. Hilaren 20an, egubakoitza, Izaki Gardenak taldeko Jon Basagurenen musika zuzenean entzuteko aukera izango da. Asteburu bereko domekan, berriz, hilaren 22an, Kasernarat taldearen txanda izango da. Irungo eta Oreretako musikariz osatutako hirukote akustikoa da azken hori.

**'Literatura jauziak'**

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak bultzatutako *Literatur jauziak* egitasmoaren baitan, domeka honetan, hilak 8, irakurraldi kolektibo musikatua izango da Jai Zale tabernan, herriko hainbat irakurle eta musikarirekin batera. 19:00etan izango da.

Azaroaren 15ean, berriz, ekimen beraren baitan, Mikel Antzaren *Ametsak ere zain* liburuko poemen errezitaldia izango da Josu Landaren, Gotzon Barandiaranen eta Itziar Castrilloren eskutik.



Izaskun Orbegozo eta Julia Monge. | J. MONGE

# Emakume euskaldunei buruzko idatziak, liburuan

## 'Educación, memoria e historia de las mujeres vascas' lana aurkeztu du Intxorta 1937 elkarteak

M.T. | ARRASATE

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak kaleratu duen *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas* liburuaren aurkezpena egin zuten eguaztenean Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Hogeita hamar pertsonatik gora bildu zen bertan.

Izenak dioen moduan, euskal emakumeen hezkuntzaren, memoriaren eta historiaren hainbat irakurketa uztartzen ditu lan horrek, betiere, ikuspuntu feministatik abiatuta. Hala, arbasoekin lotura bilatzea du helburu, eta euren historia, urteetan ukatua izan dena, balioan jartzea.

11 idazlek idatzitako zortzi testu biltzen ditu liburuak. Atzo, Kulturaten, Julia Monge arrasatearra eta Izaskun Orbegozo kriminologoa aritu ziren hizlari. Mongek azaldu zuenez, aurkezpen horretan "espetxeen gaia Arrasatera" ekarri nahi izan zuten. Hala, hainbat garaitan emakumeek euskal espetxeetan izandako bizipenak eta bertan jasotako hezkuntza aztertu zituzten, Saturrarango kartzelari arreta berezia eskainita. Hain zuzen ere, espetxe horretan izandako emakume baten testigantzaren bideo bat jarri zuten ikusgai.

Mongek berak aipatu zuen "oso ondo" atera zela aurkezpena.

**Liburua eskuratzeko tokiak**

Aurkezpenera bertaratutakoek liburuaren ale bat erosteko aukera izan zuten. Txukunen eta Eroskiko kioskoan eskuragarri dago liburua, 15 euroren truke.

### The Longboards surf-rock taldea izango da hurrengo Kooltur ostegunean

M.T. | ARRASATE

Barakaldoko The Longboards surf-rock hirukoteak joko du azaroaren 12ko Kooltur ekimenaren baitan. Beti bezala, gaueko hamarretan hasiko da emanaldia. Atzo, Berako Borrokan boskotearen musika esperimentalak ireki zuen azaroko kontzertuen zikloa, giro bikainean.

2004. urtean sortu zen The Longboards taldea. Musika instrumentala egiten dute, 60ko hamarkadako surf doinu originalekin eta erritmo biziekin. Dantzan jarriko dituzte Arrasateko gaztetxean bildutako guztiak.

Hasiera batean, azaroaren 12ko Kooltur saioan Mike Noga australiar bakarlariak jo behar zuen gaztetxean; azkenean, baina, Europan zehar egin behar zuen bira bertan behera utzi du, eta haren ordez bizkaitarrak arituko dira taula gainean.

### Ines Bengoa ipuin kontalaria izango da datorren eguenean Santa Marinako auzo bibliotekan

5 urtetik gorako haurrentzako ipuinak kontatuko ditu Ines Bengoak azaroaren 12an, eguena, Santa Marinako auzo bibliotekan. *Kamishibai* izena dauka saioak; *paperezko antzerkia* esan nahi du, hain zuzen. Bengoak kutxatxo batetik aterako dituen irudien laguntzarekin kontatuko ditu istorioak, haurren arreta erakartzeko asmoz. Japoniako eta munduko beste txoko batzuetako ipuinak izango dira. Saioak 50 minutu inguruko iraupena izango du. Arrasateko Udal Bibliotekak antolatu du.

### Fly Shit taldearen hardcorea entzungai gaur Iluntz tabernan

Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita, Fly Shit talde beteranoak kontzertua eskainiko du Iluntz tabernan. Bergarako laukoteak hardcore musika egiten du eta 19 urteko ibilbidea daukate. *Barneko ahotsaren bila* izena du haien azken diskoak, orain dela urtebete kaleratu zutenak. Gaur eskainiko dutena doako emanaldia izango da.






# Alderdiak ez datoz bat Agorrosingo eta Kirol Zerbitzuko defizitak murrizteko moduan

- Aurrekontuen arabera 526.000 euro izango da aurten Agorrosinen defizita
- Kirol Zerbitzuarena %17 jaitsi nahi du Gobernuak, Agorrosingo prezioak %20 igota

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

EH Bilduren ustez, ez dauka inongo justifikaziorik 2016rako Agorrosingo prezioak %20 igotzeak, aurreko asteko osoko bilkuran EAJren eta PSE-EEren botoekin onartu bezala. EH Bilduk dio "okerra" dela igoera arrazoitzeko erabili zen datua: "Osoko bilkuran esan ziguten Agorrosinek daukan defizita onartezina dela. Milioi bat euro aipatu zituzten. Datu hori okerra da", zioen Leire Iruinek astean egindako prentsa agerraldian.

Aurtengo ekainera arte udal kudeaketaren ardura izan dutenek diote Agorrosinen defizita aipatutako kopuruaren erdia dela. Are gehiago, EH Bilduk dio orain arteko datu erreal berrienak 2014ko ekitaldi bukaerakoak direla, eta datu horiek aztertuta defizita, ustiapenarena –hau da, inbertsioak-eta alde batera utzita–, ez dela 400.000 eurora iristen. Horrek esan nahi du, EH Bilduk dioenez, Agorrosinen autofinantzaketa %75etik gorakoa dela, eta hori kopuru "bikaina" dela diote, aintzat hartuta administrazioaren zerbitzu bati dagokiola; Iruinek zioen zerbitzu publiko parametroetan baloratu behar dela autofinantzaketa maila.

EH Bilduk dio 2014ko ekitaldian Kirol Zerbitzu osoaren defizita 800.000 eurokoa izan zela. Koalizioaren ustez, Kirol Zerbitzu osoaren defizita konpontzeko modua ez da hori Agorrosingo erabiltzaileen kontura egitea.

Bestetik, %20ko igoera Bergaran erroldatutakoei bakarrik ezartzea onartu zen Gobernuko alderdien botoekin. Antzuolako eta Elgetako udalekin defizitaren zati bat euren gain har dezaten hartu-emanetan ari direla adierazi zuen alkateak osoko bilkuran. Dena dela, Bergaran erroldatuta ez dauden herritarrei eurei –herrian bizi arren, batzuen kasuan– ez diete prezioa igoko –lehendik badute errekargu bat, %50ekoa; orain murriztu egingo litzateke erroldatuek eta ez erroldatuek ordaintzen dutenaren arteko aldea, eta errekargua %25ekoa bihurtu–; igoera erroldatuei bakarrik aplikatzearekin ere ez dator bat EH Bildu. Koalizioak dio Udalak erroldatu bakoitzeko dirua jasotzen duela beste erakunde batzuetatik, eta, hain justu, zentzu horretan dirurik ematen ez dutenak izango direla oraingo erabakiaren onuradun.

EH Bilduk Udal Gobernuari eskatu dio hurrengo ohiko osoko bilkurarako Agorrosingo finantzen azterketa sakon bat aurkez dezala, eta iragarri du helegitea jarriko diotela %20ko igoerari.

Oro har, 2016rako ordenantza fiskalak "inprobisazioaren ondorio larria" direla uste du koalizioak.



Hainbat lagun Agorrosinera iristen. | JULEN IRIONDO

**Gobernuaren azalpenak**

Udal Gobernuak ere eman ditu gaiaren gaineko azalpenak. Diote eurek Agorrosingo prezioetan onartutako %20ko igoerarekin Bergarako Kirol Zerbitzuaren defizitak –aurtengoak– %17 egingo lukeela behera, 1.013.000 eurotik 839.000 eurora. Gaineratu dute %20ko igoera defizitaren arazoa bideratzeko hartu beharreko neurrietako bat dela, beste batzuen artean: "Igoera honekin ez da konponduko ez defizita eta ez kirolgune guztian urtero sortzen den zuloa. Hau osatu behar da gastua zaintzeko beste neurri batzuekin-eta", dio Ogasun batzordeko buru Ander Alberdik.

Urriaren 26ko osoko bilkuran Agorrosingo prezioen %20ko igoerak eztabaida eragin zuen. Udal Gobernuko alderdi nagusi den EAJk milioi bat euroko defizitari aurre egin beharra aldarrikatu zuen.

Kirol batzordeko buru Sabino Azkaratek dio Kirol Zerbitzu osoaren defizita dela milioi bat eurokoa, eta Agorrosinen defizita 526.000 eurokoa izatea aurreikusten dela Bildu eta Aralarren aurreko Gobernuak egindako aurtengo aurrekontuetan. Azkaratek gehitu du defizitaren gainerako zatiak Kirol Zerbitzuko beste atalei dagokiela. Baina Agorrosingoa da konpondu beharreko arazoa, Gobernuaren ustez: "Gu Udalen jakitun gara kirol arloko gainerako zerbitzuek badutela beste milioi erdiko kostua, eta badakigu hori zentzuzkoa dela; ze hor daude diru-laguntzak, beste ikastaro batzuk, klubei ematen zaizkien laguntzak, eta pentsatzen dugu defizit hori mantendu egin behar dela, ze hori da herriko kirola indartzea, eta hori logikoa da mantentzea. Baina beste milioi erdia, Agorrosingoa, pentsatzen dugu erabiltzaileek ordaindu beharko dutela gero eta gehiago", zioen Kirol batzordeko buru Sabino Azkaratek.

Azkaratek azaldu du prezioen %20ko igoerarekin Agorrosinen autofinantzaketa maila %76koa izango dela, eta defizita %24. Oraindik, beraz, Agorrosingo defizita herritar denen artean ordaintzen jarraitu beharko dela dio Gobernuak, eta horrek ez lukeela horrela izan behar. Jeltzaleen esanetan Agorrosinen defizita "kontrolik gabe" dago: adibidez, azken urtean %31 hazi dela diote, eta joera hori eten beharra zegoela.

%20ko igoera Bergaran erroldatutakoei bakarrik ezartzearen gainean, Ogasun batzordeko buru Ander Alberdik gogora ekarri du, lehen esan bezala, erroldatu gabekoek aurretik bazutela %50eko errekargua, eta erroldatuentzako prezioen %20ko igoerarekin, oraindik, errekargu hori %25ekoa izango dela. Eta gogorarazi du, baita ere, alkateak osoko bilkuran iragarritakoa, hartu-emanetan ari direla Antzuolako eta Elgetako udalekin, Agorrosinen defizitaren zati bat euren gain har dezaten udalok.

Azkenik, Udal Gobernuak adierazi du Agorrosingo prezioak %20 igota ere, ematen den zerbitzua kontuan izanda "nahikoa merke" izaten jarraitzen duela. Adibidez, abonua eta ikastaroa 43,83 euro kostako da hilean prezio berriekin.

Gaiaren gaineko edozein kezka edo ekarpenetarako *agorrosin@bergara.eus* helbidea jarri dute herritarren eskura.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

# 'Geocaching' ikastaroa egingo dute bihar, zapatua, eta izena eman daiteke gaur eguerdira arte

JULEN IRIONDO | BERGARA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien barruan, *geocaching* ikastaroa egingo dute bihar, zapatua, Laboratorium museoan –gaur, 12:00ak arte eman daiteke izena 943-76 90 03 telefono zenbakian–.

Naturan aritzeko aisialdi jarduera da *geocaching*-a. Internet bidez eskuratutako koordenadekin, ezkutuan dauden *cache* edo altxorrak aurkitzea da kontua. GPS gailu bat edo funtzio hori ere baduen tresna –smartphonea...– behar da jarduera horretarako. Eta hazten ari da *geocaching*-a: 2.700.000 altxor baino gehiago daude munduan ezkutatuta, horietako batzuk Euskal Herrian, eta sei milioi zaletik gora daude erregistratuta.

Ikastaroaren ostean, ikasitakoak praktikan jartzeko aukera egongo da. Izan ere, Bergara inguruko *gerriko berdean* sei bat *cache* ezkutatu dituzte urrian, eta *www.geocaching.com* helbidean igarriko dituzte horiek. Parte-hartzaileek abenduaren 6ra arte izango dute *cache*-etan aurkitutako txartelak Laboratoriumeko harrerara eramateko, eta hori egiten dutenak opari baten zozketan sartuko dira. Edonork parte har dezake jardueran.

### BIHARKO EGITARAUA

**10:00-14:00** Robotika azoka eta drone modeloen erakusketa, frontoian.

**11:00-12:30** '*Geocaching*' ikastaroa, Laboratoriumen.

**12:00-13:30** *Practice your music,* Aroztegin.

**Astean ere ekintza ugari**

Prozesu industrialen monitorizazioari buruzko saioa egingo dute martitzenean Miguel Altunan; barnetegi teknologikoa, eguaztenean, Lasan; *pintxo-wifi*-a eguenean; eta merkatarientzako eta herritarrentzako prestakuntza saioak egingo dituzte aste osoan.

## OHARRAK

**PSE-EE: BOTOA POSTAZ**

Espainiako hauteskundeetarako, tramitaziorako laguntza emango dute euren egoitzan, abenduaren 10era arte.

**POL-POLEN IRTEERA**

El Regatora, hilaren 15ean. Izena, ohiko egunetan.

**1933AN JAIOTAKOAK**

Bazkaria (14:00) egingo dute hilaren 15ean Azpeitxin. Izena, Intxortan, 6 euro ordainduta. 12:00etan meza egingo dute Santa Marinan.

**1966AN JAIOTAKOAK**

Afaria, hilaren 21ean, batzokian (22:00; 19:30 Ariznoan). Izena, Ariznoan, hilaren 13ra arte (10 euro).

# Galdeketarako zentsua erakusgai, hilaren 9ra arte

J.I. | BERGARA

Azaroaren 29ko hondakinen gaineko galdeketarako zentsua Udaleko idazkaritzan dago ikusgai hilaren 9ra arte. Ordura arte dute aukera herritarrek euren errolda datuak zuzenak diren egiaztatzeko. Herri kontsultan botoa emateko hauteslekuak ere ohikoak izango dira, eta kale edo auzo bakoitzari ze hautesleku eta mahai dagozkion ere ikusgai dago udaletxeko iragarki oholean eta Udalaren webgunean.

# Alex Narvaezi saria argazki lehiaketan

Urriaren 17ko desfilean ateratako argazkiekin lehiaketa ere egin zen, eta Alex Narvaezen bat aukeratu dute irabazle. Narvaezek 50 euro jaso ditu Bedelkarko dendetan gastatzeko. Merkatari elkartekoen eskutik jaso zuen saria.



BEDELKAR

## Eguenera arte eman daiteke izena haur masaje ikastaroan

Hilaren 17an eta 24an izango da, eta bi talde egongo dira: 9 hilabete arteko haurrena –goizez– eta 9 eta 18 hilabete artekoena –arratsaldez–. Oxirondon izango da ikastaroa; izena emateko: *gazteria@bergara.eus* edo 943-77 91 59. Umerik izan ezean, panpinarekin egin daiteke ikastaroa.

# Domeka Azokarako izena, hilaren 9ra arte

J.I. | BERGARA

Hilaren 15ean izango da elkartrukea, berrerabilpena eta artisautza sustatzeko azokaren hurrengo edizioa. Postua jartzeko –*www.bergara.eus*-en eman behar da izena– bigarren eskuko materiala saltzen dutenek eta trukea bultzatzen dutenek izango dute lehentasuna; artisauetan, aurrena bergararrek eta gero bailarakoek. Produktuen aniztasuna ere zainduko du Udalak.



# Gaur eta bihar emango dute Zabalotegin Asier Altunaren 'Amama' pelikula

## Oxirondoko aisialdi-gunean solasaldia egin dute zuzendariarekin asteon

TXOMIN MADINA | BERGARA

Oxirondoko aisialdi-gunean jarritako aulki guztiak bete ziren, eguaztenean, Asier Altuna zinema zuzendariarekin, Rosario Belastegi baserritarrekin eta nekazaritzatik bizi den Nere Aspiazurekin egin zuten solasaldirako. Hasteko, Altunaren *Amama* filmaren *making-off*-a eskaini zuten; gero, pelikulan landutako gaiak abiapuntu hartuta eta Maite Aristegik gidatuta, gaur egun baserri munduak bizi duen egoeraz egin zuten berba.



Eguaztenean Oxirondon egin zuten solasaldiaren une bat. | T.M.

**Sariak 'Amama'-rentzat**

Nazioarteko hainbat jaialditan eman dute *Amama* asteotan, eta sariak ere lortu ditu. Hala, Montpellierko Cinemed jaialdian musika onenaren saria eman diote. Tuterako Opera Prima jaialdian, bestalde, publikoak erabakitzen duen pelikula onenaren saria eta epaimahaiak ematen duen zuzendari onenarena lortu ditu. Estreinatu zenetik, gainera, 40.000 ikusle inguru izan ditu aretoetan.

**Zabalotegin hiru emanaldi**

Gaur eta bihar emango dute *Amama* Zabalotegin: gaur, 22:00etan, gaztelerazko azpitituluekin; eta bihar, 19:30ean eta 22:00etan, azken horretan ere azpitituluekin. Hiru emanaldietarako, gaur 21:00etan zabalduko dute Zabalotegiko leihatila, eta, sarrerarik geratuz gero, bihar emanaldiak baino ordubete lehenago zabalduko dute. Pertsona bakoitzak, gehienez, lau sarrera hartu ahal izango ditu.

# Gorde agendan azaroaren 21a Jardunen 25. urteurren jairako

KOMUNITATEA GOIENA
JARDUN EUSKARA ELKARTEA | BERGARA

Dagoeneko badugu hilaren 21ean Jardunen mende laurdena ospatzeko egingo dugun festako egitaraua. 12:00etan hasiko da, frontoian, paella lehiaketarekin –oinarriak: *www.jardun.eus*–. Lehiaketan prestatutakoekin bazkaria egingo dugu, 14:30ean; bazkalostean, Kopla Barik bertso eskolaren umorezko saioa egongo da –15:30etik 17:30era ludoteka zerbitzua eskainiko da–. Bai lehiaketarako eta bai bazkarirako izena emateko azken eguna hilaren 13a da: frontoiko tabernan, Pol-Polen, Kortazarren, Arranon, Hamaikan eta Jardunen egin daiteke –haurrek 5 euro, ikasle eta langabeek 10, eta 12 gainerakoek–. Bazkari aurretik, 13:00etan, triki-kantu-jira abiatuko da frontoitik bertatik.
Festarekin jarraitzeko, 17:30ean mosaikoa egingo dugu pilotaleku kanpoaldean, eta Zesuma taldearen erromeria egongo da 18:00etan hasita. Bestalde, urteurrena aprobetxatuz, *Larre zaharretan* izeneko Jardunen abestia sortu du Aritz Alustizak, herriko musikari eta kantarien laguntzarekin. Jardunetik, herritar guztiak animatzen ditugu hilaren 21eko ospakizunean parte hartzera.



Abestia grabatzen. | JARDUN

## Beti Busti taldeka hirugarren Euskadiko Txapelketan, Irunen

Irunen jokatu zen slalom txapelketa aurreko asteburuan. Posturik onenak izan ziren: Iker Manso eta Unai Otadui (C2 kadete), lehenengo; Iker Manso eta Miren Murgizu (K1 kadete) eta Julio Narbaiza, Mikel Zubizarreta eta Unai Otadui (patruilak), bigarren; eta Julio Narbaiza (K1 kadete), hirugarren.

## Pilota partidu ugari asteburuan Udal pilotalekuan

Eguenean Gabon Saria txapelketari ekin eta gero, zapatuan, 17:00etan hasita, Gipuzkoako Txapelketako zazpi partidu jokatuko dira Udal Pilotalekuan. Domekan, berriz, 11:30ean hasiko da jaialdia: Bakaikoa-Aizpuru eta Iribarren-Eskiroz ariko dira promesetan eta Santxo-Azpitarte eta Arrieta-Bolinaga nagusietan. Sarrera, ohi bezala, doan.



IBON MORENO

## Danel Moreno, Euskadiko txapeldun

**Trialsinean irabazi du bergararrak, benjamin mailan. Euskadiko Txapelketarako lehian ari zirenen artean onena izan da Moreno hiru probetan. Aurreko asteburuan Irunen jokatu zen azkena; bergararra nagusitu zen han ere.**

## Hiru ipuin kontaketa saio izango dira gaur Angiozarko Arbiaskan

17:00etan hasiko da txikientzako saioa –ordu erdikoa izango da–: *Beldurrari beldurrik ez* (beldurrak gainditzen laguntzeko). 18:00etan hasita, 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoentzako, *Beldurrezko ipuinak* –ordubete– izango dira. Eta azken saioa 20:00etan, nagusientzako: *Ipuin ilunak* –beste ordubete–.

## Festa brasildarra, bihar, kartzela zaharrean, arratsaldean hasita

Emakumeen Mundu Martxako herriko taldeak antolatu du: 17:00etan sanba tailerra egingo dute, martxakide brasildar-bergararren eskutik; 18:00etan hitzaldia egongo da, *MST, una cuestión de justicia social*, Amanda Merrone aktibista brasildarraren eskutik; 19:30ean, poteo *sanberoa;* 21:00etan, zizka-mizkak; eta gauean, festa *brasileira*.

NIRE USTEZ

IGOR OIARBIDE



## Seme bakarreko politikaren amaiera Txinan

Txinak amaiera jarri berri dio azken hiru hamarkadetan bere piramide demografikoa definitu duen neurriari –nahiz eta azken urteetan, extraofizialki, lasaitasuna zegoen politika honen inguruan–.

70eko hamarkadaren amaieran, zehazki 1979an, biztanleriaren hazkundea bat ez zetorrenez hazkunde ekonomikoarekin, Gobernuak seme bakarraren politika indarrean jartzea erabaki zuen. Neurri honek ez zion biztanleriaren %100ari eragin, baizik eta gehiengoa zen Han etniari. Lehenengo ondorengoa mutila ez bazen, gutxiengo batzuk bigarren seme-alaba bat izan zezaketen.

Politika honen ondorioz, jaiotze tasaren txikitze iraunkorra gertatu da, eta populazioaren batez besteko zahartzea. Aldiz, bere populazio osoa ez da gutxitu, jaiotza eta heriotza kurbak parekatu direlako. Nazio Batuen arabera, 2030ean bere populazio tasa altuena 1.415 milioi biztanlera iritsiko da, ezinbesteko beherakada hasiz eta 1.000 milioi biztanleko aurreikuspenarekin 2100 urterako.

Politika honen ondorioek, besteak beste, eragin zuzena dute geldotze ekonomiko handiago batean, baita inflexio puntu batera iristean biztanleriaren gehiengo okupatuari dagokionez. Seme bakarraren politikaren amaiera, hurrengo bosturtekoan, hiriak aurre egin beharko dion zenbaki eta erronka konplexuen artean kokatzen da.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93


Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

# %60 jaitsiko da kiroldegiko lur azpiko aparkalekuaren prezioa

## Kalegoienekoan, doan izango dira lehenengo bi orduak; parking bietan baldintza berberak egongo dira datorren urtarriletik aurrera

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Lur azpiko bi aparkaleku daude Oñatin, eta datorren urtetik aurrera prezio bera izango dute biek. Baita doako ordu iraupen bera ere. Horretarako, kiroldegiko aparkalekuaren prezioa %60 jaitsiko da eta Kalegoienekoan bi ordura luzatuko da doako zerbitzua. Joan den astean onartu zuen neurri hori udalbatzak, eta, udal zerga ordenantzen barruan sartzen den gaia izanik, urtarriletik aurrera jarriko dute indarrean erabakia, gainerako ordenantzekin batera.

### 0,02 euro minutua

Datorren urtetik aurrera, beraz, herriko lur azpiko aparkaleku bietako baldintzak berberak izango dira. Lehen bi orduak doan izango dira kiroldegikoan zein Kalegoienekoan, eta hortik aurrerako minutu bakoitzaren prezioa ere bera izango da bietan. Horretarako, kiroldegikoaren prezioak %60ko jaitsiera izango du. Gaur egun 0,05 euro da minutua –hiru euro ordua– eta 2016tik aurrera 0,02 –1,20 euro ordua– izango da ordaindu beharrekoa.

Alderdi jeltzaleak egin zuen aparkalekuen gaineko proposamena, eta bat egin zuen EH Bilduk. "Azken urteetan eskatu dugu lur azpiko aparkalekuen erabilera ahalik eta gehien erraztea herritarrei. Udal Gobernuak onartu egin du aurten proposamen hori, eta oso pozik gaude. Horri esker, oñatiarrek Kalegoieneko aparkalekuan denbora luzeagoz aparkatu ahal izango dute doan eta kiroldegiko aparkalekuan aparkatzeagatik gutxiago ordainduko dute", adierazi zuen jeltzaleen bozeramaileak, Miren Elgarrestak, urriko osoko bilkuraren bukaeran. Eta gaineratu zuen: "Azken batean, orain arte bakoitzak zuen alde ona bietan aplikatuko da datorren urtetik aurrera". Urtarrilaren 1etik aurrera kiroldegiko aparkalekuak Kalegoienekoaren prezioa izango du, eta Kalegoienekoak Zubikoaren doako iraupen bera.

Udal ordenantzei lotuta, datorren urtean tasek ez dute igoerarik izango.



Zubikoako lur azpiko aparkalekuaren sarrera-irteera. | O.E.

# Siriarako materiala batzen ari da Txantxiki

**O.E.** | OÑATI

Txantxiki Familia Elkartea Siriara giza laguntza bidaltzeko materiala biltzen hasi da. Lagun Lekun, Eltzian, dagoen lokal baten ari dira batutako materiala pilatzen, eta azaroaren 15era bitartean gordeko dute han. Siriara bidaliko dute gero.

Honako produktu hauek batu gura dituzte: umeendako pixoihalak eta zapiak, konpresak, mantak, janaria latetan –txerrikirik ez–, arroza, pasta, umeendako esne-hautsa, gasak, esparatrapua, bendak, iodoa... Batutako guztia Fundacion Seur-en bitartez bidaliko dute Madrilera eta handik, beste herri batzuetan batutako produktuekin batera, Ayuda al Pueblo de Siria izeneko gobernuz kanpoko erakundearen laguntzarekin bidaliko dute Siriara.

Batutako materiala sailkatzeko boluntarioak behar dutela ere adierazi du Txantxiki Familia Elkarteak, eta laguntzeko prest dagoenak helbide honetara idatzita eman dezake izena: *txantxiki@gmail.com*.

# Oñatiko udal zergak ez dira igoko datorren urtean

## Horixe onartu zuen udalbatzak urriko oso bilkuran; alderdi jeltzalea abstenitu egin zen

**O.E.** | OÑATI

Oñatiko udal zergek ez dute igoerarik izango datorren urtean. Udal Gobernuan dagoen EH Bilduren proposamena izan da hori, eta "ondo" hartu du oposizioak, alderdi jeltzaleak. Hala ere, urriko osoko bilkuran egindako bozketan abstenitu egin zen, bi arrazoirengatik: etxebizitza hutsen gaineko errekargua mantentzen delako eta zabor tasa berriz izozteak "zorra handi dezakeela" uste duelako.

Jeltzaleen bozeramaile Miren Elgarrestak azaldu zuenez, etxebizitza hutsen gainean azken bi urteetan aplikatu den errekarguak ez du, euren ustez, "aurreikusitako emaitzarik izan". Alokairua sustatzeko politika aktiboak proposatu zituen horren ordez EAJk. "Hutsik dauden etxebizitzetatik laurdena bakarrik joan da alokairu merkatura, eta inola ere ez da justifikatzen errekargu hori mantentzea. Proposatzen dugu bilatzea beste tresna batzuk alokairua sustatzeko. Baita hutsik dauden etxebizitzak eraberritzeko laguntzak eskaintzea ere", zioen Elgarrestak.

EH Bildurentzat, baina, "ohiko etxebizitza batek eta ezohiko batek edo hutsik dagoen batek ez dute prezio bera izan behar". Mikel Biainek, Udal Gobernuko taldearen bozeramaileak, adierazi zuen EH Bilduk ere politika aktiboak aurrera eramateko asmoa baduela, eta horren adibide bat dela aurten onartu duten emantzipazio programa. "Laguntza horietara bideratuko da, hain zuzen ere, errekargu tasetatik lortutako diru kopuruaren zati bat. Eta beste zati bat Siriatik edo beste lurralde batzuetatik etorritako iheslariei laguntzeko izango da. Hori EAJren proposamena izan zen eta beraz, kontrajarri egiten dira", zioen Mikel Biainek.

Zaborrari dagokionez, Biainek esan zuen %76ko estaldura tasa duela zerbitzu horrek eta "gezurra" dela zorra handitu egingo dela aurten. "Mankomunitateko txostenak dio %7 jaitsiko dela bilketa kostua", gehitu zuen. "Etxe hutsen errekargua bezala, zabor tasa ere politika fiskala" dela gaineratu zuen EH Bilduko udal bozeramaileak.

# Ia 100 autokarabana etorriko dira asteburuan gunearen inauguraziora

## Sorbeltz elkartearekin batera egin du Udalak zabalkundea; Oñati ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte datozenek zapatuan eta domekan

**O.E.** | OÑATI

Uztaila ezkero erabilgarri badago ere, zapatuan inauguratuko dute San Martin auzoan egokitu duten autokarabanendako gunea. Sorbeltz elkartearekin batera eman ditu ezagutzera Udalak gunearen kokapena eta ezaugarriak, eta 100 autokarabana-jabek baino gehiagok esan dute asteburuan Oñatira etorriko direla.




Autokarabana bat, martitzenean, San Martineko gunean. | O.E.

### Taldeka

Gunea hemezortzi autokarabanarendako egokituta dago, eta, horrelako harrera ikusita, bisitariak herriko beste espazio batzuetan kokatu beharko dituztela adierazi du Ikerne Altubek, Turismo eta Garapen Agentziako teknikariak: "San Martinen bertan ere gehiagorendako tokia egokituko dugu. Gehienak, baina, kanposantu azpian dagoen Ulma enpresako aparkalekura bideratuko ditugu. Askorendako tokia dago han, eta, azken orduan norbait animatzen bada ere, hara bideratuko dugu".

Gunea zapatuan, 11:00etan, inauguratuko dute, udal ordezkariak bertan direla. Ondoren, herria ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte. "Oinatur-eko gidariekin egingo ditugu bisitak horiek eta Anton Azpiazurekin Txokolateixia erakutsiko diegu. Domekan, berriz, Arrikrutz kobak ikusteko irteerak antolatuko ditugu. Jende asko datorrela ikusita, taldeak egingo ditugu", azaldu du Ikerne Altubek.

### GPSan

Sorbeltz elkarteko Ramon Berrocosok azaldu duenez, Euskal Herritik kanpokoak dira etorriko diren gehienak. "Autokarabana guneak GPSetan deskargatzen ditugun programa berezi baten sartzen ditugu eta Oñatikoa ere sartuta dago. Nik neuk ezagutzen dut gune hori eta zoragarria da autokarabanarekin ibiltzen garenondako, luxua. Datozenei ere gustatuko zaie", gaineratu du Berrocosok.

Gipuzkoan autokarabanendako egokituta dauden 19 gune daude, guztira.



Joan den urteko azaroan Kale Zaharrean atera zuten talde argazkia. | GOIENA

# Herritar asko bibotearekin ikusi gura ditu Movember mugimenduak azaroan

Prostata eta barrabiletako minbiziaren gaineko sentsibilizazio ekimena hirugarren urtez ari dira egiten Oñatin; dirua ere batuko dute ikerketarako

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

*Moustache* eta *november*, bibotea eta azaroa, bi hitz horien batuketa da Movember. Hala du izena prostata eta barrabiletako minbiziaren kontra Oñatin hirugarren urtez egingo den ekimenak. Bibotea da mugimendu horren ikurra eta Oñatin dagoeneko bat baino gehiago ikusten da, eguneroko *look*-aren kontrara, bibotea utzita. "Ez da mutilendako ekimena bakarrik. Neskak ere batu daitezke mugimendura. Azken finean, minbizi konkretu horren gaineko sentsibilizazioa zabaltzea da Movember-en helburua", adierazi du Aratz Losadak, ekimenaren bultzatzaileetako batek.

Bibotea uzteak ere bere sekretua duelako, konpontze eta mantentze zerbitzua ere eskainiko du Movember mugimenduak. "Jon eta Igone ile apaindegietan, adibidez, doan konponduko dituzte biboteak", dio Aratz Losadak.

Prostata eta barrabiletako minbizia ezagutarazteko ekimena da, eta gaitz hori ikertzeko bideratuko dute batutako dirua. Izan ere, sentsibilizazioa zabaltzearekin batera diru bilketa ere egiten dute ekimen horrekin, ikerketarako den diru bilketa. "Aurten ere itsulapikoak jarri ditugu herriko hainbat komertzio eta tabernatan: Jon eta Igone ile apaindegietan eta Ongi, Iturritxo, Pako, Oñati, Ona eta Harripe tabernetan", zehaztu du Losadak.

Joan den urtean, aurrekoan baino askoz jende gehiago batu zen ekimenera eta aurten ere gura dute ahalik eta jende gehienak egitea bat ekimenarekin. Hilabete bukaerarako ekitaldiren bat egitea ere badute buruan, baina zehazteke dute oraindik. "Asmoa bada elkartzea eta ekitaldiren bat egitea, baina ez dugu ezer lotuta. Azaroaren bukaeran izango dela, horixe bakarrik da gauza ziurra. Dena lotuta dugunean, Facebooken dugun kontuaren bitartez jakinaraziko diegu herritarrei", dio Losadak.

**DATUA**

**8**

ITSULAPIKO

**Ikerketara bideratuko den dirua batzeko zortzi itsulapiko jarri dituzte herriko beste horrenbeste denda eta tabernatan.**

# Poemak eta kantuak Musika Egunak hasteko

Kirmen Uribek eta Easo Abesbatzak elkarrekin egingo dute emanaldia Santa Ana antzokian etzi

**O.E.** | OÑATI

Domekan izango da Musika Egunak ekimenaren lehen kontzertua. Kirmen Uribe poeta eta Easo Abesbatza izango dira Santa Ana antzokian, eta *Iparragirre oroimenean* izeneko emanaldia eskainiko dute, zuzenean, 19:00etan. "Onena zuzenean ikustea da, zerbait berezia da poesia eta musika biltzen duen emanaldi bat, behin gertatzen dena, ez du zerikusirik grabatutako zerbaitekin edo liburu bat irakurtzearekin, errezital bat beti da zerbait autonomoa, eta esango nuke gehiago duela musikatik hitzetik baino", aurreratu du Kirmen Uribe poeta ondarrutarrak.

**Zuzenean**

Iparragarriren hainbat pieza kantatuko ditu Easo Abesbatzak, eta Uribek entzulea haren kontestuan jarriko duten poemak irakurriko ditu. "Ze garaitan bizi zen Iparragirre? Ze ideia zeuden sasoi hartan puri-purian? Ze idazlek idazten zuten orduan? Nik Iparragirreren lana mundu mailako literatur giroan kokatzen dut eta horregatik irakurtzen ditut Walt Whitman, Friedich Hörderlin, Emily Dickinson, Oscar Wilde eta besteren poemak. Iparragirre iraultzaile bat zen. Pertsonaia bat sortu zuen bere buruarekin. Kontuan izan bere famak gaurdaino iraun duela, bere bertsoak herriak kantatzen ditu, baina ez bertso eskoletan edo hezkuntza sisteman ikasi dituelako, bizirik iraun dutelako ahoz belarri, gaur egueneraino", gaineratu du poetak.

Emanaldirako sarrerak leihatilan eros daitezke bost eurotan.



Kirmen Uribe poeta bizkaitarra. | LITERATURWERKSTATT.ORG

**NIRE USTEZ**



**ELIAS ZUMALDE**

# Auzolana

Beti harritu izan nau helburuarekin bat etorri eta egin beharreko bidean ados jartzeko, sarritan, izaten ditugun zailtasunak. Zer dela eta kostatzen zaigu hainbeste bidea elkarrekin egin, bidelagun izan eta auzolanean aritzea? Gure historiari begiratu txiki bat emanda, garbi ikusten da euskaldunok irauten, eusten, sekulako ahalegina egin behar izan dugula. Bata izan ez denean, bestea izan da eta, askotan, bi bider egin behar izan dugu ibilbide bera. Esaterako, martxan genituen egunkariak itxi zizkiguten eta sekulako lana egin behar izan zen lehenera bueltatzeko, edota, ilegalizazioa dela eta aukera politiko guztiak edukitzeko gogor borrokatu behar izan dugu. Gure historia horrelako adibidez beteta dago.

Honi guztiari gauzak bikoizteko –AEK-HABE, Bai Euskarari ziurtagiria-Bikain ziurtagiri, atez atekoa-5. edukiontzia, Behatokia-Elebide… – daukagun trebezia gehitzen badiogu, ulergarri egiten da nekea, asperdura. Indar asko xahutu dugu urrats txikiak egiteko.

Zenbaitetan etsipenak gainak hartu dizkigu, ilusioa eta itxaropena alde batera utziz.

Kontuak kontu, aurrera begiratzeko moduan gaudelakoan nago, auzolanean arituta, gai gara egoera honi bueltа eman eta elkarrekin konpartitzen ditugun helburuak lortzeko. Bakoitzak beretik, ahal duen horretatik, bultza eginda, aurrera joango gara.

Gure eskuekin oihalak ehuntzen, sarea osatzen… hasi gara. Auzolana da bidea.

# Herri galdeketa eztabaidagai, 'Eskura' prozesua aurkeztu eta lantzeko bileran

**KOMUNITATEA GOIENA** |
GURE ESKU DAGO | OÑATI

Martitzen iluntzean egin genuen, kultura etxean, Gure Esku Dagon azkenaldian esku artean darabilgun *Eskura* prozesua aurkeztu eta horren gaineko lanketa egiteko bilera.

Azalpen bideoa ikusi eta gero, taldeka jarri eta *Eskura* txostenak jasotzen dituen puntuen gainean jardun genuen. Talde bakoitzean komentatutako gauzak elkarri aurkeztu genizkion ondoren. Ahotan ibilitako kontuetako bat izan zen epe ertainean Oñatin ere herri galdeketa bat egiteko aukera. Izan ere, 2016 eta 2018. urteen artean ahalik eta herri gehienetan Euskal Herriaren etorkizunari buruzko kontsultak egin daitezen nahi du Gure Esku Dagok, eta martitzeneko bileran jardun genuen galdetu beharko litzatekeenaz eta kontsulta egin arteko bideaz, besteak beste.



Martitzenean kultura etxean egindako saioa. | JULEN IRIONDO

# Auzoko eguna egingo dute, hirugarrenez, Larrañan

Larrañan auzoko eguna ospatuko dute hirugarren urtez. Zapatuan egingo dituzte ospakizun ekitaldiak: auzoko produktuen erakusketa eta auzotarrendako afari-merienda. Larrañan ekoiztutako produktuak Larrain Gainen egongo dira ikusgai. Iluntzeko otordua ere hantxe izango da.

# Ikusi Makusiren lan berria erretiratuek ikusiko dute lehenengo

*Hospital o manicomio* du izena Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldearen lan berriak, eta, ohitura den moduan, herriko erretiratuak dira estreinaldira gonbidatuta daudenak. Gaur, egubakoitza, antzeztuko dute lan berri hori, Santa Ana antzokian, 17:30ean. Gabonak aurretik egingo dute beste emanaldi bat herritar guztiendako.

# Piraguak, eskalada, lur azpia eta tontorrak, mendi hamabostaldian

Martitzenean da mendiari buruz Aloña Mendik antolatu duten egitarauaren lehen ikus-entzunezkoa

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Mendia oinarri hartuta antolatu du aurten ere Aloña Mendiko mendi sailak mendi hamabostaldiaren egitaraua. "Mendia bera bai, baina mendian egindako eta izandako abentura eta esperientzia ezberdinak ekartzen saiatu gara aurten ere. Diziplina ezberdinak ezagutzeko aukera egongo da aurtengo mendi hamabostaldian. Ikus-entzunezko emanaldiak izango dira guztiak, baina zineklubean emango duen pelikulan ezik, beste guztietan protagonistak eurak etorriko dira kultura etxeko zinema aretora eta zuzenean kontatuko dituzte euren abenturak", aurreratu du Iker Laskurain oñatiarrak.

**Bertatik bertara**

Eneko Yarzak emango dio hasiera aurtengo mendi hamabostaldiari. "Kayak baten gainean Perun egindako erreka baten jaitsiera jasotzen duen bideo bat ikusiko dugu eta Andeetan izandako esperientziaren berri emango digu berak", dio Laskurainek.

Azaroaren 10ean, datorren martitzenean, izango da hori. Eguaztenean, berriz, Oier Plazaola urretxuarrak joan den urtean Cho Oyura egindako espedizioaren inguruko emanaldia izango dute. "Plazaola ere gertukoa da. Natural, ondo, kontatzen ditu esperientziak, eta polita izango da bera entzutea. Egia esan, hamabostaldira gonbidatu ditugun denak dira gertukoak eta asko dute kontatzeko. Tartean daude, gainera, espeleologia taldekoak ere. Plazera izango da horiek guztiak bertatik bertara entzutea", dio Iker Laskurainek.

**Mendia**

Bigarren asterako antolatu dituzten bi emanaldiak dira eskaladari buruzkoak. Trataera, baina, ezberdina da. Batetik, azaroaren 17an, Unai Mendia eskalatzailea etorriko da eta izotzetan zein harrietan eskalatzea zer den azalduko du. Eskaladaren alde teknikoari buruz jardungo du Mendiak, eta berak egindako hainbat irteeratako irudiak ekarriko ditu, azalpenak emateko laguntzeko.

Zineklubean eskainiko duten *Valley uprising* filmak ere eskalada izango du oinarri, baina ez kirol horren alde teknikoa. "60-70eko hamarkadetan Yosemite inguruan eskaladari buruz gazteek zuten filosofia azaltzen du filmak. Orduan egindako borrokei esker igo ahal dira egun hainbat mendi eta haitz", azaldu du Iker Laskurain gazteak.



Eneko Yarza erreka bat piraguan jaisten. | ENEKOYARZAARABAOLAZA.BLOGSPOT.COM

EGITARAUA

**AZAROAK 10**

**19:30** *Inkayak, inken bailarak piraguan*. Hizlaria: Eneko Yarza.

**AZAROAK 11**

**19:30** *Cho Oyu*. Hizlaria: Oier Plazaola.

**AZAROAK 13**

**18:45** Mendi saileko argazki lehiaketako sari banaketa.

**19:00** *Urzulo*. Espeleologia taldearen bideoa.

**AZAROAK 17**

**19:30** Eskalada mistoa. Hizlaria: Unai Mendia.

**AZAROAK 19**

**20:00** *Valley uprising*. Zineklubean.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**

Lehiaketako argazkiak hilaren 9tik 23ra egongo dira ikusgai kultura etxean

## Bilboko mendi film jaialdirako aukeratua izan da 'Urzulo'

Bilbon urtero egiten duten mendi film jaialdirako aukeratua izan da Aloña Mendiko espeleologia taldeak egindako *Urzulo* filma. Mendiari buruzko nazioarteko film jaialdia da Bilbokoa eta aurten 43 lan aukeratu dituzte lehiaketarako. Horietako bat da *Urzulo*. 35 minutuko iraupena du oñatiarrek egindako lan horrek. Abenduaren 11tik 20ra izango da Bilboko mendi film jaialdia, baina *Urzulo* Oñatin estreinatuko dute hilaren 13an.



Oñatin egindako filmaren karteleko irudia. | AMET

# Aloña Mendik triatloi taldea ere izango du aurrerantzean

Kolore gorriekin lehiatuko dira herriko triatletak

O.E. | OÑATI

Oñatiko Triatloi Taldea izan da orain arte eta denboraldi berritik aurrera Aloña Mendi Triatloi Taldea izango da. "Guretako ez da aldaketa hain handia izango, guk geuk orain arte moduan funtzionatuko dugulako gure entrenamendu eta lasterketa egutegiekin, baina Aloña Mendiren laguntza eta babesa, segurtasuna, izango du aurrerantzean eta hori garrantzitsua da guretako", dio taldeko kide Andoni Correasek.

Babesleak badituzte, eta orain, kolore gorria eta urdin iluna izango dituen ekipamendua prestatzen ari dira.

**Martxoan**

Egun, 25 neska-mutil daude triatloi taldean, eta, beste inork kide izan gura badu, ongietorria izango dela esan du Correasek. "Bakoitzak jartzen ditu bere helburuak, alde horretatik lasai egon dadila. Eskatzen dugun gauza bakarra da martxoan antolatu ohi dugun duatloian laguntzeko prest egotea", zehaztu du kirolari oñatiarrak.

Datorren otsailean hasiko da triatloi denboraldia. Oñatiko duatloia martxoan izango da. Eguna ez dute oraindik zehaztu, baina martxoan izango dela ziurtatu dute.



Iazko Oñatiko dutloia. | GOIENA

## Azaroko odol ateratzea gaur, egubakoitza, egingo dute

Gaur, egubakoitza, egingo dute azaroko odol ateratzea. Betiko moduan, Txantxiku Ikastolako areto nagusira joango da horretara propio lantalde bat Donostiatik. 17:30etik 19:30era izango da ateratzea. Odola inoiz eman ez duten herritarrei deialdi berezia egin gura die Oñatiko odol emaileen elkarteak.

## Irazan Antzerki Guneak atera ditu zenbaki sarituak

Irazan Antzerki Guneak txartelak atera zituen autofinantzaketarako eta urriaren 31n egin zuten txartel horien zozketa. Zenbaki hauek izan dira sarituak: 1.652 (bi lagunendako Perlara sarrerak), 3.213 (bi lagunendako afaria) eta 4.965 (Irazanek antolatutako ekitaldietarako sarrerak). Zenbaki saridunen jabeak Eltziara joan daitezke sariak jasotzera.

## Hautesle zerrenda ikusgai dago astelehenera arte

Abenduaren 20an egingo diren Espainiako hauteskunde orokorretako hautesle zerrenda ikusgai egongo dago udaletxean. Hilaren 9ra arte ikus daiteke. Daturen bat oker badago, eskaera egin behar da zuzentzeko. Horretarako, nortasun agiria, gidabaimena edo pasaportea eraman behar da.

## Zumarragatik Azkoitira joateko irteera antolatu du Aloña Mendik

Zumarragatik Azkoitira joateko irteera antolatu du Aloña Mendiko mendi sailak hilaren 15erako. Hamabost kilometroko ibilbidea da eta bost ordutan egingo dute, gutxi gorabehera. Joan gura duenak izena eman behar du aurretik Aloña tabernan, eta horretarako azken eguna azaroaren 12a da, eguena.

# Sarrerak salgai Oñatzen urteurren ekitaldietarako

O.E. | OÑATI

Oñatz dantza taldeak 45 urte betetzen ditu aurten eta dagoeneko prestatu du urteurren hori ospatzeko egitaraua. Zubikoan egingo duen jaialdi bat eta herri bazkaria dira ekitaldi horietako bi, eta bietarako txartelak salgai jarri ditu dagoeneko.

Ekitaldi nagusia azaroaren 14an izango da Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. Oñatz dantza taldeak, Oñatiko Udal Musika Bandak, abesbatzak eta Aita Madina txistulari taldeak hartuko dute parte, besteak beste, ekitaldi horretan. Sarrerak 10 eurotan daude salgai Txokolateixian eta kultura etxean.

Hilaren 21ean, berriz, herri bazkaria egingo dute, eta hara joateko sarrerak toki beretan eros daitezke 25 eurotan.

# Helduendako ipuina gaur 'Atxabaltako kuentistarekin'

Amaia Elizagoien nafarrak egingo du saioa Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

*Ameli, ipuinen jostuna*-k, Amaia Elizagoien baztandarrak, *Lehenengo aldia* ipuina kontatuko die helduei gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan. *Atxabaltako kuentisten* hirugarren saioa da.


*Atxabaltako kuentistak* ipuinak kontatzen joan den astean. | NEREA ALTUNA

**Ikastaroaren ostean kontaketa**

Sei lagunek egin zuten ipuin kontaketa ikastaroa Udalak antolatuta udaberrian, apiriletik ekainera, eta Maite Franko ipuin kontalari hondarribiarra izan zuten gidari. "Bi helburu zituen ikastaroak: transmisioa, batetik, hau da, herriko gazteek umeei ipuinak kontatu ahal izatea; eta trebakuntza, bestetik, lan mundura begira gertatzeko erremintak ematea", jakinarazi du Gazteria teknikari Maider Etxanizek.

Orduan ikasitakoak erakusten dabiltza orain *Atxabaltako kuentistak* izenarekin, eta harrera ezin hobea egin diete herritarrek orain arteko saioetan, umeendako kontaketetan. Helduendako egingo duten bakarra gaurkoa izango da. "Ipuin edo anekdota bidez lehenengo aldiak kontatuko ditut, asko markatzen gaituztelako lehenengo aldi horiek", dio Elizagoienek.

*Atxabaltako kuentisten* azken ekitaldia, bestelakorik erabaki ezean, azaroaren 21ean, zapatua, da. 11:30ean elkartuko dira liburutegiko Txiki Txokoan, eta 4 urtetik gorako umeak daude gonbidatuta hara.

**AMAIA ELIZAGOIEN** | IPUIN KONTALARIA

## "Helduekin beste osagai batzuk sar daitezke, eta, hala, konplizitatea lortu publikoarekin"


XABI ZUBILLAGA

Ipuinak kontatzea du gustuko eta bide horretatik jarraitu gura du. *Lehenengo aldia* ipuinarekin dator gaur Arkupera.

**Oraintxe hasi zara kontalari lanetan; nolatan?**

Haur Hezkuntza ikasketak egiten hasi nintzen Bergaran eta Ipuin Kontaketa ikasgaiko irakasleak esan zidan berezko zerbait nuela ipuinak kontatzeko.

**Ondoren, Udalak antolatutako ikastaroa egin zenuen.**

Bai, hala da. Konturatu nintzen oso gustuko nuela ipuinen mundu hori, eta pentsatu nuen berezkoa izanda ere sakontzea komeni zitzaidala.

**Eta ase zintuen egindako horrek?**

Bai. Ikasi nuen genero eta adin tarte ezberdinetan zelan moldatu, eta Maite Franko irakasleak erakutsi zidan nik nituen erremintak lantzen. Izan ere, beti dago zer ikasia.

**Joan den astean umeen aurrean kontatu zenituen ipuinak; zelan moldatu zinen?**

0 eta 3 urte artekoak ziren, eta oso esperientzia berezia izan zen. Horiekin lan egiteko ikasten nabil ni, eta horien beharrak zeintzuk diren ezagutzen. Horregatik, oso gustura egon nintzen; benetan polita izan zen.

**Helduen aurrean gaur; beldurtuta?**

Plaza bakoitzak badu bere xarma, eta ematen dena eta jasotzen dena ezberdina da. Helduen ipuinak ere izugarri gustatzen zaizkit, beste osagai batzuk sar daitezkeelako, umorea, adibidez, eta, hala, konplizitatea lortu publikoarekin.

## Hasi dira bidegorria berritzen Geltoki plazan

Eguaztenean hasi zituzten Orsa enpresako langileek Geltoki plazako lanak. Inguruko aparkalekuetatik autoak kendu, autobus geltokia 30 metro aurreratu eta egokitze lanak egin dituzte egunotan, ondoren buru-belarri hasteko. 160 metroko bidegorria guztiz berrituko dute, hamar astean.


M.A.

NIRE USTEZ


OIER ARANZABAL

## Nun sartuko gare?

Iritsi da momentu bat non albistegiak ikustea gero eta gogorragoa den. Gerrak, gosea, hilketak, migrazio arazoak… gero eta ugariagoak dira, eta honek ez dauka itxura onik. Siriako egoera sinestezina da, denak denen aurka... Munduko handiak elkarren aurka euren herria ez den baten, aurrerago Korean, Vietnamen, Afganistanen… gertatu zen bezala, baina oraingoan partaide gehiagorekin. Munduko toki askotan daude arazoak, baina oraingoan gure etxeko atean dira. Baliabide naturalak gero eta preziatuagoak dira, eta etorkizunean hauen kontrolak gerrak eragingo dituela dirudi.

Eta gero eta migratzaile gehiago iristen dira gurera, egoera politiko edo ekonomiko gogorretatik datoz eta gure eginbeharra da, nire ustetan, eurei ongietorria ematea eta gure gizartean ahal eta hobeen integratzea. Gogoratu gure arbasoak duela oso gutxi arte munduan zehar ibili izan zirela bizitza aurrera ateratzeko.

Gero eta gehiago gara munduan, 230.000 pertsona gehiago egunero. Hau da, lau egunero, munduan dauden euskal hiztun adina pertsona gehitzen dira Lurra planetara! Ikaragarria… (Ikusi al duzue *HOME* dokumentala? Saiatu Youtuben; atsegin dut bukaeran planteatzen duen ikuspegi erdi positiboa).

Biologiako teorema batek dio edozein ekosistema orekara iristen dela; noiz eta nola iritsiko gara orekara gizakiok? Nolakoa izango da mundua hemendik urte gutxira? Eta nola egokituko da gure hizkuntza egoera berrira?

# Euskalkia ahoz eta idatziz lantzeko ikastaroa egingo dugu Loramendin

Film laburren tailerra ere izango dugu azaroan Ibai Zangituk eta Mikel Alberdik gidatuta

KOMUNITATEA GOIENA | LORAMENDI ELKARTEA | ARETXABALETA

Euskalkia ahoz eta idatziz lantzeko ikastaroa eta film laburren tailerra antolatu ditugu Loramendi euskara elkarteko Kultura Taldeak.

Euskalkia ahoz eta idatziz lantzeko Karmele Agirregabiria arituko da irakasle lanetan. Ikastaroa bi zatitan banatuko da: lehenengo lau saioak azaroko azkeneko bi larunbatetan eta abenduko bigarren eta hirugarrenean izango dira goizez. Azkeneko lau saioak, berriz, otsailean; guztira, hogei ordukoa izango da. Lehenengo lau saioetan izena emateko azken eguna azaroaren 19a da.

Film laburren tailerreko egunak, berriz, azaroaren 15a, 22a eta 29a dira. Ibai Zangitu eta Mikel Alberdi izango dira emaileak. Behin tailerra jasota, abenduaren 5etik 8ra Euskaltzaleen Topaguneak Durangoko Azokan antolatzen duen Kameratoia film laburren lehiaketan parte hartzea da asmoa. Bereziki, herriko gazteak animatu nahi ditugu tailerrean parte hartzera.

Izena eman edo informazio gehiago nahi duena hurbil dadila Loramendi elkartera, idatzi *loramendielkartea@gmail.com* helbidera edo deitu 943 77 09 70 edo 685 75 67 29 telefono zenbakietara.

### Irakur puntua egiteko marrazki lehiaketara aurkezteko epea azaroaren 27an bukatuko da

Udal Liburutegiak marrazki lehiaketa deitu du gaztetxoendako, 12 eta 16 urte artekoendako. Irakur puntuaren marrazkia hautatzeko da lehiaketa, eta lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 27a da. Irabazleak 150 euro jasoko ditu.

Marrazkiak honako tamaina hau izan beharko du: 20 zentimetro altueran eta 5,5 zentimetro zabaleran. Gaia eta teknika, ostera, libreak dira. Hori bai, marrazkiak inon argitaratu gabea izan beharko du. Lanak entregatzerakoan, bi kartazal eraman beharko dira, anonimotasuna gordetzeko. Kartazal batean marrazkia egongo da –tolestu gabe– eta bestean egilearen datuak –izen-abizenak eta telefono zenbakia–. Eta bietan, kanpoaldean, ezizen edo lelo berbera jarri behar da.

# Hamasei bikote izango dira lehian bihartik aurrera

Frontenis misto txapelketa hasiko dute Iturrigorri pilotalekuan, UDAk antolatuta

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

"Aretxabaletan antolatzen den lehenengo frontenis txapelketa mistoa dela kontuan izanda, oso pozik gaude izandako erantzunarekin", jakinarazi dute Aretxabaleta kirol elkarteko kideek. Izan ere, hamasei bikotek jardungo dute norgehiagokan.

Lehenengoz antolatu dute txapelketa mistoa, eta horren helburuak bi dira: "Emakumezkoek eta gizonezkoek elkarrekin kirola egitea eta pilotalekuaren erabilera bultzatzea", diote UDAkoek. Eta halaxe izango da datozen bi aste bukaeretan, Iturrigorri frontoian.

**Finala azaroaren 15ean**

Txapelketaren lehen atala ligaxka erara izango da. Lau talde osatu dituzte eta talde horietako bakoitzeko bikoteek elkarren aurka jokatuko dute bihar, etzi eta hilaren 14an. Eta gero final -laurdenak ere azaroaren 14an izango dira eta finalerdiak eta finala, ostera, 15ean.

Partiduetarako arauak ere zehaztu dituzte: 22 tantora izango dira, sakean lautik laua pasatu beharko da eta zazpia pasa izango da; pasa eginez gero, beste aukera bat egongo da.

Txapeldunendako saria bertako produktuekin egindako otarrea izango da; eta txapeldunordeendako, afaria bi lagunendako. Antolatzaileek zera gomendatu diete jokalariei bihar hasiko duten txapelketari begira: "Asko entrenatu eta gero gozatu!".

**FRONTENIS MISTO TXAPELKETA**

**AZAROAK 7, ZAPATUA**

| | |
|---|---|
| 09:00 | Agurtzane Elkoro - Ibon Gonzalez / Elena Artieda - Javier Crespo |
| 09:30 | Lierni Zangitu - Ibai Zangitu / Oihana Irazu - Haritz Gorroño |
| 10:00 | Oihana Mata - Migeltxo / Maite Fraile - Mikel Iturri |
| 10:30 | Eneritz Ollobarren - Beñat Zubizarreta / Ariane Unanue - Asier Unanue |
| 11:00 | Amaia Gastañaga - Josu Lanzos / Rosa Ojuel - Javier Martinez |
| 11:30 | Leire Valle - Asier Valle / Jasone Garciaetxabe - Jon Diez |
| 12:00 | Lore Martinez - Aitor Artolazabal / Ibone Arrieta - Goio Arrieta |
| 12:30 | Ainhoa Galfarsoro - Adrian Merino / Miren Lezeta - Luis Unanue |

**AZAROAK 8, DOMEKA**

| | |
|---|---|
| 09:00 | Oihana Mata - Migeltxo / Elena Artieda - Javier Crespo |
| 09:30 | Amaia Gastañaga - Josu Lanzos / Ainhoa Galfarsoro - Adrian Merino |
| 10:00 | Lore Martinez - Aitor Artolazabal / Oihana Irazu - Haritz Gorroño |
| 10:30 | Agurtzane Elkoro - Ibon Gonzalez / Maite Fraile - Mikel Iturri |
| 11:00 | Miren Lezeta - Luis Unanue / Rosa Ojuel - Javier Martinez |
| 11:30 | Jasone Garciaetxabe - Jon Diez / Eneritz Ollobarren - Beñat Zubizarreta |
| 12:00 | Lierni Zangitu - Ibai Zangitu / Ibone Arrieta - Goio Arrieta |
| 12:30 | Leire Valle - Asier Valle / Ariane Unanue - Asier Unanue |



Lazituriko pagadia, Murrukixoko egutegiaren argazkia. | ASIER ATXA

# Asier Atxaren argazkia Murrukixoren egutegian

M.A. | ARETXABALETA

Asier Atxa Azpiazu aretxabaletarrak irabazi du Murrukixok deitutako argazki lehiaketa, eta hori agertuko da mendizale elkartearen 2016ko egutegian. Lazituriko pagadiaren argazki original bat aurkeztu zuen hark, eta, hain zuzen, originaltasun horregatik eta kalitateagatik hautatu zuen epaimahaiak irabazletzat.

Guztira, hamabi argazki jaso dituzte: "Benetan politak bidali dizkigute, baina batzuk aurreko urteotan ateratako oso antzekoak. Horregatik, originaltasuna baloratu dute erabakitzerakoan", jakinarazi du Nerea Letek, Murrukixoko kideak.

**Aldaketak egiteko**

Datorren astean banatuko dituzte egutegi horiek mendizale elkarteko bazkideen etxeetan. Eta egutegiarekin batera gutuna jasoko dute, bazkidetza eta federazio aldaketak egiteko.

Gogorarazi dute federatze aukeretan aldaketaren bat egin gura izanez gero azaroaren 24a arte dagoela epea zabalik. Horretarako bideak hauek dira: Murrukixoren lokaletik pasatu martitzenetan (19:00-20:00) edo telefonoz deitu orduan (943 79 93 74); mezua ere bidal daiteke: *murrukixo@outlook.com*.

Federatu txartela, gero, M5 kirol dendan jaso ahal izango dute aretxabaletarrek.

# Mikel Zamoraren argazki dotoreak daude Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Myanmar, Namibia, Islandia, Costa Rica eta Estatu Batuak; herrialdeotako paisaiak eta bizilagunak ekarri ditu Mikel Zamora aretxabaletarrak argazki bidez Arkupera. 30 bat lanekin osatutako *BidaiaTU* erakusketa azaroa bukatu artean egongo da eta herritarrak gonbidatu ditu horiekin gozatzera.

**Areano landetxean**

"Herritarrei erakutsi gura diet beste herrialde batzuetako printza batzuk, eta, hala, anima daitezen bidaiatzera. Izan ere, asko ikasten da beste herrialde batzuetara joanda: hemengoa baloratzen, ikuspuntu zabalagoa izaten...". Hain zuzen, argazkiak ateratzea eta bidaiatzea dira Zamoraren zaletasun handienak: "Bidaian joan aurretik hasten naiz ni gozatzen, gertatze lanekin. Ondoren, bidaian bertan; eta ostean, argazkiak ikusi, sailkatu eta gordetzerakoan". Argazki mordoa ditu, eta, Arkupen erakusteko, aukeraketa egin du. Gainerakoak Mendiola elizateko Areano landetxean dauzka ikusgai, eta bertara gonbidatu ditu herritarrak: "Gura dutenean hurrera daitezela, pozik erakutsiko dizkiet, eta azalpenak eman". Eta gaineratu du: "Herrialde horietakoren batera bidaian joan gura dutenei aholkuak emateko gertu nago".



Erakusketako argazkia. | MIKEL ZAMORA



ODILO VAZQUEZ

## Karatekak garaikurrez beteta

Gipuzkoako karate txapelketa jokatu dute Azkoitian, eta, kadete mailan, kumite modalitatean, 70 kiloz gorakoetan, UDAko kirolariek elkarren aurka jokatu zuten finala; Andoni Martin izan zen txapelduna, Eneko Calvori irabazita. Bestalde, 21 urtez azpikoetan, Oxel Vazquez hirugarren izan zen, 67 kiloz azpikoetan, eta baita Ekaitz Irusta ere, 75 kiloz azpikoetan. Eta kadete mailan, 63 urtez azpikoetan, hirugarrena izan zen Imanol Abete.

# Gaztaina-jana, karta-jokoak eta antzerkia azaroan Basotxorekin

KOMUNITATEA GOIENA | ERRETIRATUAK
BASOTXO ELKARTEA | ARETXABALETA

Azaroko ekitaldiak astean hasi ditugu Basotxoko lagunok, osteoporosiaren gaineko hitzaldiarekin. Eta gaur, egubakoitza, gaztaina erre eguna izango dugu Basotxoko tabernan, 18:00etan hasita. Ateak zabalik izango ditugu gura duenarendako.

Bihar, zapatua, ostera, Getariara joango gara. 09:45ean irtengo gara autobusez Azbeko geltokitik, eta egun-pasa dotorea egingo dugu.

**Karta-jokoak eta antzerkia**

Hurrengo egubakoitzean, azaroak 13, mus, tute eta briska txapelketak jokatuko ditugu erretiratuon elkarteko bazkideon artean. Karta-joko jardunaldia, gainera, afari eder batekin bukatuko dugu.

Eta azaroaren 17an, martitzena, Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi taldekoen azken antzezlana izango dugu: *Ospitalea edo zoroetxea*. Azaroaren 6an estreinatu zuten, Oñatin, eta orain Arkupen egingo dute, 18:00etan. Sarrerak banatuko ditugu Basotxoko bulegoan, eta bazkideok debalde izango dugu; gainerakoek lau euro ordaindu beharko dituzte.

## OHARRAK

**'REGRESION' FILMA**

Alejandro Amenabar zuzendari ezagunaren *Regresión* (Espainia, 2015, 106 minutu) filma izango dute helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

Umeek, ostera, *Inside out* dute bihar eta etzi (17:00).

**GURASOENTZAT FORMAZIOA**

Guraso Foroak antolatuta, nerabeen eta gurasoen arteko komunikazioaren gainean egingo du berba Izar Arregi psikologoak. Eguenean, hilak 12, da saioa, kiroldegian (gazteleraz), eta 10 eta 17 urte arteko nerabeen gurasoak gonbidatu dituzte.

# 3.300 pertsonak izango dute herri galdeketan bozkatzeko eskubidea

## Hiri hondakinei buruzko galdeketa datorren azaroaren 29an izango da

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Hiri hondakinei buruzko galdeketa azaroaren 29an, domekan, egingo dute, Eskoriatzako kultura etxean, eta 09:00etatik 20:00etara bitartean egongo da aukera botoa emateko. Lau mahai jarriko dituzte, eta emaitza egunean bertan jakingo da, hauteskundeetan bezala.

Herri kontsulta horretan bozkatzeko eskubidea izango dute bi baldintza betetzen dituztenek: 18 urtetik gora dituztenek eta Eskoriatzan erroldatuta 2015eko irailaren 22a aurretik daudenek. Guztira, 3.300 pertsona izango dira, behin-behineko datuen arabera, boto eman ahalko dutenak.

**Errolda jendaurrean**

Bozkatzeko eskubidea izango dutenen errolda jendaurrean egongo da azaroaren 12ra arte (eguena), udaletxeko harrera bulegoan, 09:00etatik 14:30era, astelehenetik egubakoitzera. Epe horretan, interesdunek errolda aztertu ahal izango dute, eta, akatsik egonez gero, haiek zuzentzeko eska dezakete.

Udalbatzak hartutako erabakiaren arabera, herri-galdeketan egingo den galdera hau izango da: *Hondakinak selektiboki biltzeko hiru sistema hauetatik, zein nahi duzu Eskoriatzan erabiltzea?* Hiru aukera egongo dira: bosgarren edukiontzia, atez atekoa eta sistema mistoa.

Herri galdeketaren prozedura hauteskundeetan erabiltzen den bera izango da, hainbat egokitzapenekin. Esaterako, posta bidez bozkatzeko aukerarik ez da egongo, baina aurretik eman ahalko da botoa, udaletxean, idazkariaren aurrean.

**Aurretik emandako botoak**

Hain justu, azaroaren 29an bozkatu ezin dutenek aurrez bozkatzeko aukera izango dute, azaroaren 23an eta 24an. Hautesleak bere burua identifikatu beharko du, edozein hauteskundetan onartutako dokumentu ofizialak aurkeztuz, baina originalak izan beharko dute, ez baita fotokopiarik onartuko.

Boto emaileak gutun-azal ofizialean sartuko du bere botoa, eta, gutun-azala itxi ondoren, emango zaion beste gutun-azal baten sartuko du aurrez bozkatzeko eskaera-inprimakiarekin batera. Bigarren gutun-azal horretan izena, abizenak eta helbidea jarri beharko ditu, erroldan agertzen diren moduan, eta gutun-azalaren atzealdean sinatu egingo du. Botoa hautetsontzian sartzerakoan, ikusten baldin bada boto emailea ez dagoela erroldan izena emanda, botoa ez da ontzat, ez baliogabetzat, ez zuritzat hartuko, ezin baita kontuan hartu boto emailea, eta, beraz, mahaiburuari bidalitako gutun-azala eta barruko dokumentazio guztia suntsitu beharko da.

**Mahaiko boluntarioak**

Bestalde, hauteskunde mahaiak osatzeko ezohiko prozedura erabiliko dute, hasiera batean: boluntario bitartez. Boluntario izan nahi duenak hainbat baldintza bete beharko ditu: erroldan inskribatuta egotea, 18 urtetik gorakoa eta 65 urtetik beherakoa izatea, eta eskola graduatu titulua edo baliokidea izatea.

Azaroaren 17a –hori barne– izango da boluntario gisa aurkezteko epea, eta boluntarioak aukeratzeko zozketa, berriz, azaroaren 18an, 18:30ean, egingo dute. Interesdunek udaletxeko harrera zerbitzuan eman beharko dute izena, 09:00etatik 14:00etara. Boluntariorik aurkezten ez bada, mahaiak osatzeko ohiko zozketa egingo dute.

**"Aurretik botoa emateko aukera dago azaroaren 23an eta 24an"**

**"Hauteskunde mahaiak osatzeko boluntarioak behar ditu Udalak"**

## Mendi irteera perretxikoak batu eta ezagutzeko

**I.B** | ESKORIATZA

Aurten ere Koldotxo Guraso Elkarteko kide eta lagunek perretxiko jardunaldiak antolatu dituzte Eskoriatzan. Zapatuan, goizeko hamarretan herriko plazan batuta, perretxikoak ezagutzeko eta batzeko mendi irteera egingo dute. Nahi duenak du aukera bertara joan eta perretxiko batzean eta ezagutzan parte hartzeko.

Arratsaldean, berriz, 16:30ean, batutako perretxiko guztiak sailkatuko dituzte kultura etxean, Errotari Elkarte Mikologikoak gidatuta. Eta, hain zuzen ere, sailkatu, ikusi eta ikasi nahi duenak ateak irekita izango ditu.

**Erakusketa domekan**

12:00etatik 14:00etara perretxiko erakusketa egingo dute herriko plazan. Erakusketa dagoen bitartean, umeentzako margolaritza txapelketa izango da; gaia perretxikoak izango dira. Eta, horrez gainera, taloak egingo dituzte Koldotxo Guraso Elkarteko gurasoek eta lagunek.

NIRE USTEZ



**TXOMIN AZPITARTE**

## Udazkena Eskoriatzan

Udazkenean gaude, urtaro koloretsua, egunez dugun argi kantitate txikia konpentsatzen duena. Urtaro honek natura prestatzen du neguko lozorrorako, hostoak jakintsu, kapa bat eginez lurra ongarritzeko.

Orain, aldiz, gizakiak agertzen gara, naturaren lozorrotik urrun, hondakinak sortzen jarraitzen dugu, eta ez dugu behar bezala birziklatzen kasu batzuetan. Azaroaren 29an birziklatze mota bat edo beste bat bozkatuko dugu.

2016an Mankomunitatetik kanpaina bat jarri zen abian olioa, beira… batzeko. Birziklatze ziklo berri bat zen, egun eta ordutegi batekin. Hura izan zen bilketa selektiboaren hasiera. Uste dut garrantzitsuena ez dela zentratzea nola jaso behar diren hondakinak; zaborra sortzetik azken tratamenduraino egiten den bidean zentratu behar dugu. Horregatik, denok konbentzitu behar dugu zaborra banatu egin behar dugula sortzen dugunean; hala, ondorengo tratamendua errazte aldera.

Pertsona batzuei burutik kendu behar zaie bosgarren edukiontziak erraztu egiten duela "ez birziklatzea" –ezkutatu egiten da gaizki batutako zaborra)–; bestela, zaila izango litzateke azaltzea nola momentu honetan pertsonek zabor organikoa, ontziekin, dena nahastuta, lurrean, uzten duten, beste guztiei kaleetan zikinkeria horrekin bizitzen behartzen.

Berreskuratzea posibleena da, elementu kultural bezala hartu behar da gizartean; hala, zer egin ez dakigunean hondakin kopurua txikiagoa izango da, erraustuz bukatuz. Azken hau naturako azken maila izan beharko litzateke, eta ez lehena, baina erosoena da, baina ez osasuntsuena; nork nahi du errauskailu baten ondoan bizi?

Errealitatean, hondakinen tratamendua behar bezala egitea da. Denok egon behar dugu ados, ez da herri baten bizikidetasuna distortsionatuko duen elementu bat izan behar. Argi dago hobe dela ondo birziklatzea eta zaborra ondo biltzea, alde guztietatik zaborra ikustea baino.

Egiten dugun guztia, ziklo naturaletik gertu, denok disfrutatuko dugu, eta, gainera, mundu garbiagoa utziko diegu gure ondorengoei.

# Eskoitzara Eguna, aldarrikapen gisa

## Euskal presoen eta iheslarien eskubideen defentsan ekintza ugari antolatu dituzte zapaturako

**I.B** | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, bigarren aldiz egingo dute Eskoitzara Eguna. Herriko preso eta senideei elkartasuna adierazteko jaia izango da, eta egitarau zabala prestatu du Eskoriatzako Presoen Lagunak taldeak.

11:30ean herriko plazan barra irekiko dute, eta tonbola egongo da egun osoan; 200 opari inguru batu dituzte herritarren artean. Nazioarteko tortilla lehiaketa ere izango da hura amaitzean, eta 13:00etan manifestazioa egingo dute herriko kaleetan zehar. 14:00etan, berriz, trikitilariekin batera kalejira egongo da, eta bazkaria Egokiena elkartean: baba -jana sakramentuekin.

**Emanaldiak kontzejupean**

Kontzejupean, Drop eta Criminal Remains taldeen kontzertuak izango dira, 20:00etan, eta eguna amaitzeko, berriz, 00:00etan, DJ Elviskaino izango da Inkernu taberna girotzen.




*Euskal presoak Euskal Herrira* bandera erraldoiarekin iaz. | GARTXOT ZUBIZARRETA

## Areto futboleko hiruko txapelketa izango da azaroaren 29an

Azaroaren 29an, domekan, benjaminen eta alebinen arteko areto futbol txapelketa izango da Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. 09:30ean hasiko dira partiduak, eta Debagoieneko neska-mutil guztiei zuzenduta dago txapelketa. Taldeak lau pertsonakoak izango dira, eta oparia izango dute parte-hartzaile guztiek. Izena emateko azken eguna azaroaren 15a izango da. Izen-emate orria *Goiena.eus*-en dago, Eskoriatzako atalean.

## 'Asier ETA biok' pelikula emango dute gaur Zaldibarren

Asier eta Aitor ikaskide izan ziren Iruñean 80ko hamarkadan. Ondorengo urteetan, bide ezberdinetatik jo zuten: Aitor Madrilera joan zen aktore izateko ametsak bultzatuta, eta Asier, berriz, ETA talde armatuan sartu zen. Pelikula horrek ulertze -bideak sortu nahi ditu, eta, asmo horrekin, saiatuko da azaltzen nola den posible ETAko kide baten adiskide izatea taldearen ideologiarekin bat egin barik. Sarrera doan izango da.

# 2016ko udal tasak eta zergak mantentzea onartu dute

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako mozioa aho batez onartu zuten

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko sei botori esker aurrera atera zen 2016rako ordenantza fiskalen proposamena. Hala, 2016ko tasak eta zergak ez dira igoko. Zinegotzi sozialista abstenitu egin zen eta jeltzaleek euren desadostasuna azaldu zuten.

Basilio Ormazabal bozeramaileak azaldu zuenez, ez daude ados zenbait punturekin: "Ondasun Higiezinen Zergaren errekarguak ez duela eraginik izan ikusi da. Hiru urtean ez da etxebizitza hutsen mugimendurik ikusi. Gainera, atez atekoaren sistema defizitarioa da; hala, zaborraren tasa igota konpentsatzea lortuko litzateke dagoen diferentzia hori. Aipatu ere, sarri entzuten dugula Antzuolak diru gutxi daukala mugimenduak egiteko. Bada, orain zuten aukera tasak pixka bat igo eta ekintzak egiteko".

Beñardo Kortabarria alkateak, aldiz, tasak ez igotzearen aldeko apustua egin dutela azpimarratu zuen: "Ez ditugu igo oraindik garaiak ez direlako oso onak. Gainera, aurreko urteetan ikusi bezala, sarreretan ere nahiko ondo ibili gara. Zaborraren tratamenduari eta zerbitzuari garrantzi handia ematen diogu; lehentasuna dauka guretzako. Birziklatzearen aldeko apustu garbia egiten dugu. Emaitza ezin hobeak ditu atez atekoak; defizita ez da oso handia; beraz, ez ditugu tasak igoko. OHZri dagokionez, esan, gehien duenak gehien ordaintzea onartu zela iaz eta 2013tik tasa horien bilketek igoera daukatela. Gainera, helburua da alokairua mugitzea, eta aurten datuek diote mugimendua badagoela. Etxebizitza huts horien merkatua edukitzea gurako genuke".


Martitzenean, batzorde gelan egin zen ohiko osoko bilkura. | MAIDER ARREGI

**Mozioak**

Alderdi Sozialistaren Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren gaineko mozioa aho batez onartu zuten. EH Bilduk aurkeztu zuen mozioa, aldiz, erresonantzia magnetikoak kalitatezko zerbitzuaz egitearen aldekoa, ez zen aho batez onartu; EAJ abstenitu egin zen. EAJk adierazi zuen Zumarragako ospitalean kalitatez eskaintzen zela zerbitzu hori eta Arrasaten ere aukera badagoela gaur egun egoten den kamioi ibiltariari esker.


Klak!son boskotea promoziorako talde argazki batean. | KLA!SON

# Akustikoan eskainiko du Klak!son taldeak bere azken lana gaur

'Denboraleak' izeneko disko berriak pop-rock doinua jasotzen duten bost kanta ditu

**M.A.** | ANTZUOLA

Klak!son taldearen *Denboraleak* azken lana labetik atera berria da. Hirugarren lana zuzenean gaur, egubakoitza, arratsaldeko seietan hasita entzuteko aukera izango da Aitz Garbi tabernan. Pop-rock estiloko bost kanta jasotzen ditu azken lanak. "Abesti melodiko eta progresiboekin osatutako diskoa da", diote taldekideek. Izan ere, euren estiloari leialak izan dira azken lan horretan ere. Baina doinu intentsuak eta sakonak entzuteko aukera ere bada diskoan murgiltzean.

Gaur arratsaldeko zuzenekoan, Isuo Sasiia bakarlariaren doinuak, akustikoan, ere entzungai izango dira.

**Salgai**

Diskoa azaroaren 7tik aurrera salgai izango da Antzuolako Aitz Garbi tabernan eta Urretxuko Gazteleku eta Fox tabernetan bost euroren truke.

## Gaubeila egingo da azaroaren 10ean Aiherran

Aihertarrek antzuolarrak gonbidatu gura dituzte gaubeilara. 21:00etan hasiko da, hilaren 10ean: Xendarineko ahizpak eta Mikel Markez kantuan; Battit Cruospeyre eta Amaia Agirre, bertsotan; eta Asisko Urmeneta eta Peio Etxekopar antzezpen lanetan ariko dira.

## Etorkinen inguruko zurrumurruen harira, tailerrak egingo dira

Azaroaren 10ean, aurreiritzien, eta estereotipoen gainean jardungo du Xabier Aierdik –Jaurlaritzako Gizarte Politikako aholkularia–, 18:00etan, Olaranen. Hilaren 17an eta 24an beste bi tailer egingo dituzte, zurrumurruei erantzuteko eta kudeatzeko.

## Gaztaina erre jana antolatu du Landatxopek

Azaroaren 21ean, 18:30ean, urteroko gaztaina erre jana egingo dute Landatxopeko erretiratuek. Joateko asmoa dutenek izena emateko aukera azaroaren 10ean eta 11n dute 16:00etatik 18:00etara bitartean, Landatxopeko bulegoan. Prezioa 2 euro da.

## 'Bizilagunak' ekimena abian da aurten ere Antzuolan

Leku berean bizi diren askotariko kultura duten familien arteko harremana sortzean datza *Bizilagunak* ekimena. Azaroaren 22an egingo dira topaketak eta parte hartu gura dutenek izena eman dezakete: *info@mugak.org* edo 943 32 18 11 telefonora deituta.



GAZTETXOKOA

## Zatoz ondo pasatzera gazte txokora!

Asteburu honetan irekiko ditugu gazte txokoko ateak eta Aste Santura bitartean egongo da martxan –zapatua17:00–21:00 eta domeka 17:00–20:00–. Hala, astebururo ekintza ezberdinak egiteko aukera izango dute hurbiltzen diren gaztetxo guztiek. Bihar, gaztetxo berriei ongietorria egiteko asmoz, eta jadanik gazte txokoa soberan ezagutzen duten gaztetxoekin elkartuz, merienda egingo dugu. Zatozte ondo pasatzera!

KOMUNITATEA GOIENA | ANTZUOLA
GAZTE TXOKOA | ANTZUOLA

## OHARRAK

**BIZIKLETA IRTEERA**
Arrolak hilaren 15ean egingo duen mendi bizikleta irteeran izena eman daiteke –Axpe-Urkiola-Besaide-Arrasate-Antzuola, 43 km–. Informazioa: *arrolamt@gmail.com* edo 650 61 46 41 telefonoan (Maialen).

**UMEENDAKO IPUIN SAIOA**
Domekan, ipuin saioa umeendako, 18:30ean, Torresoroan.

**BATZAR IREKIA**
Gaztetxeari bultzada emateko eta hausnarketa egiteko batzar irekia bihar, 12:00etan.

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Axpe, Quintana, Del Campo eta Olaizola Aramaioko pilotariak. | JOSU OLAIZOLA

# Txapelak etxean geratzeko lan egingo dute pilotari gazteek

San Martin txapelketako finalak etzi, domeka, izango dira, 10:00etan hasita

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

San Martin pilota txapelketa iritsi da amaierara. Bi hilabeteren ostean, domekan finalak jokatuko dituzte. 10:00etan hasiko dituzte norgehiagokak: zortzi sailetako zortzi finalak jokatuko dituzte. Aramaioko pilotariak lau finaletan egongo dira: benjamin B mailan, benjamin A mailan, alebin A mailan–Llodioko pilotariarekin bikotea osatuta– eta infantil A mailan. Iaz bezala, aurten ere gogor lan egingo dute aramaioarrek txapelen bat etxean gera dadin.

**Bigarren txapelketa**

Aramaioko pilota elkartea buru-belarri ibili da lanean. "Gure balorazioa positiboa da", azaldu du Josu Olaizolak. Iraila eta urria bitartean Arabako neska-mutikoei pilotan egiteko aukera ematea izan da San Martin txapelketa antolatzearen helburua. Iaz egin zuten lehenengoz, eta aurten errepikatu egin dute. 100 partidu inguru antolatu dituzte eta hori lortzeko lan handia egin behar izan dutela esan du Olaizolak. "Pozik" daude emaitzarekin.

## SAN MARTIN TXAPELKETA

### Finalak

| | |
|---|---|
| BENJAMIN B | Camino - Goikoetxea ARAMAIO / Sergio - Unax TXUKUN |
| BENJAMIN A | S.Abarrategi - Perez ARAMAIO / Moya - Reinaldo HERRIAREN |
| ALEBIN B | Gaizka Donaire - Kimetz Uriguen-Pagate ADURTZA / Akixo - Moraza TXUKUN |
| ALEBIN A | Eskuza - Arriolabengoa ARAMAIO-HERRIAREN / Rivas - Altube TXUKUN |
| INFANTIL B | Diaz de Gereñu - Larrieta TXUKUN / Urko Ugalde - Joseba Letona ADURTZA |
| INFANTIL A | Aspe - Kintana - J. Errasti ARAMAIO / Amondo - Saez HERRIAREN |
| KADETE B | Orue - Martinez de Murgia TXUKUN / Markaida - Sueiro OION TXUKUN |
| KADETE A | Alava - Gonzalez AMURRIO / Albizuri - Gorostiza AMURRIO |

*Domeka 8, 10:00etan.

# Barikuetan izango dira trikiti eta pandero eskolak

Azaroaren 13an emanaldia eskainiko du Trikikalejira taldeak udaletxeko arkupeetan

**A.E.** | ARAMAIO

Trikitia eta panderoa jotzen ikasteko ikastaroak hasi dituzte Trikikalejira elkartekoek. Interesa duenak *trikikalejira@gmail.com* helbidera idatzi beharko du, izena eta telefono zenbakia emanda. Trikikalejira elkartekoak jarriko dira interesatuarekin harremanetan informazio gehiago emateko.

**Banakako eskolak**

"Bariku arratsaldeetan izaten dira trikiti eskolak, bakarkakoak", azaldu du Saioa Uriartek, Trikikalejira elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak. Pandero eskolak, aldiz, taldeka eskaintzen dituzte. Honela banatzen dira pandero eskolak: txikien taldea 16:45etik 17:45era eta nagusien taldea, berriz, 18:00etatik 18:30era.

Eskolan izaten dira klaseak. "Trikitia edo panderoa ez duenari elkarteak utziko dio bat", gaineratu du Uriartek.

**San Martin eguna**

Datorren astean San Martin eguna izango dela aprobetxatuz, hilaren 13an, barikuan, emanaldia egingo dute elkartekoek udaletxeko arkupeetan. Trikiti eta pandero ikasleak ibiliko dira musika ipintzen, 19:00etan; eta, horrez gain, pintxo eta edariak jarriko dituzte salgai.

Trikikalejira elkarteak zozketa ere egingo du datorren barikuan. Elkarteko zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkie lagundu dieten guztiei. "San Martin eta Erretiratuen Egunean ateratako dirua oso garrantzitsua da elkarteak aurrera egiteko", azaldu du Uriartek.

## Ibarrako kaleetako auzo-alkateak aukeratuko dituzte hilaren 8an, etzi, bozketa bitartez

Ibarrako kaleetako ordezkariak aukeratzeko deialdia egin du Udalak. Bi auzo-alkate aukeratu beharko dituzte: batak ordezkatuko du Ibargoia, Aita Gabriel Jauregi, Bizente Goikoetxea plaza eta Iturri Zuri kalea; eta besteak, Nardeaga, Pedro Ignazio Barrutia eta Santakruz Abadearen plazatxoa. Sastiñan eta erretiratuen lokalean jarriko dituzte hautetsontziak, domekan, 12:00etatik 14:00etara. Kale horietako bizilagunek dute botoa emateko eskubidea; "ordezkarien zereginaren" gainean ere galdetuko zaie.

## Erretiratuen elkarteak antolatuta, Arantzazura irteera egingo dute azaroaren 12an, eguena

Datorren eguenean, azaroaren 12an, Arantzazura irteera egingo dute erretiratuek. 09:15ean irtengo dira autobus geltokitik eta 10:00etan Arrikrutz-Oñatiko Kobak bisitatuko dituzte. Ondoren, Gomiztegi baserriko gaztandegira joango dira bisitan. Bazkaria 14:00etan izango dute, Sindika jatetxean. 17:30ean izango dute itzulerarako autobusa. Interesatuek azaroaren 10a –martitzena– baino lehen ingresatu beharko dituzte 35 euro Laboral Kutxako kontu korrontean. Plaza kopurua mugatua izango da.

## Ibabe eta Beitia omendu ditu Udalak

Erretiratuen Egunaren harira, Udalak omenaldi xumea egin zien bi herritarri. Valentin Ibabek eta Maria Angeles Beitiak oroigarria jaso zuten, zapatuan, Lierni Altuna alkatearen eta Cristina Etxenausia zinegotziaren eskutik. Giro onean ospatu zuten Erretiratuen Eguna: azokak arrakasta izan zuen eta bazkarian ere ederto ibili ziren.



ARAMAIOKO UDALA



ARAMAIOKO UDALA

ELGETA

# Etxez etxe banatutako inkestak betetzeko dei egin du Udalak

▶ Astelehenean, hilak 9, amaitzen da herritarren erantzunak jasotzeko epea

▶ Parte hartze prozesuko lehenengo herri batzarra hilaren 18an izango da

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Elgetako Udala murgilduta dago *Danon artian danon herrixa* izeneko parte hartze prozesuan. Helburua da herritarren ekarpenak jasotzea eta lehentasunak identifikatzea. Hala, etxez etxe banatutako galdera sorta, elkarrizketa pertsonalizatuak eta bi herri batzarrak iragarri ditu Udalak, azarorako. "Baliatuko dugu aukera agintaldiko plana egiteko, 2016ko aurrekontu proposamena ixteko eta parte hartzeko ordenantza egiteko", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. "Praktika parte-hartzaile bat sustatu gura dugu, eta ordenantza izan dadila ondorioa". Prozesua herritar guztiei dago zabalik. "Interesgarria litzateke, noski, ahalik eta herritar gehienek parte hartzea eta ahalik eta ekarpen gehien jasotzea", esan du Lazkanok.

**Galdera sorta etxez etxe**

Aurreko astean banatu zuen Udalak *Danon artian danon herrixa* parte hartze prozesuaren gaineko informazioa, eta, horrekin batera, herritarrei betetzea eskatzen zaien galdera sorta, etxebizitza bakoitzeko bi. Astelehenean amaitzen da erantzunak aurkezteko epea. Udaletxeko sarreran eta liburutegian dauden postontzietan laga daitezke. Beste aukera bat da *www.elgeta.eus* udal webgunearen bidez betetzea.

"Gure helburua da herritar guztiek parte hartzea, baina, parte hartzea %10 bada ere, uste dugu Udalaren egitekoa dela hori sustatzea; parte hartu nahi duenari bidea eskaintzea, alegia (...) Noski, zenbat eta parte hartze handiagoa, orduan eta zilegiago izango da guretzat. Esaterako, %60 batek badio ez dakit zein udal zerbitzu txarto dagoela, ba, zer pentsatua emango digu horrek".

## PILOTA TXAPELKETA

| AZKEN EMAITZAK | |
|---|---|
| Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta | 18-04 |
| Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza / Asier Untzetabarrenetxea-Iker Zabaleta | 18-11 |
| Oskar Sarasua-Andoni Elortza / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar | 18-13 |
| Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Etor Garate-Eneko Maguregi | 7-18 |

| GAUR, AZAROAK 6, 19:00ETAN |
|---|
| Alberto Telleria-Angel Ibarluzea / Iban Retolaza-Enrike Elkoro |
| Iñaki Ugarteburu-Koldo Goenaga / Mikel Elkoro- Jose Mari Zubiaurre |
| Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe / Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza |
| Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Oskar Sarasua-Andoni Elortza |
| Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Asier Untzetabarrenetxea-Iker Zabaleta |
| Epaileak: Etor Garate-Eneko Maguregi eta Alberto Telleria-Angel Ibarluzea |

### Urtarriletik irailera bitartean elgetarrek hiri hondakinen %77,92 sailkatu dituzte, batez beste

Mankomunitateak eman ditu datuak, eta onak direla baloratu du Udalak. Gogorarazi dute, baina, auzo-konpost guneetan ezin dela poltsa konpostagarririk bota. "Organikoaren edukiontzi marroira ez bezala, konpost guneetan organikoa ondo zabaldu behar da, eta materia lehorrarekin nahastu eta aireztatu. Poltsan dagoen organikoa ez da ondo usteltzen", azaldu dute.

### Badatoz pintxo-domekak: azaroaren 15erako iragarri dute Elgetako VIII. pintxo lehiaketa

Bina pintxo gertatuko dituzte tabernariek, eta epaimahaiak onena aukeratuko du hilaren 15ean. Hurrengo bi domeketan euro bateko prezioan eskainiko du nork bere pintxo onena, eta herritarrek botoa emateko aukera izango dute. Hala, sariak, musika... izango dira Elgetan azaroko azken hiru domeketan.

### Spinningeko bi talde sortu dira, eta elkartu egin dituzte tonifikazioa eta GAP jarduerak

Erabiltzaile kopurua kontuan hartuta spinningeko bi talde osatzea erabaki du Udalak. Bigarren taldearen saioak izango dira astelehenetan eta eguenetan, 19:30ean. Tonifikazioan eta GAP jardueretan, berriz, kontrakoa gertatu da, eta, hala, talde bakarrean elkartuko dituzte erabiltzaileak; martitzenetan eta eguenetan, 18:30ean.

### Zabalik da izen-ematea hilaren 20an eta 21ean egingo duten autodefentsa feminista tailerrerako

Bideberri mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, Emagin elkarteko kideek gidatuko dute Herri Eskolako psikomotrizitate gelan egingo den zortzi orduko tailerra. Interesatuek udaletxean edo *gizarte@elgeta.net* helbide elektronikoan eman behar dute izena hilaren 13rako. Ekintza doan da.



ELGETAKO MUSIKARIAK

## Elgeta Kantuan azaroaren 22an

Zapatuan elgetar talde bat Elgoibarren izan zen: "Primeran ibili gara Elgoibarko Kantu Egunean: euskal kantak, giro jatorra, lagun onak, bazkari ederra, eguraldi zoragarria... Azaroaren 22an egingo dugu hurrengo Elgeta Kantuan. Entseguak astearteetan dira, 21:00etan, kultura etxean. Animatu eta etorri euskal kantak ikasi eta abestera!".

## OHARRAK

**GAZTAINA ERRE EGUNA**
Gaur, 15:00etan, eskolakoek frontoi zaharrean egingo dute jaia, eta 18:00etan, erretiratuek Ozkarbi elkartean.

**IPUINEN ORDUA**
Gaur, 17:25ean, liburutegian, 3 urtetik gorakoendako.

**EKINTZAK ESPALOIAN**
Gaur, 22:30ean, Trio Basaur taldeak egingo du emanaldia. Bihar, 19:00etan, *Mozkorra parregarri* egongo da ikusgai. Eta domekan, 17:00etan, Sormening tailerra izango da.

**GARBIGUNE IBILTARIA**
Eguaztenean, Salbador kaleko plazan, 10:00etatik 21:00etara.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**
Dinamizatzailea KZgunean izango da eguaztenean, 09:00etatik 10:30era.

LEINTZ GATZAGA

# Gatz Museoko teilatuaren lanak bukatzear daude

Eguzki-plaka jartzea besterik ez da falta

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Gatz Museoan bukatzear daude urrian abiarazitako lanak: teilatua berritu, pareta margotu eta eguzki-plaka jartzea zuten helburu. Bada, azken hori egitea besterik ez da falta.

Hain justu ere, egunotan jarriko duten eguzki-plaka erabiliko dute bertan egiten duten gatz ekoizpenerako energia berriztagarri izan dadin. "Ura aldez aurretik berotzeko erabiliko dugu", esplikatu du Aitor Larrañagak, Gatz Museoko arduradunak.

**Pertsona bat gehiago**

"Era berean, bagabiltza lantzen gatz ekoizpena handitzeko linea prototipo bat: Stirling. Hark ahalbidetzen du uraren beroketa egitea eta horrekin batera argindarra sortzea. Eta oraingo astean bertan hasi da langile bat linea prototipo hori lantzen, makina horri zukua ateratzeko. Izan ere, energia berriztagarrien erabilerari garrantzi handia ematen diogu; besteak beste, gaur egun bizi dugun aro berriak ere halakoak aintzat hartzea eskatzen duelako", esan du Gatz Museoko arduradunak.



Aldamioa jarrita dago, eguzki-plaka jarri arte. | UBANE MADERA

**Liztor beltza**

Bestalde, egunotan Leintz Gatzagan azaldu diren liztor beltzaren hiru habietako bat Gatz Museo inguruan atzeman dute. Bestea, berriz, Goierri aldean azaldu da eta hirugarrena joan den astean azaldu zen, kanposantu inguruan. Halakoetan ohi den moduan, tratamendua aplikatzen zaie, habiak inaktibatzeko.

LEINTZ GATZAGA

### Hautesleen zerrenda kontsultatzeko azkeneko egunak

Azaroaren 9ra arte (astelehena, berau barne) izango da ikusgai abenduaren 20ko Espainiako Gorte Nagusietarako hauteskundeetan botoa emateko eskubidea izango duten gatzagarren errolda; bestela esanda, hautesleen zerrenda. Udal bulegoan dago, hain justu ere. Hautesleen zerrenda horretan norbait egon ezean, edo egonda ere berari dagozkion datuak zuzenak ez badira, erreklamazioa egin dezake, udal bulegoan bertan hori ere. Izan ere, datuok zuzenak ez badira, pertsona horrek ez du hauteskundeetan botoa emateko eskubiderik izango.

# KIROLA

ATLETISMOA

**Ritxar Fernandez** | Atleta

# "Bihar ere korrika egitera irtetea da daukadan helburu nagusia"

- Garai bateko seriotasunaz heldu dio oñatiarrak ostera ere atletismoari
- Behobia-Donostian euskaldun gutxik lortu dute Oñatikoaren marka

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Hainbat urtez korrika egiten lasai ibili ostean, Ritxar Fernandez (Oñati, 1970) garai bateko sasoia errekuperatzeko lanean dabil serio. Goizeko lehenengo orduak aprobetxatzen ditu entrenatzeko, eta domekan bere lasterketa kutuneko irteera-puntuan izango da, Behobia-Donostian –euskaldunen artean marka onenetakoa du proba horretan: 01.01.38–. Eta, horrekin batera, ilusioz dabil Intersport Loramendi dendatik abiarazi duten Korrikasten proiektuarekin.

**Hiru hamarkada atletismoan, eta oraindik jo eta ke.**

Bai; gustura nabil. Beti diot helburu bakarra daukadala: hurrengo egunean korrika egin ahal izatea. Orain, baina, garai bateko sasoia errekuperatzeko motibatuta nabil. Etxeko txikiak dagoeneko ez dira horren txikiak, eta, etxekoen laguntzarekin, denbora apur bat ateratzen dut ondo entrenatzeko.

**Erronka ez da makala, ostera ere lasterketetan aurrean ibiltzea.**

Ez da makala, ez, dagoeneko 45 urte dauzkadalako eta 30 urtekoen kontra lehiatzen naizelako. Badakit seguruenik ez naizela garai bateko mailara iritsiko, baina oso lehiakorra naiz, eta lasterketetan dena eman ahal izateko aurrez ondo egin behar dira etxeko lanak.

**Horrenbestez, garai batean bezain zorrotz ari zara.**

Bai; entrenatzaile berarekin nabil, eta berdin entrenatzen. Baina hainbat aldaketa egin ditut adinaren gorabeherei aurre egiteko: bideoz grabatu nituen nire hainbat saio, eta zuzenketak egiten hasi nintzen korrika egiteko teknikari dagokionez, garai bateko pisura itzultzeko bi kilo galdu ditut, saioak bikoizten hasi naiz eta kilometroak pilatzen... Gauza asko ibili naiz begira, eta zuzenketa txikiak egiten ibili naiz.

**Eta hasi dira emaitzak azaleratzen: joan den asteburuan Gasteiz Hiria lasterketan hirugarren izan zinen, kilometroa 3.17an eginda [10 km].**

Bai; kosta egin zaidan arren, orain hasi naiz emaitzak batzen. Ikusgarria da korrika egiteko modua aldatuta, batez ere gorantz, zenbat hobetu dudan. Garbi neukan aldaketa horiek derrigor egin behar nituela, ez daukat-eta duela hamar urteko muskulu-masa bera; hasieran, ahate baten moduan nindoan, aurrera erori-ko nintzen beldurrez. Eta zaila da estilo berrira ohitzea, batez ere, nekatuta nagoenean. Hor, kontzentrazioa galtzen den momentuan, korrika egiteko lehengo estilora bueltatzen naiz, eta kostatu zait, baina hilabeetako lanaren ondoren lortu dut.



Ritxar Fernandez, aste barruan Arrasaten. | XABIER URZELAI

**Behobia-Donostia da aurtengo helburu nagusia?**

Ez da bakarra, baina lasterketa hori mimoz prestatu dut. Orain arte Behobia-Donostiara iristen nintzen beste zerbait egiteko asmoarekin, eta lasterketa hori test moduan erabiltzen nuen. Oraingoan, Behobia izango da urteko helburuetako bat, eta domeka ostean atseden hartuko dut. Ondoren, urtarrilean Espainiako maratoi txapelketa egin nahi dut, Sevillan, eta baita otsailean Santa Polan egingo duten Espainiako maratoi erdiko txapelketa ere.

**Dagoeneko hamaika urte pasatu dira 2004an egin zenuen markatik [01.01.38]. Debagoienean inor ez da gerturatu marka horretara, eta euskaldunen artean ere...**

Ondo gogoan dut, bai, ate asko zabaldu zizkidalako marka horrek. Alberto Juzdadok irabazi zuen azken urtea izan zen hura, eta zortea izan nuen, entrenamendu guztia ondo barneratu nuelako eta egun ona izan nuelako. [Laugarren izan zen].

**Eta domeka honetarako, zer espero duzu?**

Esandako moduan, oso lehiakorra naiz, eta dena ematera irtengo naiz. Ez litzateke izango normala gipuzkoar onenaren saria nik irabaztea, Ander Sagartzazu edota Pablo Salaberria moduko atleta gazteak oso indartsu daude eta; eta horrela behar du, gainera. Baina nire aurretik ibili gura duten gainontzeko gipuzkoarrek ondo egin beharko dute korrika. [Barre]

**Arlo pertsonala alde batera utzita, ikustekoa da aspaldian zenbat jende dabilen korrika.**

Bai, jende asko dabil, bai. Kanpotik datorren joera bat da. AEBetara, Alemaniara eta Holandara maratoiak egitera joaten ginenean, jende asko ikusten genuen kalean osasuntsu egoteko korrika egiten, aparteko helburu barik. *Running* osasuntsuaren *boom* hau geroago iritsi da hona. Normala ere bada, denbora laburra behar da kirol apur bat egiteko, egin behar den inbertsioa ez da handia... Eta helburuak ez du zertan izan lasterketetan aurrean ibiltzea, ezta gutxiago ere: osasungarria da, autoestimua igotzen laguntzen digu, lanean edo etxean hobeto egongo gara...

**Zein da korrika hastera doan batek egiten duen akats ohikoena?**

Korrika egiten azkarregi hasten garela. Ez dakigu erritmo lasaian korrika egiten, edo apur bat oinez eta apur bat korrika eginez hasten, eta, lehertuta amaitzen dugunez, pare bat saio egin ostean bertan behera uzten dugu.

**Garrantzitsua izango da, bada, hasieratik gauzak ondo egitea. Horretarako jaio zen Korrikasten?**

Neurri batean, bai; ahalegintzen gara zapaturo gauza berri bat lantzen. Bere kabuz korrika dabilenak sasoian dagoenean bere herriari 40 minutuan emango dio itzulia, eta sasoian ez dagoenean 45 minutuan, baina ez du beste ezer landuko, hor geratuko da. Korrikasten-en, azken batean, teknifikazio saio bat egiten dugu hastapen mailan, eta taldeak antolatzen ditugu gero, mailaren arabera. Hala, oinarria lantzea, korrikako teknika hobetzea, potentzia edota indarra lantzea, luzaketak egitea... edota pultsometroarekin korrika egiten ikastea, elikadura zaintzea, ondo berotzen jakitea... Halakoak egiten ditugu.



Joan den zapatuan batu zen kuadrilla; geroago eta jende gehiago dabil animatzen. | INTERSPORT LORAMENDI

## Korrikasten, korrika egiten hasteko, eta ikasteko

Korrikasten ekimeneko hainbat saio egin dituzte dagoeneko, eta, Intersport Loramendiko Itziar Uriarteren esanetan, harrituta daude izan duen harrera onarekin: "Lehenengo saioan 30 lagun inguru batu ginen, eta, guretako, lorpen galanta izan zen, ez da-eta erraza zapatu goiz baten halako kuadrilla bat batzea". Bada, dagoeneko 60 lagunetik gora daude, eta zabalik dituzte ateak: "Zapaturo elkartzen gara, 09:00etan, denda kanpoan, eta, normalean, Iturripera joaten gara gero. Maila guztietako jendea dago, eta hasiberri asko. Korrika batera egiteko taldea sortu gura genuen, kirola ondo egiten irakastea... Anima dadila jendea, ez dago-eta inongo konpromisorik".

# Cho Oyu izango da WOPeak proiektuaren azkenekoa

## Urtebete barru egingo dute ahalegina, eta gerta liteke oraingo asmoak erabat aldatu behar izatea

XABIER URZELAI | ARRASATE

"Chamlang mendiaren gailurrarekin WOPeak proiektuaren bigarren urratsa bete dugu, eta, orain, hirugarrena baino ez zaigu falta", adierazi zuen Alberto Iñurrategik, Chamlang mendi azpian hartutako adierazpenetan, kanpamentu nagusian. Orduan, baina, Aretxabaletakoak ez zuen gehiago aurreratu, eta martitzenean Bilbon egindako prentsaurrean eman zituzten hurrengo proiektuaren gaineko xehetasun gehiago.

Hasteko, onartu zuten Chamlang mendiak jarritako zailtasunak ez zirela txikiak izan, eta gaineratu zuten oso motibatuta daudela proiektuari zentzua emango dion azken pausoa emateko.


Hirukoa Chamlang mendia eskalatzen. | WOPEAK

**Zortzimilakoa falta da**

WOPeak fundaziotik (Walk On Project) bultzatutako proiektua da hori. Gaixotasun neurodegeneratiboei aurre egiteko sortutako fundazioa da WOPeak, eta 2010ean heldu zioten ekimen horri: mila metroko mendi gailur batetik hasi –Gorbeia aukeratu zuten– eta geroago eta garaiera handiagoko gailurrak igotzen joan dira: Hiru Erregeen Mahaia (2.428 metro), Tallon (3.144 metro), Txileko Copacollo sumendia (4.835 metro)... Hala, azken lorpena zazpimilako bat igotzea izan da –Chamlang–, eta azkena geratzen da: zortzimilakoa. Bada, zortzimilakoaren gainean ere egin zuten berba; seguruenik, Cho Oyu izango da aukeratutako gailurra: "Baina mendi kontuez berba egiten dugunean batek daki zer gerta daiteken. Oraindik denbora luzea dugu mendia bera aukeratzeko, eta baita bidea bera ere".

Hala, asmoa da datorren urrian egitea ahalegina, eta, orain artean moduan, estilo alpinoan egitea igoera.

# Gorlako 'mushing' lasterketa abenduaren 13an izango da

## Guztira, hiru kategoria antolatuko dituzte: txakur-krosa, 'bikeyoring'-a eta patinezkoa

X.U. | BERGARA

Azaroan beharrean, aurtengo Gorlako *mushing* lasterketa abenduaren 13an egingo dute, eta, aurtengoa Euskadiko Txapelketa izango ez bada ere –Nafarroan antolatuko dute aurten–, antolatzaileek parte-hartze kopuru polita espero dute Bergarako lasterketan.

Hain zuzen ere, atletak hiru kategoriatan lehiatu ahal izango dira: txakur-krosean –modalitate horrek batzen du jende kopuru gehien–, *bikeyoring* modalitatean eta patinezkoan. Ibilbideari dagokionez ez da aldaketa handirik izango, aurtengo edizioko zirkuitua ere Gorlako kantina inguruetan egingo dute eta.


*Bikeyoring* modalitatean. | GOIENA

### Ehunmilak lasterketarako izen-emate epea zabaldu dute; uztailaren 8tik 10erako asteburuan izango da

Atzo, eguena, zabaldu zuten 2016ko Ehunmilak probarako izen-ematea. Uztailaren 8tik 10erako asteburuan egingo dute aurtengo lasterketa, baina izen-ematea ez da proba horretara mugatuko. Izan ere, azken urteotan 167 kilometro luze izango dituen probaz batera beste bi antolatu dituzte, motzagoak. Hala, 2016an ere Marimurumendi (42 kilometro) eta G2 Handiak (88 kilometro) probak ere antolatuko dituzte. Edozeinetan izena emateko, edo informazio gehiago, *www.ehunmilak.com* webgunean.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.




Donostiako Bulebarra korrikalariz beteta iazko lasterketan. | JOSETXO ARANTZABAL

LASTERKETA

# Larrea: "Lasterketa hasi baino ordu erdi lehenagotik ez edan ezer"

Behobia–Donostia lasterketa jokatuko dute etzi, domeka

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

21 graduko maximoak eta hego haizea. Hori da Behobia-Donostian parte hartuko duten korrikalariek izango duten eguraldia: beroa eta haizea. Horren aurrean hidratazioa aholkatzen dute adituek. "Bero egiten badu, gehiago izerdituko gara eta kontsumoa handiagoa izango da. Hortaz, zapatuan ondo hidratatu eta lasterketa hasi baino ordu lehenagotik ez edan ezer", esan du Athloneko Kepa Larreak.

Behobiatik Donostiara dauden anoa-puntuetan ere edatea aholkatzen du. "Guztiok ez dugu hidratazio puntu berbera, baina gorputzari eskatzen duena eman behar zaio ahulaldirik ez izateko", dio Larreak.

**Azken irabazleak irteeran**

Hidratazioa aintzat hartuko dute irteera puntuan egongo diren 34.000 parte-hartzaileek (09:30ean, mailakatua): korrikalariak eta patinatzaileak. Horien artean, ehunka debagoiendar egongo dira. Askorendako, urteko erronka nagusia izango da. Beste batzuendako, aldiz, Donostiako maratoia prestatzeko entrenamendua.

Izen propioei dagokienez, Carles Castillejo eta Vanessa Veiga dira hautagai nagusiak. Gizonezkoen lasterketan, berriz, azken bost urteetako txapeldunak egongo dira: Pedro Nimo, Jaume Leiva, Rafael Iglesias eta Chema Martinez.

## Astelehenean Goiena telebistan

Goienako hainbat langile egongo dira domekan Donostiako Bulebarreko helmugan. Bailarako korrikalarien irudiak eta iritziak jasotzeko. Horiek guztiak batuko ditu Xabier Urzelaik asteleheneko *Harmailatik* kirol saioan. *Goiena.eus* atarian, bestalde, eguneko argazkiak eta sailkapenak egongo dira ikusgai.

ESANAK

**"Gorputzari eskatzen duena eman behar zaio, ahulaldirik ez izateko"**

KEPA LARREA | PRESTATZAILEA

**"Korrika egitera ohituta gaudenoi ere gogorra egiten zaigu Behobia"**

YERAY VARELA | PARTE-HARTZAILEA

**"Aurreko lana ondo egin ostean, disfrutatzeko gogoz noa"**

NEREA MENDIZABAL | PARTE-HARTZAILEA

FUTBOLA

# Lehen garaipenaren ostean, bigarrena gura du Aretxabaletak

M.B. | ARETXABALETA

"Irabazteko asmoz goaz Pasaiara. Lehia bakarra irabazi dugu, baina eskura izan ditugu beste hainbat garaipen". Berba horiekin egin du UDAko entrenatzaile Gorka Vallek zapatuko partiduaren laburpena: Beasaini irabazi ostean, bigarren garaipena gura dute.

**Hutsegiteak garesti ordaindu**

Sailkapenari begira urrezko puntuak izan ziren aurreko domekakoak, baina baita taldearen animoa igotzeko ere. "Lehen aldia izan da markagailuan aurretik egon garena. Bost partidutan galtzen hasi gara eta berdintzeko gai izan gara. Horrek erakusten du taldeak maila handia duela. Baina domekakoa pozgarria izan zen guztiondako", dio Vallek.

Hirugarren Mailan lehiatzeko gai dela erakutsi du UDAk denboraldiko partidu guztietan, bakarra irabazi duen arren. "Maila handiko taldeak daude eta edozein hutsegite garesti ordaintzen da. Beasainek bi gol sartu zizkigun hamar minutuan", esan du entrenatzaileak.

Orain arte falta izan zaien zortea alde izango duela espero dute aretxabaletarrek, eta sailkapenean gora egitea.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
Pasaia-UDA
Zapatua. 17:00. Don Bosco.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Beti Gazte-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Mastegi.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Zestoa-Bergara
Zapatua. 15:30. Iraeta.
Zumaiako-Antzuola
Zapatua. 15:45. Aita Mari.
Mondra-Tolosa
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Amaikak Bat
Domeka. 16:30. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA**
Aloña Mendi-Mondra
Zapatua. 18:00. Azkoagain.
Armagiñak-Arizmendi
Zapatua. 14:30. Unbe.
Soraluze-Bergara
Zapatua. 15:30. Ezozia.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Burumendi-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. San Miguel.
Tolosa-Mondra
Zapatua. 16:30. Berazubi.
Aloña Mendi-Intxurre
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 17:45. Ipintza.

**GAZTEAK**
Arizmendi-Mondra
Zapatua. 18:00. Ibarra.
Eibartarrak-Antzuola
Domeka. 16:30. Unbe.
Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Ipintza.

**EMAKUMEZKOAK ERREGIO.**
Mondra-Zumaiako
Zapatua. 18:30. Mojategi.
Arizmendi-Mutriku
Zapatua.16:00. Ibarra.

**EMAKUMEZKO GAZTEAK**
Bergara-Intxurre
Zapatua. 15:45. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Eskoriatza: atsedena

**GIPUZKOAKO LIGA**
Mondrate-Lauburu
Zapatua. 18:00. Musakola.

**SENIOR NESKAK**
Zaldibia-Eskoriatza
Egubakoitza. 22:15. Resti.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
Clavijo-MU
Zapatua. 20:00. Logroño.

**BIGARREN MAILA**
Erroibide-Natra Oñati
Zapatua. 19:00. Artaleku.

**GIPUZKOAKO SENIORRAK**
MU-Arri BKL
Zapatua. 18:00. Musakola.
Soraluce BKE-Cafes Aitona
Zapatua. 20:00. Labegaraieta.

**SENIOR 3. MAILA**
Ordizia-Aloña Mendi
Egubakoitza. 20:00. Majori.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Bera Bera-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Paco Yoldi.

**GAZTEAK, ERRENDIMENDU**
Soraluce BKE-Easo 99
Zapatua. 18:00. Labegaraieta.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAP. GIZON.**
Ford Mugarri-Urdaneta
Zapatua. 18:00. Iturripe.
Izarraitz Aloña-Hondarribia
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Aloña Mendi-Aiala Zarautz
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Elgoibar-Bergara
Zapatua. 11:30. Olaizaga.

**GAZTE MAILA GIZONEZKOAK**
Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Zarautz.
Saieko-Arrasate
Domeka. 12:45. La Salle.

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**
Leizaran-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Allurralde.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**
Ereintza A-Bergara
Zapatua. 16:00. Beraungo.
Aloña Mendi.Elgoibar
Zapatua. 16:00.Zubikoa.

**ATLETISMOA**

**BEHOBIA-DONOSTIA**
Domeka. 10:00. Behobia.

FUTBOLA

### Mondrak eta Aretxabaletak etxean jokatuko dute eta Antzuolak, Bergarak eta Aloña Mendik, kanpoan

Ohorezko Erregional Mailan diharduen Aloñak Lesakan jokatuko du Beti Gazteren kontra. Bestalde, Erregional Preferenteko Aretxabaletak Amaikak Bat hartuko dut Ibarran eta Mondrak Tolosarekin neurtuko ditu indarrak. Azkenik, Antzuolak Zumaian jokatuko du eta Bergarak, Zestoan.

ERRUGBIA

### Lehenengo postuarengatik lehiatuko da Kanpanzar Arrasate, Zaisa Txingudi taldearen kontra

Bikain hasi du Arrasateko errugbi taldeak denboraldia: jokatutako hiru partiduak irabazi ditu, eta lehen postuan dago, Zaisa Txingudi taldearekin berdinduta. Bada, aste bukaeran, nor baino nor gehiago arituko dira Irunen: norgehiagoka irabazten duena liderra izango da.

ESKUBALOIA

### Izarraitz Aloña Mendik eta Ford Mugarrik indartsu jarraitzen dute Euskadiko Txapelketan

Izarraitz Aloñak eta Ford Mugarrik irabazi egin zituzten aurreko aste bukaerako partiduak –31-19 oñatiarrek eta 21-25 arrasatearrek–, eta sailkapenaren goiko postuetan jarraitzen dute. Aste bukaeran etxean jokatuko dute biek ala biek: Ford Mugarrik Urdanetaren bisita izango du Iturripen eta Izarraitz Aloñak Hondarribiarena Zubikoan.

SASKIBALOIA

### Logroñon jokatuko du Mondragon Unibertsitateak bihar, zapatua, bigarren garaipena lortzea helburu

Ardoiren kontra etxean galdu ostean (67-71), bigarren garaipena lortu gura izango du MUk Logroñon, Clavijo taldearen kontra: zapatuan, 20:00etan. Iturripeko azken partiduan ondo jokatu eta lehen hiru laurdenak menderatu ostean galdu zuten Larreategiren mutilek. Joko onari eutsi gura diote, baina une erabakigarrietan markagailuan duten abantailari eusteko gai izan gura dute arrasatearrek.



5. ALDIA

# Kantari

# BADATOR!

Goiena Komunikazio Taldeak Debagoienean KANTARI karaoke-ikuskizuna bosgarren aldiz antolatu du.

Neguan egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoienean bizi bazara, **2004. eta 2008. urteen artean jaio bazinen (biak barne)** eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.

Gutxienez hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko ditugu.

## Izena emateko azkeneko eguna: azaroaren 10a

Eskoletan banatuko den txartela azaroaren 10a baino lehenago eraman behar da leku hauetako batera:
**zure eskolako idazkaritzara edo Goienaren Arrasateko egoitzara (Otalora Lizentziaduna 31).**

**Informazio gehiago:** 943 25 05 05
http://blogak.goiena.eus/kantari/

goiena

# KULTURA

# 'La alegría de la huerta' zarzuela: egiazko amodioaren garaipena

- Federico Chuecaren musika eta Antonio Pasoren eta Enrique Garzia Alvarezen libretoa du
- Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak lau emanaldi egingo ditu Amaia antzokian

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Hamaseigarrena izango da Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak taularatuko duena. Oraingoan, Federico Chueca (Madril, 1846-Madril, 1908) autorearen *La alegría de la huerta* aukeratu du Tere Gonzalezek, elkarteko zuzendariak. Aspaldi ikusi zuela dio; eta beste zarzuela batzuekin alderatuz horren ezaguna ez den arren, barregarria eta polita dela gaineratu du. Gonzalez ez da obrak errepetitzearen zalea. "Baina oso kontuan hartzekoa da ez dugula paper guztietarako gura beste bakarlari. Horregatik, bada, sarritan berdinak aukeratu behar izaten ditut, bakoitzaren egoera pertsonalak ere aukeraketa hori baldintzatuta. Batzuk gurasoak dira edo bestelako zailtasunak dituzte protagonista paperak eskatzen duen lanari heltzeko. Azken bi urteetan baritonoa izan da protagonista nagusia, baina, atsedena eskatu didanez, tenorea protagonista den obra baten alde alde egin dut honako honetan".

Taldearen egoerari eta ezaugarriei ondo datorkien zarzuela askorik geratzen ez dela dio zuzendariak, eta hogeigarrenera heltzeko obrarik aurkituko duen kezka ere azaldu du; hala ere, hastapenetako ilusio berarekin jarduten duela dio. "Beti esan dut ez dudala zarzuela nigatik egiten, ikasleei eskaini ahal diegun onena delako baizik. Aukera perfektua da eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko. Zarzuela gustatzen zait, bai; baina beste hainbat gauza ere bai. Urte bukaerarako bestelako ikuskizun bat prestatzen ari gara".



Aurtengo zarzuelaren entsegu batean; Tere Gonzalez zuzendaria atrilaren aurrean. | M. S.

ESANAK

**"Tenorea protagonista den obra bat aukeratu dut"**

**"Lau kantu gehitu dizkiot Chuecaren obra originalari"**

TERE GONZALEZ | ZUZENDARIA

**Maitasun istorioa, nola ez**

Zarzuela guztiek dute antzerako kontakizuna: bestelako gaiak jorratzen badituzte ere, amodio kontuak dituzte oinarri. XX. mendeko hasierako Murtziako Algezares herrian dago kokatuta; Fuensanta ama birjinaren erromeriaren bezperatan. Carola (Cristina Cubillo) neska gazte eta ederra da; eta haurtzaroko lagunak dituen Alegriasek (Enrike Altuna) eta Juan Francisco aberatsak (Josera Mendizabal) gorteiatzen dute. Alegriasi, bere gaindiezineko lotsak ez dio uzten Carolari bere maitasuna adieraztea; haren zoritxarrerako, Carolak Juan Franciscoren ezkontza eskaintzari baietza eman dio.

**BI ASTEBURUTAN LAU EMANALDI**

- **Azaroak 21, zapatua:** 19:30.
- **Azaroak 22, domeka:** 19:30.
- **Azaroak 27, egubakoitza:** 20:00.
- **Azaroak 28, zapatua:** 19:30.

**Obra originalari moldaketak**

Bi ordu irauten du –atsedenaldia barne– eta hiru zatitan banatutako ekinaldi bakarra du. "Ez da obra originala, abesbatzari protagonismo handiagoa ematea aldera, lau abesti gaineratu dizkiot; horien artean, *Alma de Dios* zarzuelako *Canción húngara*; *La leyenda del beso*-ko *La zambra;* eta *Canción de Murcia* kantu herrikoia. Musika ezaugarriei dagokienez, jotek pisu handia dute eta aipatzekoak dira askotariko estiloetako dantzak ere; Debako Kulunka dantza taldea izango dugu aurten gurekin".

**Sarrerak dagoeneko salgai**

Astelehena ezkero eskura daitezke sarrerak, 18 eurotan, *Arrasate.eus*-en, Arrasateko Udalaren webgunean eta Amaia antzokiko leihatilan.

Goiena Klubekoek zozketan parte hartzeko aukera dute 688 69 00 07 zenbakira *whatsapp*-a bidalita: KLUBA Zarzuela [bazkidearen zenbakia] testuarekin. Datozen asteetan, Arrasate Irratian ere zozkatuko dituzte sarrerak.

ALDIZKARIA ERABERRITUA
ARGIA
txikitik eragiten
BULTZA kazetaritza independentea
Harpidetu:
ARGIA astero, hilean 12 € baino ez.
ARGIA hamabostero, hilean 7 € baino gutxiago.
ARGIA hilero, hilean 4 € baino gutxiago.
✆ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza



Amaia antzokian egin zuten *Marina* obraren une bat; ezkerrean, Marije Ugalde bergararra. | IMANOL SORIANO

# 'Marina'-k Amaia antzokiko operazaleak ase zituen

Bihar, zapatua, ez dute 'Mozkorra parregarri' opera eskainiko Elgetan

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

"Oraingoan ahalegin handia egin dugu Madrilgo operan bogan dagoen abeslaria ekartzeko; eta azpimarratzekoa da Rokeren papera egin duen Andres del Pinoren presentzia. Uste dut agertokiko *animalia* dela eta Arrasateko publikoa konkistatu zuela. Bukatutakoan, asko zain zeuden hura agurtu eta autografoak eskatzeko; eta horrek harrotasunez bete gaitu", dio Ozenki elkarteko Manu Gallardok. Marinaren laguna izan zen bergararra ere gustura da. "Asko gozatu nuen Amaia antzokian arloko profesionalekin batera opera egiten. Esperientzia izugarria izan da horren lan konplikatua astebetean nola muntatzen den barrutik ikustea. Oso jende jatorra iruditu zait; taturako oso gertukoak", dio Marije Ugaldek.

### Azaroaren 21ean Azpeitian

Elgetan ziren bihar, zapatua, *Mozkorra parregarri* lana aurkeztekoak, baina taldeko barne antolakuntza arazoengatik bertan behera utzi dute emanaldia. "Sentitzen dugu. Aurrez sarrera erosi dutenekin jarriko gara gu harremanetan, dirua lehenbailehen itzultzeko", azaldu du Pikupe Produkzioak-eko Karlos Etxanizek.

Azpeitiko Soreasu antzokian izango dira azaroaren 21ean, 21:00etan. Pikupekoek ez dute, oraingoan, aurrez sarrerarik salduko. Antzokiko leihatilan 15 eurotan daude salgai.

# Bertsolari txapelketako azken final-laurdena Eskoriatzan jokatuko da

**IDOIA DAVILA** | ESKORIATZA

Igande honetan, azaroak 8, amaituko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren final-laurdenetako fasea. 17:30ean jokatuko da, Eskoriatzako kiroldegian, eta saio bakarrean lehiatuko da sei bertsolariz osatutako taldea.

Bertsolariak Beñat Lizaso, Manu Goiagana, Mikel Artola, Oihana Iguaran, Unai Agirre eta Unai Mendizabal dira. Sei bertsolari horietatik onena hurrengo fasera pasatuko da zuzenean. Hamazortzi bertsolari egongo dira finalaurrekoetan: final-laurdenetako bost irabazleak eta puntuazioaren araberako hamahiru bertsolari.

Saioan, bertsolariek, binaka, lau motatako hiruna bertso egin beharko dituzte. Bakarka, gaia emanik eta estilo librean beste hiru bertso bota beharko ditu bakoitzak.

### Bailarako ordezkaria, kanpoan

Aurreko asteko final-laurdenean txapelketatik kanpo geratu zen Maider Arregi oñatiarra, Debagoieneko ordezkari bakarra aurtengo lehiaketan.

Ormaiztegin jokatu zen azkenaurreko final-laurdena, eta 444 puntu lortuta kanporatua izan zen Arregi.

### Sarrerak erosteko

Igandeko saiorako sarrerak Eskoriatzako kiroldegian eros daitezke 11 euroren truke. Bazkideen eta haurren sarrerak egunean bertan leihatilan erosi ahal izango dira, 8 eurotan lehenak eta 4 eurotan umeenak. Sarean ere eskura daitezke, *www.bertsosarrerak.eus* atarian.



Maider Arregi eta lehiakideak Ormaiztegiko saioan. | GOIENA

# Iaz bezala, Oñatiko LPM taldeak egindako film laburrarentzako izan da sari nagusia

Hogei taldek hartu dute parte; bat izan ezik, gainontzekoak, herrikoak

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | OÑATI

Argi dago parte-hartzaileek aurreko zapatuko lehiaketan gogoz egin zutela lan, VI. Oñatiko Laburmetraien Rallyan aurkeztu zituzten lanen maila onari erreparatuta. Musikala izan da aurten proposatu dieten generoa, eta derrigorrez erabili beharreko objektua, berriz, herriko *Bomag* aldizkaria.



VI. Oñatiko Laburmetraien Rallyko parte-hartzaileak. | IMANOL SORIANO

Umorezko lan batekin eskuratu du LPM taldeak, bigarrenez, lehenengo saria. Bigarrena Dwingi Dwingi taldeak egindakoa izan da; hain justu, ikuslearen saria ere lortu du horrek. Hirugarren saria, ostera, Txantxiwood taldeari eman diote. Aipatutakoez gainera, badira beste bi sari ere: Kepa Aranburu eta Irene Balzategi izan dira aurtengo aktore onenak.

### Ikusleekin ere pozik

Irrikan zeuden ikusleak lanak ikusteko; horren erakusle da Santa Ana aretoan egin zuten erakustaldirako 120 gonbidapenak bi minutuan agortu zirela. Antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete guztiei. Aurtengo film laburrik onenak *Goiena.eus* atarian daude ikusgai.

# Valle-Inclanen antzezlan bat domeka honetan Bergarako Zabalotegin

'Lukurreria, lizunkeria eta heriotzaren erretaula' obra taularatuko du Eromen Produkzioak taldeak

**IDOIA DAVILA** | BERGARA

Domekan, azaroak 8, *Lukurreria, lizunkeria eta heriotzaren erretaula* antzezlana eskainiko du Eromen Produkzioak taldeak Bergarako Zabalotegi aretoan.

### Valle-Inclan, euskaraz

Valle-Inclan dramaturgoaren obra bat da, euskarara itzulita. Istorioaren helburua Don Pedroren etxera iristea da, eta, ibilbide horretan, lotura bat duten hiru istorio kontatzen dira. Electus itsua eta Maria Virula dira hiru errealitate horien kontalariak.

Amancay Gaztañaga da antzezlanaren zuzendaria, eta hark egin du itzulpena. Gaztañagak zuzentzen du Zestoako Interpretazio Eskolatik sortutako antzerki taldea. 2014an sortu zenetik, William Shakespeare-ren, Oscar Wilde-ren eta Anton Txejov-en obrak taularatu ditu Eromen Produkzioak. Taldearen esanetan, Michael Txejov-en eta William Layton-en teknikak jorratzen dituzte eta obrak euskaratuak egon ohi dira.

### Sarrerak

Antzezlana Bergarako Kultura zerbitzuak antolatu du eta sarrerak 8 euroren truke erosi ahal izango dira Zabalotegi aretoan bertan antzezlana hasi aurretik.



Hizlariak eta aurkezlea saioaren amaieran | M.T.

# Zientziak eta umoreak bat egin dute 'Wolfram deuna' ikuskizunean

Bakarrizketa saioa egin zuten eguaztenean Bergarako bilkuren aretoan, Elhuyarrek antolatuta

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Bergarako Zientzia Astearen baitan, *Wolfram deuna: ekitaldi fisiko, kimiko, analogiko eta antologikoa* izeneko saioa egin zuten osoko bilkuren aretoan, Elhuyar fundazioaren eskutik.

Bertan, zortzi pertsona atera ziren bakarrizketak egitera, guztiak zientzialariak edo zientziarekiko lotura estua dutenak euren lanean. Zientziaren gaia hartuta, aretoan bildutako jendeari barre eginarazi behar zioten, eta bakoitzak bost minutu izan zuen horretarako. Elhuyarko kide eta *Zientzia.eus* webgunearen arduradun Alaitz Otxoa de Eribe aritu zen aurkezle lanetan. Hizlariak, berriz, Ibon Cancio, Koldo Gartzia, Ines Garmendia, Josu Lezameta, Josu Lopez-Gazpio, Uxune Martinez, Amaia Portugal eta Idoia Torregarai izan ziren.

Osoko bilkuren aretoa bete egin zen ekitaldirako, eta bertaratutakoek, berrogeita hamar pertsona baino gehiagok, gogotik barre egin zuten egun batez umorista bihurtutako zientzialariekin. Besteak beste, Ergelen Teoria edota zientzialarien eta kazetarien arteko erlazio konplikatua izan zuten hizpide, proiektoreko irudi xelebreekin lagunduta.

Ekitaldiak ordubete pasatxo iraun zuen, eta horren ostean luntxa egin zuten.

### Zientzia, gertuago

Antolatzaileak eta parte hartzaileak pozik zeuden, saioaren amaieran, ikusleengandik jasotako harreragatik. Bigarren bakarrizketa egin zuen Josu Lopez-Gazpiok, Kimika Aplikatuan doktorea eta EHUko irakaslea denak; esan zuen "zientzia herritarrei gerturatzeko modu berri eta polita" izan zela *Wolfram deuna*.

Alaitz Otxoa de Eribe aurkezle eta arduradunak azaldu zuenez, saioa egiteko Bergara aukeratu zuten Elhuyar anaiek bertan lortu zutelako wolframa isolatzea. Euskal Herriak elementuen taula periodikoari eginiko ekarpen bakarra da wolframa; hori dela eta, elementu hori "jainkotu" egin nahi izan dute Elhuyar fundaziotik.

### Zapatuan egun handia

Bihar, zapatuan, Zientzia Astearen baitako egun handia izango da. Goizean zehar, zientziarekin eta teknologiarekin loturiko hainbat ekintza eta tailer izango dira: *geocaching*-a, *Practice your music,* robotika azoka, droneen erakusketa... (Informazio gehiago Bergarako orrietan).

# Berrikuntzekin dator aurtengo 'Kameratoia' Durangoko Azokara

**M.T.** | DEBAGOIENA

*Kameratoia*, Euskal Herriko XI. ikus-entzunezkoen rallya, Durangoko Azokako Irudienea gunean izango da abenduaren 5etik 8ra. Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen du ekimena, eta aurten, nobedade modura, parte-hartzaileek 48 orduren ordez 50 izango dituzte euren lanak ekoizteko, azokaren mende erdiari keinu eginda.

18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa da. Izena azaroaren 30era arte eman daiteke, *www.kameratoia.com* gunean eskuragarri dagoen fitxa osatuta.

Parte hartzaileei abenduaren 5ean esango diete zein izango den landu beharreko gaia, eta zeintzuk lanek izan beharreko ezaugarriak, eta ordutik aurrera hasi ahal izango dira gehienez sei minutu iraun beharko duten film laburrak ekoizten. Lanak abenduaren 7an entregatu beharko dituzte, 14:00ak baino lehen.

### Tokikom saria

Proiekzioa eta sari banaketa ekitaldia abenduaren 8an izango da Durangoko Zugaza zineman. Lehen saria 1.200 euro izango da eta bigarrena, 900 euro. Aurten, lehenengoz, tokiko komunikabideen elkarteak emandako 600 euroko Tokikom saria ere izango da.

# Pirritx, Porrotx eta Marimotosen 'Amalur' hilaren 21ean Eskoriatzan

**M.T.** | ESKORIATZA

Azaroaren 21ean, zapatua, Eskoriatzako eta inguruko herrietako haurrek hitzordu berezia izango dute; izan ere, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo hirukote famatuak ikuskizuna eskainiko du. Manuel Muñoz kiroldegian izango da emanaldia, arratsaldeko bost eta erdietan hasita. Eskoriatzako Udala, Arizmendi Ikastola eta Luis Ezeiza guraso elkartea izan dira antolatzaileak.

Pailazoak ikuskizun berria aurkeztera datoz Eskoriatzara, *Amalur* izenekoa, lehen aldiz izango dena Debagoienean. Bertan, baserriaren eta naturaren gaia landuko dute; izan ere, Marimototsek baserritar izan nahi duela erabaki du, eta Ilargi lagunaren ondoan dihardu ikasten. Ilargi, hain zuzen, haurdun dago, eta umea izango du aurki. Hori dela eta, Pirritx, Porrotx eta Marimotos alboan izango ditu, laguntzen.

### Sarrerak 13an salgai

Hurrengo egubakoitzean, azaroak 13, jarriko dituzte salgai ikuskizun horretarako sarrerak. Kiroldegian bertan izango da horiek eskuratzeko aukera, bakoitza sei euroko prezioan.


Goiena Klubeko azaroko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**



**40 hazbeteko telebista**

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



**Liburua**
**Andoni Urzelairen azken liburua, ' Karanbola toxikoak '**
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua



**Sarrerak**
**Arrikrutz kobetarako sarrerak**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz



**Otarra**
**Bidezko merkataritzako produktuak**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

**PARTE HARTZEKO:**
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!




Irure, Kalaña taldearen lokalean, Aretxabaletako kuartel zaharrean.

IDOIA DAVILA

**Josu Irure** | Musikaria

# "Abesti propioak sortzerakoan, lan zailena letra esanguratsuak idaztea izaten da"

**IDOIA DAVILA** | ARETXABALETA

Josu Irure (Aretxabaleta, 1998) ikaslea, musikaria eta futbol atezaina da. Batxilergo humanistikoko bigarren urtea egiten dabil, eta bi musika-taldetan bateria jotzen du; Kalaña du izena horietako batek. Horrez gain, Eskoriatzako areto futboleko gazteen taldean atezaina da Josu.

**Zein motatako musika egiten duzue?**
Ez dugu berez estilo bakar batera jotzen, gure estiloa egiten dugu eta abestiak irteten diren moduan irteten dira. Hala ere, bertsioak jotzen ditugu, eta horiek bai izaten dira punk edo rock-and-roll estilokoak.

**Musika eskolan ikasitakoak lagundu dizu?**
Hemengo musika eskolan solfeoa ikasi behar zen eta gero instrumentua. Txikitan tronpetarekin hasi nintzen eta gero bateriara pasatu nintzen, solfeoa bukatu nuen eta orain bateriarekin bakarrik jarraitzen dut. Eta bai, asko ikasi dut musika eskolan. Lehenengo, perkusioa ikasten da pixka bat, eta ondoren, pixkanaka gauzak gehitzen zaizkio norberaren estiloa garatu arte.

**Zaila da abesti propioak sortzea?**
Bai, oso zaila da. Lehenik, letra bat idatzi behar da, eta ezin da edozein izan. Indartsua izan behar du, ezin dugu esan edozeinek esan ahal duena. Abestiak kontatzeko zerbait izan behar du, esangura bat. Behin letra edukita, jendeak gustura entzungo duen musika bat sortu behar da, baita guk gustura joko duguna ere, jakina.

**Kontzertuak eskaintzen dituzue?**
Askorik ez, irteten direnak. Ez dakit noiz hemen, hurrengoan hor... Batzuetan ere egin izan ditugu kontzertuak lagunen artean; beste talde batzuekin bildu eta kontzertu klandestino bat eman. Lokaletik Kalera ekitaldian ere parte hartu genuen.

**Zergatik zaude bi musika-taldetan?**
Kalaña txikitako lagunek sortu genuen orain dela hiru urte edo. Arrasateko lagun batzuek ere eskatu zidaten eurekin bateria jotzeko, eta han ibili nintzen. Azkenean, hori utzi egin nuen, Arrasateraino joan behar nuelako. Baina hemen, gure lokalean, hainbat musikari gabiltza, eta horiekin bertsioak jotzen hasi nintzen. Azkenean, horrela hasi ginen eta orain bi taldetan nabil bateria jotzen, nahiz eta azken honek oraindik ez duen izenik.

**Musikari moduan zer gustatuko litzaizuke gehien?**
Jendeak gure musika entzutea, hori gustatuko litzaidake gehien. Orain, abesti batzuekin maketa bat egin nahi dugu, eta ondo egongo litzateke jendeak entzutea eta jakitea zer egiten dugun.

**Ezer gehiago egiten duzu musikarekin lotuta?**
Proiektu puntualak burutzen ditut. Adibidez, ikas bidaiarako dirua lortzeko, gelakoen artean abesti bat sortu genuen eta Aratusteetarako aurkeztu genuen. Irabazi egin genuen.

**Nondik ateratzen duzu entrenatzeko denbora?**
Topera ibiltzen naiz batzuetan, baina denbora badago. Ondo antolatzea da gakoa, eta, azkenean, egiten dudana gustuko badut, egin dezaket, denbora edozein lekutatik aterako dut.

**Zergatik egiten duzu areto futbola?**
Aurten hasi naiz areto futbolean; izan ere, ez nuen kirolik egiten eta 11ko futbolak ez nau horrenbeste erakartzen. Zerbait egin behar nuen, eta atezain hasi nintzen probatzen areto futbolean. Taldea gustatu zitzaidan eta hor jarraitzen dut.

**Ikasten jarraituko duzu batxilergoa amaitutakoan?**
Bai; aurten bukatuko dut batxilergo humanistikoa eta oraindik ez dakit ziur zer ikasiko dudan, baina unibertsitatera joateko asmoa dut. Filosofia ikastea, adibidez, gustatuko litzaidake.

**Zertan zentratuko zara gehiago?**
Ikasten egoteagatik ez dut alde batera utziko gustatzen zaidana. Saiatuko naiz bateria jotzen, baina baita ikasten ere. Ikasketak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit, musikaz bizi izatea ez da-eta lan erraza, eta oreka bat bilatu nahiko nuke.

### PERTSONALA

**Liburu bat:** Evaristoren *Cuatro estaciones hacia la locura*.

**Amets bat**: Jendeak guk egindako musika entzutea.

**Aretxabaletako txokorik maiteena:** Bidegorriaren zona.

**Kontzertu bat eskaintzeko leku bat:** Bilboko jaiak.

**Pelikula bat:** *La jungla de cristal*; bost pelikulak.

**Musika-talde bat:** Eskorbuto.

**Futbol talde bat**: Athletic.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** 65 metro koadroko etxebizitza salgai Arruriaga kalean. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 943 76 93 85

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekua ere bai. Guztiz jantzia. Berokuntza eta igogailuarekin. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. Kontratuarekin. 639 17 49 52

**Jaka.** Bost pertsonendako apartamentua ematen da errentan Jakan, eskiatzeko garaian. Bi logela, garajea eta trastelekua. Gasezko ur beroa eta berokuntza indibiduala. Eguzkitsua. 2.200 euro -abendutik martxora- gehi gastuak. 688 66 96 16

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzo auzoan. 635 71 06 16

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. 634 04 17 30

**Arrasate.** Etxebizitza handia behar dut errentan, erdigunean. 666 68 00 04 (Carmen) edo 677 22 71 52 (Sara)

**Arrasate.** Logela bateko apartamentu baten bila nabil. Erdigunean. 400 euro ordaintzeko gertu. 610 99 42 03

**Bergara.** Erretiratu bikote batek etxebizitza behar du errentan, elbarriendako egokitutako bainugelarekin eta igogailuarekin. 632 77 35 38

**Etxe bila.** Neska batek Oñatin, Zubillagan edo Arrasaten etxebizitza hartuko luke errentan. 666 83 22 01

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Bolun. 24.000 euro. Telefonoa: 943 76 93 85

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**
Ile-apaindegia saldu edo errentan ematen da, negozioari ezin diogulako kasu egin.
650 54 69 12

### 302. ERRENTAN EMAN

**BERGARA**
Zapelaitz taberna errentan ematen da.
943 76 12 86

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Administrazio laguntzailea.** Erdi mailako administrazioko gradua daukan neska lan bila. Gidabaimena eta autoa ditut. 629 98 42 56

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Arrasate.** Emakumea lan egiteko gertu: umeak edo nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen. Orduka edo egun osoan zehar. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 843 63 09 66

**Arrasate.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta hiru urtez nagusiak zaintzen aritu izanaren egiaztagiri eta erreferentzia onak. Bestela, eraikuntzan ere lan egingo nuke. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 678 25 95 46

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntzako ikaslea, esperientziaduna, haurrak eta nagusiak zaintzeko prest arratsaldez eta asteburuetan. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 645 70 23 37

**Bergara.** Emakume arduratsua, informe onak dituena, gertu garbiketa lanetan aritzeko. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 696 27 25 34

**Bergara.** Irakasle ikasketak burutzen ari naiz eta umeak zaindu edo goizetan eskolara eramateko gertu nago. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 636 46 76 33

**Debagoiena.** Antzuolan bizi den emakumea, etxeko lanak egiten edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen lan egiteko prest. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 672 29 74 58

**Debagoiena.** Arrasaten bizi den emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egingo nuke. Ordutegi aldetik ez daukat inongo arazorik. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 629 06 94 11

**Debagoiena.** Astean zehar, 10:00etatik 16:00etara bitartean, nagusi edo umeak zaindu eta enkarguak egin, jatekoak prestatu, garbiketak egin eta abarrak egingo nituzke. Esperientziaduna. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 634 26 10 92

**Debagoiena.** Emakumea gertu egun osoz edo orduka garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, elkarteak eta abar. 645 58 71 61 (Liliana)

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz lan egiteko. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 632 51 06 26 (Olga)

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Umeak zaintzen esperientzia handia dut. Nagusiei laguntzen, etxeko lanak egiten, tailerrean edota tabernan ere egin izan dut lan. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 647 10 58 72

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen gizona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat lan horretan. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. 631 17 16 35

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea naiz eta zaintza lanak eta garbiketak egiteko gertu nago. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 656 70 29 29

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- San Antón Abad 71 $m^2$, 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €.
- Aranerreka 79$m^2$, 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850 €.
- Koldo Eleizalde, 74 $m^2$+30$m^2$ ganbara, duplexa egiteko aukera 170.000 €.
- Koldo Eleizalde, 76 $m^2$, 3 logela. Terrazarekin. 115.000€ NEGOZIABLEA.
- Koldo Elelizalde 87$m^2$, 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztua. 210.000 €.
- Bolun 129 $m^2$ko Lokala salgai. Hornitua. 95.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Burdiñate, 93$m^2$, 3 logela, berogailua, igogailua. Garajea barne. 276.000 €.
- Masterreka 72 $m^2$, duplexa. 150.000 € ESTREINATZERA. AUKERA ONA.
- Simon Arrieta 68 $m^2$, 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132. 600 €.
- Simon Arrieta 82 $m^2$, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Zubieta 110 $m^2$, 3 logela. Ortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Zubieta 125 $m^2$, terraza eta 2 horturekin. Bi etxe egiteko aukera 192.000 €.
- San Pedro 73$m^2$, 3 logela. 13 $m^2$ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Pedro 90 $m^2$, 4 logela. 95.000 € AUKERA ONA.
- Zabalotegi, 80 $m^2$, 2 logela, berriztua. 156.263 €.
- Zabalotegi, 62 $m^2$, 3 logela. Berrizteko. 80.000 € .
- Artekale 108 $m^2$, 3 logela. 130.000 € OSO OSO NEGOZIABLEA.
- Bidekurutzeta, 58 $m^2$, 2 logela. 32.000 € AUKERA ONA.
- Ibargarai 57 $m^2$, 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Urteaga 109 $m^2$, 4 logela. Galeriarekin oso eguzkitsua. 216.364 €.
- Urteaga 75 $m^2$. Berrizteko. 75.000 €.
- San Antonio 86 $m^2$. 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Martoko 93 $m^2$, 3 logela, trastelekua. 155.000 €.
- Martoko 140 $m^2$, duplexa, eraikin berria. Eguzkitsua. 225.000 € AUKERA ONA.
- Zubiaurre 81 $m^2$, 2 logela, trastelekua. 73.000 € PREZIO JEITSIERA. AUKERA ONA.
- Zubiaurre 104 $m^2$, 2 logela. Igogailua. Trastelekua, 185.000 € PREZIO JEITSIERA.
- Ibarra, 62 $m^2$, 3 logela. Trastelekua. 90.000 € NEGOZIABLEA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60 $m^2$, 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria 233$m^2$. Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000€.
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85$m^2$. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61$m^2$. 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA
- Osintxu 70$m^2$. 2 logela eta igogailua. 62.000€ AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 57 $m^2$. 2 logela. Oso ondo. 97.000€.
- Errekalde 94 $m^2$. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Sagasti 140 $m^2$, duplexa. 250.000€.
- Sagasti 90 $m^2$, 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 199.000€.

**ELGETA:**
- Gudarien Bidea, 75 $m^2$, berrizteko. 72.000€ AUKERA BIKAINA.
- Torrealdea 77 $m^2$. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 $m^2$ + 45 $m^2$ garajea + 90 $m^2$ lursaila.

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxeko lanak egiten eta bertan jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 662 43 08 54

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abarrean. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 631 49 94 96 edo 688 85 44 78

**Debagoiena.** Etxeko langile moduan eta garbiketak egiten esperientzia duen neska lan bila. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 634 72 83 83

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 695 73 28 96

**Debagoiena.** Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrak. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

**Debagoiena.** Mutila garbiketa lanetarako gertu. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 632 04 69 77

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, banaketa lanetarako, etxeen mantenurako edo baserriko lanetarako. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 634 14 36 65

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 685 64 85 64

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketan, etxeko lanak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 717 15 01 69

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta etxeak edo enpresak garbitzen egiten lan egingo nuke. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 685 77 66 21

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen esperientzia daukat eta lan bila nabil. Berehala hasteko gertu. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 634 04 17 30

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erreferentzia onak aurkez ditzaket. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, etxeak garbitzen edo ospitalean gaixoekin egoten lan egingo nuke. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 602 57 32 75

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, hoteletan zerbitzari, garbiketa lanetan eta abarrean esperientzia daukat eta lan bila nabil. Berehala hasteko gertu eta ordutegi zabala. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 631 15 76 23

**Debagoiena.** Nagusien laguntzan lan egingo nuke. Garbiketan, erosketak egiten edota jana prestatzen ere bai. Janaria manipulatzeko titulua daukat eta sukaldaria naiz. Elkarteak garbitzeko ere gertu nago. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 625 28 38 11

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta atsegina, nagusi eta umeak zaintzen esperientzia duena, etxeko langile moduan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita orduka garbiketak egiteko ere. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 602 16 00 28

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna gertu umeak zaintzeko, nagusiekin egon eta paseoan laguntzeko edo orduka garbiketa lanak egiteko. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 671 18 50 83

**Debagoiena.** Neska arduratsuak lan egingo luke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita atariak garbitzen ere. 602 07 95 55

**Debagoiena.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, ordutegi zabala dut. Gidabaimena eta auto partikularrarekin. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 629 98 42 56

**Debagoiena.** Neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluduna, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 617 20 59 43

**Debagoiena.** Neska gertu etxean nagusiak zaindu edota ospitalean gauak pasatzeko. Geriatria tituluduna naiz. Autoa daukat. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko edota nagusiak zaintzeko. Jardun osoz zein orduka. 662 68 56 03

**Debagoiena.** Orduka edo egun osoz lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edota garbitzen. 602 64 68 17

**Debagoiena.** Zaintza lanetan eta garbiketak eta abarrak egiten lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia daukat. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 602 07 95 55

**Emakume euskalduna lanerako prest.** Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko -sukaldari moduan eskarmentuarekin- eta umeak zaintzeko prest. Autoa eta gidabaimenarekin. 690 86 46 80

**Gidari lanak.** Bergarako mutila gidari moduan lan egiteko gertu. Gidabaimen guztiak daukat. 665 73 90 98

**Haurrak zaindu.** Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Ordutegi zabala. Gidabaimena eta autoarekin. 629 98 42 56

**Lan bila.** Zerbitzari moduan lan egingo nuke. Hiru urteko esperientzia dut. Ume eta nagusiak zaindu edo etxe eta abarren garbiketak ere egingo nituzke. Ordutegi zabala. Debagoienean edo baita Eibarren ere. Eskerrik asko. 676 44 85 58

**Oñati.** 29 urteko neska, Haur Hezkuntzako ikasketekin, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Goizez, arratsaldez edo orduka. Autoa daukat. 664 53 28 56

**Oñati.** Esperientziadun emakume euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko prest. 645 00 72 03

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko bigarren mailako gaztelerako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Esperientziaduna. 669 87 24 54

**Bergara.** Goi mailako eskola partikularrak jaso nahi ditut. 20:30etik aurrera deitu mesedez. 943 76 03 75

**Frantsesa.** Frantseseko eskola partikularrak hartuko nituzke Oñatin. 635 71 29 77

### 502. EMAN

**Bergara.** Kimikan lizentziatua naiz. Kimika, fisika eta matematika eskola partikularrak ematen ditut. Batxilergo eta DBH mailatan. 669 51 08 46

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astakumea.** Astakumea salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 20 59 19

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra galdu Elosun.** Elosun Border Collie arrazako txakurra falta da. Zuri-grisa da eta begi bat urdina eta bestea urdin -marroia dauzka. Astebete bada falta dela. Lepokorik eta txipik ez dauka. Norbaitek ikusi badu edo jaso badu, faborez hots egin ondoko telefonora: 688 92 00 86

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Autorako jarlekua.** Umeak autoan eramateko 3. taldeko jarlekua erosiko nuke. Ez dut asko ordaindu nahi. 656 71 56 40

**Kaxoi flamenkoa.** Bigarren eskuko kaxoi flamenkoa erosiko nuke. 628 51 22 78

**Lingoteak.** Urrezko eta zilarrezko lingoteak erosiko nituzke. 656 75 76 98

### 805. TRUKATU

**Hizkuntza trukea.** 21 urteko neska frantsesak frantsesa-gaztelera hizkuntza trukea egin nahi du, jendea ezagutu, kalera atera,...eta ondo pasatzeko. Whatsapp (Emilie): 0033 680 54 26 52

### 806. GALDU

**Pultsometroa.** Polar M400 pultsometroa Aretxabaletan galduta. 688 69 15 16

**Telefonoa Arrasaten.** Urriaren 27an Garagartzarako bidegorrian mugikorra galdu nuen Sansung S3 markakoa da eta funda zuria du, zuhaitz baten marrazkiarekin. Topatu duenari Arrasateko BAZ-en uztea eskertuko nioke, telefonoa ez bada, txartela behintzat, argazkiak errekuperatzeko.

### 808. BESTELAKOAK

**Alergia.** Fruitu lehorrei alergia dioten pertsonekin harremanetan jarri nahi nuke. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono hauetara: 635 75 54 53 (Mikel) edo 943 04 46 07

**Lursaila errentan hartu.** Bergara eta inguruetan lursaila hartuko nuke errentan. Ahal bada urarekin. Deitu 14:00etatik aurrera mesedez. Interesatua egonez gero deitu ezazue telefono honetara: 617 10 22 37

## ZORION AGURRAK



LEINTZ GATZAGA
**Maren Urrutia Fernandez**
Azaroaren 11n, 8 urte. Zorionak, printzesa, aitatxoren eta amatxoren partetik. Ondo pasatu. Mila muxu eta besarkada.



BERGARA
**Aner Larrea Gantxegi**
Azaroaren 10ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko 7 urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat etxekoen eta, bereziki, Noraren eta Unaxen partetik.



BERGARA
**Ioritz Piñeiro Gartzia**
Azaroaren 8an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako, Ioritz, etxekoen eta lagunen partetik.



BERGARA
**Manex Goitia Pagaldai**
Azaroaren 7an, 2 urte. Zorionak, maitxia! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta besarkada handi bat familia guztiaren eta, bereziki, aitatxoren eta amatxoren partetik! Muxu handi bat!



BERGARA
**Ibai Fernandez**
Azaroaren 7an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzea. Patxo eta besarkada handi bat, familia danaren partetik.



ARRASATE
**Iradi Agiriano**
Azaroaren 7an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat etxekoen partetik.



DONOSTIA
**Maider Ayukar**
Azaroaren 6an, urtebete. Zorionak, printzesa! Bergara eta Orio aldetik txokolatezko muxu pila zuretako. Izar, Ekaitz, Oier, Elene, Amets eta Malen.



BERGARA
**Maddi Arando Arbelaitz**
Osintxuko Maddik azaroaren 6an, 8 urte. Zorionak, *guapa*! Muxu potolo bat etxekon danon eta bereziki Xabaten partetik. Ondo pasatu eguna!



ANTZUOLA
**Nagore Sanchez Sanchez**
Azaroaren 6an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, poxpolin! Disfrutatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat zure senideen partetik.



OÑATI
**Beñat Erostarbe Arriaran**
Azaroaren 5ean, 4 urte. Zorionak, Beñat! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu asko familixa danaren partetik.



BERGARA
**Naia Ibarzabal Aranzabal**
Azaroaren 5ean, 3 urte. Zorionak, printzesa. Egun politta pasatu lagun eta familia artean. Muxu handi bat gure sorgintxoari.



ARRASATE
**Hodei Dominguez Gomez**
Azaroaren 4an, 6 urte. Zorionak, potxoki! Muxu asko, etxekoen partetik eta egun polita pasatu! Maite zaitugu,txapeldun!



OÑATI
**Ekain Gereñu Arregi**
Azaroaren 4an, 5 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta besarkada eta patxo pila bat etxeko danon partetik!



OÑATI
**Libe Palacin Uribe**
Azaroaren 4an, 4 urte. Zorionak, Libe, eta urte askotarako! Oso ondo pasatu zure eguna. Zure familiaren partetik.



ARRASATE
**Izadi Goya Urain**
Azaroaren 4an, 4 urte. Muxu handi bat familiaren partetik. Ondo pasatu!



ARRASATE
**Garazi Azkarate Ojanguren**
Azaroaren 4an, 7 urte. Zorionak, etxekoen partetik! Lide, amatxo, aitatxo, lehengusu Oihan eta Hegoi, aitaita-amamak eta osaba-izebak.



ARRASATE
**Hodei Martin Fuentes**
Azaroaren 3an, 9 urte. Zorionak Ekainen eta Nahiaren partetik! Muxu bat.



BERGARA
**Mikel Fernandez Castillejo**
Azaroaren 3an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna, familia osoaren partetik. Muxu handi bat.



ARETXABALETA
**Ioritz Madinabeitia Calleja**
Azaroaren 3an, 4 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo potolo bat guztion partetik.



OÑATI
**Egoitz Urkia Murua**
Azaroaren 3an, 35 urte. Zorionak eta urte askotarako familia osoaren partetik.



OÑATI
**Ane Alberdi Gil**
Azaroaren 2an, 5 urte. Zorionak, sorgintxo. Konturatu barik bost urte bete dozu. Oso ondo pasau zure urtebetetzian. Patxo potolo-potolo bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Martin Abarrategi Segura**
Azaroaren 2an, 3 urte. Zorionak, Martin! Jarraitu orain arte bezala, saltsa guztietako errege izaten. Etxekoen partetik, ondo-ondo pasatu. Mila patxo, maitia!



ESKORIATZA
**Xabat Gonzalez Idigoras**
Azaroaren 2an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto pasatu eguna eta muxu erraldoi bat etxekoen partetik!



OÑATI
**Ane Arregi Orueta**
Azaroaren 2an, 2 urte. Zorionak, potxoli! Bi urte jada, eh! Ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat familixa danaren eta, bereziki, Iraiaren eta Aiantzeren partetik. Mua!



ARETXABALETA
**Alaitz Agirre Aldalur**
Azaroaren 1ean, 13 urte. Zorionak, Alaitz, familixa guztiaren partetik! Bereziki Joanesen, Maierren, aitatxoren eta amatxoren partetik. Patxo handi bat eta topera disfrutatu zure eguna!



OÑATI
**Enzo Elizburu**
Urriaren 31n, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Izugarri maite zaitugu. Muxu potoloak etxeko guztien eta, bereziki, Marioren partetik.



ARRASATE
**Pablo Rodriguez Sancho**
Urriaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo. Zure guraria bete dadila! Jarraitu orain arte bezain ondo. Muxu asko Yuneren eta Unairen partetik.

**ZORION AGURRAK TELEBISTAN**
GOIENA TELEBISTA | KORAPILO
ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA



25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## ASTEA GOIENAN


JAGOBA DOMINGO

### Olatz Zugastiri egindako elkarrizketa

*Ur goiena, ur barrena* diskoa kaleratu du Olatz Zugastik, eta *Kulturrizketak* saioan bere ibilbideari buruzkoak eta lan berriari lotutako kontuak azalduko dizkio Larraitz Zeberio aurkezleari. Abenduaren 6an Plateruenan aurkeztuko du diskoa.
**'Kulturrizketak'**
Eguena, 22:00


IMANOL SORIANO

### 'Kantari' motorrak berotzen hasi da

Debagoieneko karaoke ikuskizunaren grabazioak urtarrilean hasiko dira, eta egunotan 7 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek aukera daukate izena emateko. Motorrak berotzeko, 2013ko *Kantari*-n grabatutakoak ikusi ahal izango dira aurrerantzean.
**'Kantari'**
Zapatua, 10:30

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 6**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** EKT
**13:00** Korapilo
**13:30** Erreportajea: Gernika-Lumo rallya
**14:00** Hurbilean
**14:30** Berriak
**15:00** EKT
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Lurrean bizi
**17:30** Ikusi irratia
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Muga barik
**19:30** EKT
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**ZAPATUA, 7**

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:05** EKT
**12:30** Harmailatik
**13:00** Osoko bilkura: Arrasate
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Muga barik
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:05** EKT
**16:35** Lurrean bizi
**17:00** Korapilo
**17:30** Kantari
**18:00** Harmailatik
**18:30** Hurbilean
**19:00** Debagoiena zuzenean
**20:00** Astea iruditan
**20:05** Muga barik
**20:30** Amaia DJ
**21:00** EKT
**21:30** Harmailatik
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:05** Osoko bilkura: Arrasate
**00:00** Muga barik
**00:30** Amaia DJ
**01:00** Debagoiena zuzenean
**01:30** Astea iruditan
**01:35** Artekale
**02:35** Amaia DJ
**03:00** Astea iruditan

**DOMEKA, 8**

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:20** Astea iruditan
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Ikusmira
**12:30** Ertzak
**13:00** Debagoiena zuzenean
**14:00** Astea iruditan
**14:05** EKT
**14:30** Osoko bilkura: Arrasate
**15:30** Muga barik
**16:00** Debagoiena zuzenean
**17:00** Astea iruditan
**17:00** Korapilo
**17:30** Kantari
**18:00** Zaindu zaitez
**18:30** Muga barik
**19:00** Kontzertua: Organo erromantikoa
**20:00** Harmailatik
**20:30** Debagoiena zuzenean
**21:30** Astea iruditan
**21:35** Lurrean bizi
**22:00** Amaia DJ
**22:30** EKT
**23:00** Debagoiena zuzenean
**00:00** Astea iruditan
**00:05** Harmailatik
**00:30** Euskal Herriko dantza txapelketa

**ASTELEHENA, 9**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Erreportajea: Urria, odolkia
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Harmailatik

**MARTITZENA, 10**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Ikusi irratia
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Hurbilean
**17:30** Ikusmira
**18:00** Ertzak
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Kantari
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Muga barik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak
**01:30** Muga barik

**EGUAZTENA, 11**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Muga barik
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Muga barik
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Erreportajea: Urria, odolkia
**17:30** Ikusmira
**18:00** Zaindu zaitez
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Muga barik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** KMK 2016: Aurkezpen ekitaldia
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Muga barik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUENA, 12**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** KMK 2016: Aurkezpen ekitaldia
**13:00** Artekale
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** KMK 2016: Aurkezpen ekitaldia
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Artekale
**18:00** Erreportajea: Urria, odolkia
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Kantari
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Kulturrizketak
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** KMK 2016: Aurkezpen ekitaldia
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### 'Gau arabiarra' antzerkirako sarrerak zozketatuko dituzte

Amaia antzokian izango da datorren asteko domekan, hilak 15, 19:30ean, Hika teatroaren *Gau arabiarra* antzezlana. Ikuskizunera joateko sarrerak nahi izanez gero, deitu 954 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia @goiena.eus* helbidera zozketan parte hartzeko. Animatu, eta zorte on!

### Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Astean zehar irratian izandako elkarrizketak berreskuratuko dituzte asteburuan 10:00etan. Besteak beste, domekan izango den Behobia-Donostia lasterketarako aholkuak jasoko dituzte Athlonen eskutik, eta Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarrek hainbat lan eskaintzaren berri emango du.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 6** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **Zapatua, 7** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Domeka, 8** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **Astelehena, 9** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Martitzena, 10** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguaztena, 11** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Eguena, 12** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 6** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 7** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 8** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 9** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 10** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 11** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 12** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 6** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 7** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 8** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 9** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Martitzena, 10** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 11** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguena, 12** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



**Max. 23º**
**Min. 12º**

**ZAPATUA, 7**
Giro epela izango da zapatuan, eta, tarteka goi-hodei finak sartuko diren arren, zerua orbandu baino ez dute egingo.



**Max. 23º**
**Min. 12º**

**DOMEKA, 8**
Giro eguzkitsua eta atsegina espero da domekarako. Zerua nahiko garbi egongo da eta tenperatura epela izango da.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### LANA

**Administrariak.** Valentziako Unibertsitatea. Baldintzak: goi mailako batxilergoko titulua edo baliokidea. Azken eguna: otsailak 15.

**Enplegu eta Etxebizitza teknikaria.** Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. Lanpostua Gazteizerako da, baina Euskadi osoan lan egiteko. Baldintzak: 30 urte baino gutxiago, goi ikasketak, euskara eta gaztelera maila handia. Azken eguna izango da: azaroak 16.

**Ikasketak.** Amancio Ortega Fundazioa. Kanadan batxilergoko ikasketak egiteko Amancio Ortega Fundazioaren bekak. Baldintzak: DBHko 4. mailako ikaslea izatea, batez besteko nota: gutxienez, 8. Beken kopurua: 100. Azken eguna: otsailak 22.

### LEHIAKETAK

**Kartelak.** Arrasateko Udala. Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketa. Aurtengo leloa: *Feminismoaren bidetik, emakumeak libre!* Azken eguna izango da: otsailak 22.

**Huhezinema.** MU. Film labur lehiaketa –gehienez, 30 minutuko iraupena–, edozein generotan. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako lanak. Azken eguna hauxe izango da: martxoak 1.

**Rockein! Nerbioi-Ibaizabal talde lehiaketa.** Basauriko Udala. Baldintzak: 16 urtetik gorakoak; gutxienez, taldearen musikari batek Nafarroakoa edo Euskadikoa izan behar du; eta argitaratutako disko bat baino gehiago ez edukitzea. Azken eguna izango da: otsailak 28.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

ESKER ONA



**Gregorio Madariaga Lamariano**

2015eko urriaren 29an hil zen.

**Josefina Lete Larrañaga**

2015eko abuztuaren 30ean hil zen.



*Zuek izan zarete, amama eta aitxitxa kuttunenak,*
*zeuek, gure biziak goxo eta maite bihurtu dituzuenak,*
*Oraingo hutsune eta falta betetzea izango dira ezinezkoak,*
*baina guregan argi egin dezala zuengandik ikasitakoak.*

—

Eskerrik asko bihotz-bihotzez garai hauetan hurbiltasuna adierazi diguzuen guzti-guztioi.
Eskerrik beroenak, familiaren izenean.

**Antzuolan, 2015eko azaroaren 6an.**

OROIGARRIA

# Jaione Anso Eguren



*Halabeharrak edo ekarriziguna*
*Bakaikun bazen denok maitatu duguna.*
*Betikoa ez baitzen, zerura da juna.*
*Berak utzi du, berak, hemen hustasuna.*

**Lagunak.**
**Arrasaten, 2015eko azaroaren 6an.**

OROIGARRIA

# Patxi Exposito Fernandez



2015eko azaroaren 1ean hil zen.

*Gure oroimenean betiko izango zaitugu.*

**Zure kuadrilla.**
**Arrasaten, 2015eko azaroaren 6an.**

URTEURRENA



# Teodora Ugarte Orue



*Urtea pasa dela*
*gogoratuz gaurkuan*
*oroimenak gordetzen zaitu*
*bihotzaren barruan*

*besarkada goxo eta xamur bateaz*
*beti izango gara onduan*
*zuganako maitasuna ez da itzaliko*
*nahiz eta ez egon gure albuan.*

—

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 8an, 11:00etan,
Garagartzako San Migel elizan.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, etxekoen izenean.**
**Arrasaten, 2015eko azaroaren 6an.**

URTEURRENA

# Joxe Miguel Biain Guridi



2014ko azaroaren 1ean hil zen, 48 urte zituela.

*Etxe-etxekoa izan zara, Joxe.*
*Bat batean joan arren gure ondotik,*
*beti egongo zara gure bihotzetan.*

Zulueta-Lizarralde eta Reinstadler-Ugarte familiak.

—

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 7an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, aurrez eskerrik asko.**
**Oñatin, 2015eko azaroaren 6an.**

URTEURRENA

# Jose Miguel Biain Guridi



2014ko azaroaren 1ean hil zen, 48 urte zituela.

*Izarrak izar diren bitartean,*
*beti egongo zara gure bihotzean.*

Zure ehiza lagunak

—

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 7an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, aurrez eskerrik asko.**
**Oñatin, 2015eko azaroaren 6an.**



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

URTEURRENA



# Jose Luis Uralde Ugarte



2014ko azaroaren 7an hil zen, 68 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 7an, 19:00etan,
Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Aretxabaletan, 2015eko azaroaren 6an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Miguel eta Mari Carmen ▼▲

Miguel Jurado eta Mari Carmen Risco azaroaren 6an ezkondu ziren, orain 50 urte. Zapatuan ospatuko dituzte urrezko ezteiak familia guztiarekin batera. Zorionak, seme-alaben eta biloben partetik!



### Juan Antonio eta Lourdes ►

Juan Antonio Aretxaga eta Lourdes Isasmendi azaroaren 3an ezkondu ziren, Untzillan, orain dela 25 urte. Zapatuan ospatuko dute familia osoarekin. Euren partetik, zorionak eta ondo pasatu!



### Marijo eta Juan Cruz ▲

25 urte bete zituzten ezkonduta urriaren 20ean. Brasileñako lagun guztien partetik, zorionak, bikote!

### Igor eta Nagore ►

Igor Baz eta Nagore Eskibel larunbat honetan, azaroaren 7an, ezkonduko dira Arrasaten. Familiarekin ospatu eta gero Thailandiara joango dira eztei-bidaian. "Etapa berri honetan oso zoriontsu izan zaiteztela opa dizuegu familiakook!".





**ARRASATE** 'Txanogorritxo' antzezlana

Haurrendako antzezlana egingo du Glu Glu taldeak Charles Perraulten ipuin klasikoan oinarrituta, Galder Perezek egindako moldaketarekin. Ugaitz Alegria, Ylenia Baglietto, Andrea Covadonga eta Olatz Ganboa oholtza gainean. Sarrerak salgai leihatilan.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.



GLU GLU PRODUKZIOAK



COROEASO.COM

**OÑATI** Easo Abesbatza eta Kirmen Uribe poeta

Iparragirre oroimenean, kontzertua eskainiko dute; besteak beste, *Agur zaharra*, *Nere maitiarentzat*, *Nere etorrera* eta *Ume eder bat* abestuko dituzte, Oñatiko Musika Egunetako lehen emanaldian. Sarrerak, bost euro.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

# NON-ZER

AZAROA 6 AZAROA 12

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ARRASATE Fly Shit**

*Barneko ahotsaren bila* diskoaren aurkezpenaren aitzakiarekin hogei urteko ibilbideko kantuen errepasoa egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 19:30ean.

**ELGETA Trio Basaur**

Sarrerak salgai: aldez aurretik zortzi euro, eta leihatilan, hamar.

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

**ARRASATE Antton**

Doako emanaldia.

Gaur, egubakoitza, Jai Zalen, 23:30ean.

**ARRASATE Morgans taldea**

Doako emanaldia.

Bihar, zapatua, Jai Zalen, 18:30ean.

**BERGARA Sermond's eta Estricalla**

Hurrenez hurren, *Libelula* eta *Hutsartea* diskoak aurkeztuko dituzte skate-gunearen seigarren urteurrenean.

Bihar, zapatua, Laino skate gunean, 18:30ean.

## LITERATURA

**BERGARA Beldurrezko ipuinak**

Bego Alabazan kontalariak hiru saio egingo ditu adin guztietako lagunendako.

Gaur, egubakoitza, Angiozarren, 17:00etan.

**ARETXABALETA Helduendako ipuin kontaketa**

*Ipuinen jostuna* kontaketa saioa egingo du Amelik helduendako. Sarrera, debalde.

Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan.

**ARRASATE Ipuin kontaketa**

Ines Bengoak 5 urtetik gorako umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du, euskaraz.

Azaroaren 12an, Santa Marinako bibliotekan, 18:00etan.

## ANTZERKIA

**OÑATI 'Hospital o manicomio'**

Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldeak lan berria prestatu du. Lehen saioa erretiratuendako bakarrik izango da. Gabonen aurretik egingo dute beste bat herritar guztiendako.

Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 17:30ean.

## ERAKUSKETAK

**ESKORIATZA Perretxiko erakusketa**

Luis Ezeizako guraso elkartekoen eskutik askotariko perretxikoak ikusteko eta ezagutzeko aukera egongo da.

Etzi, domeka, Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan.

**OÑATI Argazki lehiaketako lanak**

Aloña Mendiko mendi sailak deitutako lehiaketako argazki onenak ikusgai.

Azaroaren 23ra arte, kultura etxean.

**BERGARA Kirol argazki lehiaketako lanak**

Udalak deitutako lehiaketako argazki onenak ikusgai.

Azaroaren 15era arte, Aroztegin.

**ARETXABALETA Mikel Zamora**

Argazkilari aretxabaletarraren *BidataTU* delako erakusketa.

Azaroaren 2tik 30era arte, Arkupen.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**

Bixente Barandiaranen lanak eta burdina hizpide.

Harresi aretoan ikusgai.

## GAZTELEKUAK

**OÑATI Batzarra**

Lehen Hezkuntzako 5. mailakoekin batzarra egingo dute urteko ekintzen plangintza egiteko.

Gaur, egubakoitza, kuboan, 17:00etan.

**ARETXABALETA Sukaldaritza saioa**

Gaztetxoendako.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:30ean.

**ARRASATE Ginkana**

Zapatuan udazkeneko ginkana egingo dute eta domekan argazki-ginkana.

Aipatutako egunetan, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

**ARETXABALETA Muralgintza**

Aste bukaeran murala margotuko dute.

Aipatutako egunetan, gaztelekuan, 17:00etan.

**ESKORIATZA Sukaldaritza saioa**

Krepeak egiten ikasiko dute gazteek.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

**ESKORIATZA Wii dance txapelketa**

Gazteendako.

Etzi, domeka, gaztelekuan, 19:00etan.

## UMEAK

**ELGETA Ipuinen ordua**

3 urtetik gorako umeendako saioa, euskaraz.

Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

**ARRASATE Usaetxeko ludotekaren urteurrena**

Zortzigarren urtemuga ospatzeko, Usaetxeko ludotekan diharduten umeek ikuskizuna eta jolasak egingo dituzte. Okendokoak eta Santa Marinakoak ere egongo dira.

Gaur, egubakoitza, ludotekan, 17:30ean.

**ELGETA 'Sormening' saioa**

Onditz Mendizabalek sormen tailerra egingo du umeendako eta gurasoendako. Sarrera irekia izango da.

Etzi, domeka, Espaloian, 17:00etan.

## BERTSOLARITZA

**ESKORIATZA Gipuzkoako Txapelketako azken final-laurdena**

Beñat Lizaso, Manu Goiogana, Mikel Artola, Oihana Iguaran, Unai Agirre eta Unai Mendizabal bertsolariak egongo dira oholtza gainean. Iban Narbaizak aurkeztuko du kanporaketa. Sarrerak, *www.bertsozale.eus* atarian.

Etzi, domeka, kiroldegian, 17:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**ELGETA Gaztaina erreak**

Herri Eskolaren eta Maala gurasо elkartearen eskutik.

Gaur, egubakoitza, frontoi zaharrean, 15:00etan.

**ELGETA Gaztaina erreak**

Xalbadorpe elkartearen eskutik.

Gaur, egubakoitza, Ozkarbin, 18:00etan.

**ARETXABALETA Gaztaina erreak**

Erretiratuen elkarteko kideekin.

Gaur, egubakoitza, Basotxon, 18:00etan.

**OÑATI Larraña auzoaren III. eguna**

Euskal barazkien erakusketa eta gaztaina erre jana.

Bihar, zapatua, Larrain Gainen, 10:00etan.

**ESKORIATZA Eskoitzara Eguna**

Herriko preso eta senideei elkartasuna adierazteko egun osoko jaia Eskoriatzako Presoen Lagunak taldeak. Egitarau zabala prestatu dute.

Bihar, zapatua, Eskoriatzan, 12:00etan.

## IRTEERA

**ARRASATE Arabako lautadara**

Hamabigarren etapa egingo dute: Sarria-Montevite. Izena emateko egunak: hilaren 9a, 10a eta 11, 19:30etik 20:30era, Besaideren bulegoan.

Izen-ematea aipatutako lekuan eta orduan.

## AURKEZPENA

**BERGARA Kilometroak 2016**

Datorren urteko jaiaren aurkezpen ekitaldia egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Seminarioko karpan, 19:00etan.

## DEIA

**OÑATI Odol ateratzea**

Urteko azkenaurreko ateratzea egingo dute.

Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

**ANTZUOLA** Klak!son taldearen disko berria

*Denboraleak* du izena Antzuolako, Urretxuko eta Zumarragako kideek osatzen duten taldearen azken lanak. Bost kanta ditu eta autoekoiztutako diskoa da. Eurekin batera Isuo Sasia bakarlari zarauztarra egongo da *Idiaren zaintzari buruzko hamar estanpa* diskoko kantak jotzen.

Gaur, egubakoitza, Aitz Garbin, 18:00etan.



KLAK!SON


EROMEN PRODUKZIOAK

**BERGARA 'Lukurreria, lizunkeria eta heriotzaren erretaula'**
Zestoako interpretazio eskolako kideek antzeztuko dute Ramon Maria del Valle-Inclan dramaturgoaren lan batean oinarritutako moldaketa. Amancay Gaztañagak zuzendutako lana da. Sarrerak, leihatilan, zortzi eurotan.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 19:00etan.

**OÑATI Mikopoteoa**
Javier Gomezen hitzaldia eta Zelai-Zabaleko, Goiko-Bentako, Sindikako, Milikuako eta Arantzazuko Santutegia Hoteleko pintxoak probatzeko aukera.
Bihar, zapatua, Arantzazun, 18:30ean.

**BERGARA Kafekonpon**
Apurtutako etxetresna txikiak eta apurtutako bestelako produktuak konponduko dituzte.
Azaroaren 11n, San Joxepen, 18:00etan.

**OÑATI Errepresioaren gaineko azterketa**
Oñatiko azken hamarkadetako errepresioaren gaineko azterketa egingo dute.
Azaroaren 11n, Antixenan, 18:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**OÑATI Muturreko kayaka**
*Inkayak, Inken bailaran piraguan* delako ikus-entzunezkoa Aloña Mendiren mendi hamabostaldian. Eneko Iartzak Peruko ibai luzean egindako bidaia erakutsiko du.
Azaroaren 10ean, kultura etxean, 19:30ean.

**OÑATI Espedizioa Cho Oyura**
Oier Plazaolak 2014an Cho Oyura egindako espedizioaren gaineko emanaldia, Aloña Mendiren mendi hamabostaldian.
Azaroaren 11n, kultura etxean, 19:30ean.

## IKASTAROAK

**BERGARA Blog eta web orrien diseinua**
Hastapen ikastaroa azaroaren 16tik abenduaren 16ra. Izen-ematea: 943-76 93 94 edo *info@bizikasi.com*.
Izen-ematea aipatutako lekuetan.

**ARRASATE Autodefentsa feminista**
Hilaren 14an eta 15ean Alaitz Mañes irakaslearekin. Izen-ematea 943-79 41 39an edo Emakume Txokoan, hilaren 11ra arte.
Izen-ematea aipatutako lekuetan.




Espaloia Kafe Antzokiari esker
Cristina Medina y los Gusanitos de Teruel taldearen ikuskizunerako sarrerak ditugu
Espaloia Kafe Antzokian, Elgetan
Azaroaren 13an, 22:30ean

PARTE HARTZEKO:
**SMS:** KLUBA [Cristina] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Cristina [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba



Espaloia Kafe Antzokiari esker
Monolokos3 taldearen ikuskizunerako sarrerak ditugu
Espaloia Kafe Antzokian, Elgetan
Azaroaren 14an, 20:00etan

PARTE HARTZEKO:
**SMS:** KLUBA [Monolokos] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Monolokos [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba


# ZINEMA

## ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Marte**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Marko Makako (euskaraz)**
Domeka: 17:00.

## BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Amama**
Domeka: 19:30, 22:00.

## OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Spectre**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

## ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Regresion**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Inside out**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## EIBAR

**COLISEO**

**Spectre**
Zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00.

**Mi gran noche**
ZApatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena; 20:30.

**Los miercoles no existen**
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Spectre**
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Hotel Transilvania 2**
Domeka: 17:00.

## GASTEIZ

**FLORIDA**

**Tres corazones**
Egubakoitzetik eguenera: 19:45.

**Amama**
Egubakoitzetik domekara: 18:35.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:15.

**Atrapa la bandera**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Dheepan**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

**El me llamo Malala**
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 20:35.
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Hotel Transilvania 2**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:15.
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Jai alai blues**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**La promesa**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Marte**
Egubakoitzetik eguenera: 19:45.

**Mi gran noche**
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 20:35.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Spectre**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:30.
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

**Truman**
Egubakoitzetik domekara: 18:35, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00, 22:30.
Martitzena: 20:15.

**Una pasteleria en Tokio**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:30.

**Hotel Transilvania 2**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**BOULEVARD**

**Spectre**
Egubakoitza: 17:30, 20:30, 23:30.
Zapatua eta domeka: 16:00, 17:00, 20:00, 23:00.
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 19:00, 21:00, 22:00, 00:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00, 22:00.

**Sinister**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.
Zapatua eta domeka: 16:40.
Astelehenetik eguenera: 18:40, 20:40, 22:40.

**El ultimo cazador de brujas**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Zapatua eta domeka; 15:30.

**Hotel Transilvania 2, 3D**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Hotel Transilvania 2**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 18:30, 19:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Truman**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Marte**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 21:15.
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Mi gran noche**
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 20:20.
Zapatua eta domeka: 16:10.

**Regresion**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**El becario**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

**La cumbre escarlata**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Black mass**
Egunbakoitzetik eguenera: 21:30.

**Marte 3D**
Egunbakoitza eta zapatua: 00:00.

**Everest**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Pan, viaje a Nunca Jamas**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Atrapa la bandera**
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.

# KRITIKA



**TRES CORAZONES** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Benoit Jacquo.
**Herrialdea:** Frantzia.
**Urtea:** 2014.
**Aktoreak:** Benoit Poelvoorde, Charlotte Gainsbourg, Chiara Mastroianni.
**Iraupena:** 100 minutu.

## Maitasuna eta patuaren nahia

Film bitxia da *Tres corazones*. Kontatzen duen istorioa maitasun triangelu baten oinarritzen da. Gizon batek eta emakume batek elkar ezagutzen dute gau baten. Elkarrekin ordu batzuk pasa ostean, aurreragorako beste hitzordu bat egiten dute. Ezuste baten ondorioz elkar ikustea ezinezkoa izango da. Denbora pasako da eta gizonak beste emakume bat ezagutuko du. Maitemindu eta ezkondu egingo dira. Harremanak hasi eta gero, emaztearen aurretik ezagutu zuen emakumearen ahizpa dela jakingo du. Betiko istorioa modu nahiko bitxian kontatuta.

Istorioan kasualitateak eta patuaren nahiak garrantzi handia dute. Trena segundo batengatik galtzeak harreman berriak sortzeko aukera ematen du. Adostutako orduan ez agertzeak, berriz, harreman horiek sendotzeko aukera galtzea dakar. Halako gertaerek pisu handia izan dezakete geure bizitzak hartzen duen norabidean. Kontrolatzen ez ditugun detaileak oso garrantzitsuak dira, eta horri guztiorri Jacquotek kutsu fatalista ematen dio. Dena bitxia da. Pertsonaien arteko elkarrizketak bereziak dira, eszenak nahiko motzak dira eta elipsiak daude. Era berean, ezohizkoa da musikaren erabilera: amodiozko istorioa izan arren, filmari kutsu kezkagarria ematen dioten eztanda batzuk agertzen dira musikan.

Pertsonaien mugimenduak asaldatzaileak dira, nahiko atsekabetuta daudelako. Zalantza handiak dituzte, bizitzaren zama antzematen dute; baina, aldi berean, oldartsuak dira eta sentimenduek gidatzen dituzte. Hor sortzen da buruaren eta bihotzaren arteko norgehiagoka. Eta gatazka horren barruan kasualitatearen eta patuaren nahia sartzen dira pertsonaien bizitzak gehiago eragozteko. Pertsonaien izaerak eta Jacquoten estilo zorrotzak filmari ukitu harrigarria ematen diote.

ANTONIO ZABALA

Tarta baten zozketa Puntuan. **Hartu parte eta... on egin!**

Goxo Goxua
gozotegiko
Tatin tarta.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba"



BUKATZEKO

# Antzerkian egindako urteak gogoan

- Ernai antzerki taldea orain dela 50 urte sortu zuten Bergaran, eta 'Malentxo alargun' antzeztu Novedadesen
- Urteurrena ospatzeko eta ordukoak gogoratzeko, atzo, azaroak 5, elkartu ziren taldekide izandakoak

KOMUNITATEA GOIENA |
ERNAI ANTZERKI TALDEA | BERGARA

Zenbat gogorapen, zenbat irudi pasatzen diren momentu batean bakoitzaren burutik. Zenbat gogorapen joaten diren plis-plas batean… Gogorapenak gogorapen, baina nondik hasi, zer azpimarratu, nora begiratu… Eskerrak ia-ia gehienok gaudela, bai, Bergarako Ernai antzerki taldekoak hemen gaude. Orain 50 urte sortu genuen taldea, edo, hobe esan, Txomin Amasorrain eta Juste Amenabarrek sortu zuten eta guztira 19 lagunek osatzen genuen *tropa* osoa. Garai latzak ziren, diktadurak ez zuen uzten brometarako tokirik. Gobernu Zibilak gogor begiratzen zion euskal usaina zeukan edozeri. *Malentxo alargun* estreinatu genuen Novedades aretoan eta ondoren Euskadiko herri askotan ibili ginen. Euskarazko antzerki talde amateur onenaren saria jaso genuen eta Juan Luis Bikuñak aktore onenarena. *Malentxo alargun* lanaren ostean etorri ziren *Ito edo ezkondu*, *Argi izpi bat* eta *Ordu eroslea*.

Zorionez, beste etapa batean gaude eta hemen gabiltza. Baina, betiko leloa, beti gertatzen da zerbait, bat joan dela eta bestea kili-kolo ikusten dugula. Biziaren gorabeherak! Faltaren bat nabaritzen denean denok dardaratxo bat sentitzen dugu barnean. Baina hemen gaude ia-ia Ernai antzerki taldearen gehienak, edo gehientsuenak. Baina... a! Betiko leloa… zergatik falta izanen dira onenak? Batek a! Besteak o! Beti dugu zerbait hezurren gainean… Beno, gauzak horrela izaten dira. Txomin Amasorrainek, bere umorea erabiliz, hauxe esango luke: "A lo hecho pecho". Zenbat ordu eta ordu pasa ote zituen gure inguruan, testuak ikasten eta beti umorez eta irribarretsu. Ez zegoen Txomin modukorik.



Urteurrena ospatzeko elkartutako kideak, atzo, Bergaran. | MIRARI ALTUBE



Taldekideak antzezlan baten ostean. | ERNAI ANTZERKI TALDEA

Juste Amenabar, paper guztiak ondo ordenaturik, beti erdarakadatxoren batekin eta beti abertzaletasunaren ikurraren aurrean. Jose Alvarez tramoista zen, langile hutsa, lasai-lasaia, berak erakutsi zizkigun, besteak beste, kanta usaintsu bat…: *"Zabaldu eidazu atea, Jaungoikoagatik, kakaguria nator Errenteriatik…"*. Kantu hori, normalean, etxerako bueltan kantatzen genuen. Itziar Amenabar, zoritxarrez, gazte joan zaigu. Aktore ona zen, oso ona. Baina bizitzak ematen dituen taraskadak horrelakoak izaten dira. Pedro Epelde, gure betiko diruzaina… Gizon zintzoa. Jesus Mari Gabilondo, taldeko saltseroa.

AZKEN BERBA



AGURNE
BARRUSO

## Zeharka ere hiltzen du

Duela gutxi jakin dugu gai honen inguruko Bergarako epaitegiaren sententzia. Luisa amiantoak zeharka hil zuela baieztatzen du bertan.

Urte askoan jardun dute borrokan bere seme-alabek aitortza honen atzetik, eta, luze jo badu ere, azkenean, etorri da garaipen txiki erraldoi hau.

Garaipen txikia, biktima bakar baten aitortza egiten duelako eta amiantoak eragindako biktimak asko eta asko direlako. Gehienak aitortu gabeak oraindik. Baina Erkidegoan lehen aldiz aitortu da badirela amiantoz zeharka hildakoak, eta hori garaipen erraldoia da.

Arcelorrek sententzia errekurrituko duela pentsatzeko ez da oso azkarra izan behar, eta, seguruenik, etxekoek bide luzea izango dute sententzia hau behin betikoa izan arte.

Baina lehenengo sententzia honek arnasa hartu eta borrokan jarraitzeko balio behar digu. Etxekoei eta amiantoaren aurkako borrokan diharduten guztiei. Administrazioa ere bidelagun izan beharko litzateke. Herritarren interesak eta ongizatea defendatzea helburu bada, hel diezaiogun honi ere.

Bide luzea dago eta guztion ekarpena beharko dugu portu onera iristeko.

EROSKI
ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

EROSKI Club-ek urte bat bete du!






Ospatzeko…
**Irabazi urte bateko erosketa doan**
eta sari eta abantaila gehiago barnean

**Eta gainera, 2. alea**
**% 50eko**
**deskontuarekin ehunka produktutan**